



Euskadiko II.
mushing
txapelketa
jokoan Gorlan
asteburuan | 29

Zarzuela
"konplikatu"
baina "polita"
taularatuko dute
Arrasaten | 31

DEKORAZIOAN AZKEN JOERAK
Gehigarria barruko orrialdeetan | 17



Organikoa berezita, jasoko
dute urtarriletik Arrasaten | 10



Antzuolako armarran kanoiak
arbolengatik ordezkatu dituzte | 9



"Ikusteko dago garbigailuak
egingo ditugun edo ez"

Galagarza Etxetresnetako presidente Xabier Bengoetxeak Fagor
berriaren abiatze prozesuaz dihardu elkarrizketan | 6

Xabier Bengoetxea
Fagorrek Arrasateko
San Andres auzoan
dituen instalazioen
kanpoko aldean.

JAGOBA DOMINGO



Kanpainako selfie bat. | ATZEGI

Adimen urritasuna dutenek asko dute eskaintzeko

Adimen urritasuna dutenek gizarteari egiten dioten ekarpen positiboa ikustarazteko kanpaina abian du Atzegik. Besteak beste, autoargazkien bidea aukeratu dute hori erakusteko, eta asko bildu dituzte #elkarrion traolarekin sare sozialetan. Urte osoan jarraituko dute ekimenarekin. | 2

SINADURAK

Sanmartinetan txarriboda gutxi | 8
ROSA MONDRAGON

Herri galdeketa Zestean | 40
AGURNE BARRUSO

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 5 |
ELKARRIZKETA 6 | IRITZIA 8 | HERRIAK 9 | KIROLA
28 | KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35 |
TELEBISTA-IRRATIA 36 | ESKELAK 36 |
EZKONTZAK 37 | NON-ZER 38

943 71 48 45

Hemen GARBIKETAK

www.hemen-garbiketak.com

Zure konfiantzako garbiketa enpresa

Mantentze garbiketak,
obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:

- Bulego eta lokalak
- Jabeen erkidegoak, garajeak
- Lokal komertzialak, azalera handiko saltokiak, hotelak eta enpresak
- Eraikin instituzionalak, eskolak, kiroldegiak, anbulatorioak, eta abar.

Intxaurtxueta 16 Behea • ESKORIATZA • hemen@hemen-garbiketak.com

Passat Alltrack

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

Das Auto.



Pausoz pauso, bizi proiektuak elkarrekin eraikiz

- ▶ Atzegiko etxebizitzetan, ilusioak betetzea helburu
- ▶ Adimen urritasuna dutenek gizarteari egiten dioten ekarpen positiboa ikusarazteko kanpaina martxan da

MAIALEN TORRES | ARETXABALETA
"Adimen urritasuna duten pertsonen bizitza beste edonork izan lezakeenaren ahalik eta antzekoena izan dadin egiten dugu lan", dio Nahikari Somek, Atzegiren Aretxabaletako etxebizitza zerbitzuan diharduen begiraleak. Izan ere, haren esanetan, edonorentzat arrunta dena erronka bihur liteke adimen urriko per-

tsiona batentzat. Hori dela eta, Aretxabaletako etxean bizi direnei, higienez, komunitateko bizitzan, diruaren erabileran eta halakoetan laguntza eskaini behar izaten diete. Bizikidetzaren bidez, "aukera bat" ematen diete, baina, Aretxabaletako etxebizitzako langileek azpimarratu dutenez, eman bakarrik ez, jaso ere egiten dute eurengandik, Saioa Artza-

mendi begiraleak dioenez, "askotan, eman baino gehiago".

Hain zuzen ere, horixe azpimarratzeko jarri zuen abian Atzegiko aurtengo sentsibilizazio kanpaina "Atzegiko kideek bizitzako esparru ezberdinetan egindako ekarpenak zein positiboak diren eta beraiekin erlazionatzea zein aberasgarria den erakutsi nahi dugu", diote.

Kanpainari esker, *selfie-z* bete dira sare sozialak eta Twitterren, Facebooken eta Instagramen *#elkarrion* traoladun autoargazkiak daude nonahi. Urte osoan zehar jarraituko dute *selfie*-ak biltzen, baina Atzegiko teknikari Naroa Artolak esan duenez, dagoeneko "askok" bidali dituzte eurenak, eta "pozik" daude jendearen erantzunarekin. Egungo modaren eta sare sozialen indarra aprobetxatu nahi izan dutela ere azaldu du, elkarteaz kanpoko ahalik eta jende gehienarengana euren mezua helarazteko. Horretarako, argazkiekin batera, kanpainako partaideek adimen urritasuna dutenekiko elkarrekin-tzatik zer jasotzen duten idazten dute, nork bere erara, baina guztiek "elkarri on" egiten diotela nabarmentzeko.

Gizarteari egiten dizkioten ekarpenen artean, "alaitasuna", "aurrera egiteko gaitasuna", "maitasuna", "adiskidetasuna", "dibertsioa" eta "esker ona" aipatu dituzte, besteak beste.

Harreman estua

Ondo baino hobeto dakite hori Atzegiko etxebizitza zerbitzuko langileek. 30 etxe inguru daude Gipuzkoan, eta Aretxabaletakoa horietako bat da. Bertako langile batzuek duela hamabi urte ireki zenetik egiten dute lan etxebizitzan, adimen urritasuna duten pertsonen "iristen ez diren tokietara iristen" laguntzen. "Azkenean,

ezagutu egiten ditugu, eta bada-kigu bakoitzak ze gaitasun dituen edo ze laguntza behar dituen", dio Artzamendik.

Etxebizitzan bi solairu bereizten dituzte, neskena bata eta mutilena bestea. Zortzina pertsona bizi dira bakoitzean, eta, begiraleez gain, bada *etxeakoandre* deritzon beste langile bana ere. Hura arduratzen da "etxea gobernatzeaz", Eneritz Saltsamendi begiraleak azaldu duenez. Kudeaketaz gain, garbiketa orokorra, otorduak prestatzea, erosketa egitea eta arropak garbitzea ere *etxeakoandrea*-ren ardura izaten dira. Hala ere, Saltsamendiren esanetan, *etxeakoandrea*-ren funtzioetan sartzen ez den arren, eurak dira etxeari "goxotasuna" ematen diotenak. "Bertan bizi zein lan egiten dugunontzat oso garrantzitsuak dira. Nolabait, amaren papera betetzen dute", dio.

Berez bizilagunen talde bat baino ez den arren, begiraleen esanetan "oso ondo moldatzen dira elkarrekin". Denborarekin, gainera, oztupoak oztupo, harremana gero eta estuago bihurtzen da. "Gatazkak ere izaten dira, edozein elkarbizitzatan bezala, baina horretarako gaude gu", diote. Azken batean, ordu asko pasatzen dituzte elkarrekin, eta, Some- ren esanetan, "bizitza konpartitzen" dute eurekin eta askorentzat "erreferente" bihurtzen dira; hori bai, betiere, mugak non dauden argi izanda.



NISSAN PULSAR BERRIA 13.900 €-tik aurrera
ZURE KOTXE BERRIA. ZURE ARIMA BIKIA.

PROBA EZAZU ORAIN.



GAURSA

Otaola hiribidea 22 - Eibar
Tel.: 943 82 09 74
www.nissanarabauto.com

Kontsumo mistoa: 5,0 l/100 km. CO₂ jaulkipenak: 117 g/km.

*Prezio gomendatua Penintsularako eta Balear uharteetarako. Barne hartzen ditu: PFF, garraioa, Nissan Assistance, promozio deskontua, Pive NiSSAN Plans, BEZA eta IEDMT (agian, Espainiako merkatuan, zure autonomia erkidegorako ez da aplikagarria). Partikularrentzat eta autonomoentzat baliagarria den eskaintza, Nissan Pulsar Visia 1,0DG T I 115ZP (85kW) eskuratzen duenarentzat, eroslearen izenean dagoen erabilitako ibigailu bat trukoan emanda eta Magic Plan RCI Banque S.A. bankuarekin finantzatuta (Espainiako sukurtsala). 24 hilabeteko gutxieneko iraunkortasunarekin, gutxienez 6.000 € finantzatuta. Ez da bateragarria beste kanpaina batzuekin eta 2014/10/31ra arte da baliagarria. Informazio zabalagoa, Nissan Gaurisan. Ikusten den modeloa: Nissan Pulsar Tekna Premium.



Atzegiren #elkarrion kanpainak selfie asko bildu ditu, eta honako hauek dira Debagoien ingurukoak. Lerro hauen goialdean, berriz, Aretxabaletako etxebizitzan bizi diren Manuel eta Adelaida Gartzia anai-arrebak.

ARGAZKIAK: ATZEGI



Bizitzeko aukera

Manuel eta Adelaida Gartzia anai-arrebek hamar urte daramatzate Aretxabaletako Atzegiren etxean bizi izaten eta biek aitortu dute "oso gustura" daudela. Manuel Gartziak Arrasateko Gureak-eko tailerrean egiten du lan, autoentzako konektoreak egiten. "Gustatzen zait egiten dudana, eta tailerrean ere oso giro ona dugu, lagun asko ditut", dio. Adelaida Gartzia, berriz, zaharren egoitzara joaten da egunero lanera eta oso serio hartzen du lana: "Gosaltzera edo paseatzera eramaten ditut. Batzuetan, ez dute nahi izaten, baina berdin berdin eramaten ditut, nire lana da eta!".

Lanean topatzen duten jendearekin hitz egiteko aukera da biek gehien baloratzen dutena, eta, lan egitea Aretxabaletako etxebizitzan bizi izateko bete

beharreko derrigorrezko baldintzetako bat bada ere, Saltsamendiren hitzetan, "asko betetzen dituen jarduera" da. "Bizi izateko modu bat da; beste batzuk independentzatu garen moduan, haiek ere aukera hori izan dezaten egiten dugu lan", dio begiraleak.

Egunerokoa ilusio

Etxean bizi direnen beharrak eta nahiak aztertuta, pertsona bakoitzari dagozkion helburuak finkatzen dituzte, euren bizi kalitatea hobetzeko asmoz. "Zein amets eta ilusio dituzten entzuten dugu lehenengo, eta ondoren betetzen saiatzen gara", dio Saltsamendik, baina askotan "harrituta" geratzen dira. Izan ere, edonoren errutinan parte den zerbitu eurentzako ilusioz itzaroten duten zerbitu bihur liteke; tabernan, afaritarako, ogi-tarteko bat jatea, adibidez.

Egun baterako euren ametsetako plana zein den galdetuta, Manuel Gartziak Donostian ikastaro bat egitea edo hondartzara bidaiatzea aipatu ditu eta Adelaida Gartziak, berriz, zineman maitasun pelikula bat ikustea. Bi anai-arreben nahiak entzunda, honela esan du Saltsamendik: "Horrek erakusten du bizitzan garrantzitsuenak diren gauzak zeintzuk diren eta gauzarik sinpleenek zenbat balio duten".

Edozein anai-arrebak bezala, txantxak egiten dizkiote elkarri, baina goxotasunez agurtu dute elkar nor bere etxera itzultzean. Abenduaren 3an Adelaida Gartziak anaiarekin ospatuko du bere 43. urtebetetzea, eta dagoeneko ilusioz beteta daude biak egun handiaren zain, bazkaltzera joateko plana egin dute-eta.

Halako uneak dira begiraleei euren lana hainbeste gustatzearen arrazoietakoa bat, baina Saltsamendik argi dauka hori baino gehiago dela. "Pertsonen bizitza hobetzen ari zarela ohartzea oso motibagarria da. Gauzak lortzen eta euren bizitza aurrera eramaten laguntzea erronkaz betetako bidea da", dio. Some eta Artzamendi ere bat datoz Saltsamendirekin. "Horrela, gustua ematen du lanera etortzeak", diote.



(B) Diru (B)eltza, gizarte-zerbitzu (B)eltzak

"A" gizartea lortzeko eskatu beti faktura

Faktura eskatzen duzunean, ziurtatzen ari zara zure diruaren zati bat guztion ongizaterako izango dela hezkuntza, azpiegiturak, enplegua eta gizarte zerbitzu bihurturik.

ZATOK EKONOMIA GARDENERA

www.ekonomiagardena.net



Gipuzko
BERRIA

ESANAK

"Bizi lezio asko emateaz gain, asko irakatsi didate urteotan"




ENERITZ SALTSAMENDI | BEGIRALEA

"Daukaten guztia emateko prest daude beti"



SAIOA ARTZAMENDI | BEGIRALEA

"Edozein egoeratarra moldatu eta aurrera egiteko gai dira"



NAHIKARI SOME | BEGIRALEA

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1989ko Azaroak 10, 40. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean

MAXI-EROSKI

Deba Garaian

25
urte zuekin!

Zatoz gurekin ospatzera!
Azaroaren 15ean Arrasateko
Eroski hipermerkatuan



Eskerrik asko debagoiendar guztioi!

Arrasateko hipermerkatua



Musakola 11
ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

Candyren itxiera formalki jakinarazi diete langileei

Antolaketa, ekonomia eta produktibitate arrazoiak eman zizkieten atzo, eguena

A.E. / U.M. | BERGARA

Bergarako Candy-Hooverren fabrikaren egindako garbigailuak eramatera etorritako hiru kamioiei bidea eragotzi, udalbatzar ezohikoa eta manifestazioa. Horiexek izan dira kalean geratu diren Candy-Hoover taldeko beharginen asteon egin dituzten protesta ekimenak.

Kamioien irteera eragozteari dagokionez, Bergarako plantan egindako materiala eramatera etorri ziren. Eta beharginen erru berak jarri zituzten eguazten eguerdian haiei bidea ixteko. Candy-Hooverreko zuzendaritzaren segurtasun taldeko kide batek kendu behar izan zituen pneumatikook kamioiak irten ahal izateko. Edozelan ere, hutsik joan ziren kamioiak.

Candyko enpresa batzordetik emandako xehetasunen arabera, 1.200 garbigailu inguru daude eginda, eta beste 3.000 bat egiteko materiala dago Bergaran.

Lurak ez birkalifikatzeko

Ezohiko osoko bilkurari dagokionez, atzo (eguna) izan zen, eta, besteak beste, Candyko esparruko lurak ez birkalifikatzeko eskatu zioten Bergarako Udalari, industriarekin zerikusirik ez duen erabilerarik eman ez diezaizoten orubeari. Ondoren, *Candy ez itxi, deslokalizaziorik ez lelopean* Bergarako kale nagusiak zeharkatu zituzten, herritarrek babestuta.



Candyko kamioien bidean pneumatikook, bidea ixten. | ARANTZAZU EZKIBEL

Lanpostuen defentsan

Horrez gainera, atzo, eguena, hasi zituzten negoziazio bilerak langileen ordezkariak zuzendaritzarekin, langileen baldintzekin lotutakoak. Edozein modutan, langileak lanpostuak defendatzeko asmoarekin dihardute batzarrotan. Horretarako, txosten bat

prestatzen dihardute, eta Aldundiarekin harremanetan ibili dira.

Sortu eta Ezker Anitza-IU

Bestalde, Bergarako Ezker Anitza-IUk zein Sortuk Candyren deslokalizazioa salatu dute eta langileei elkartasuna adierazi diete, besteak beste.

Fagor produzitzen, Arrasaten ere bai

Ekonomian albiste baikorretako bat Fagorretik datorkigu. Izan ere, Eskoriatzan hasi eta astebetara Garagartzan hasi ziren atzo (eguna) Fagor berriko produkzioarekin. Egosketako produktuak egiten hasi dira: labeak eta plakak. Eskoriatzan, berriz, eltzak. Oraingoan, garbigailurik ez dute egingo, haien errentagarritasuna ikusi arte. (Xabier Bengoetxeari elkarrizketa, 6. orrian).

Bihar hasiko dute IKT astea Bergaran eta Antzuolan

3D inprimaketaren gaineko informazio eta tailerrarekin abiaraziko dituzte ekimenak

MAIALEN TORRES | DEBAGOIENA

Teknologia berrienak gertutik ikusteko eta Interneti etekina ateratzen ikasteko aukera izango da Bergaran datorren astean. Izan ere, Bergarako Udalak, Berelan, Enpresa Digitala, Euskadi+innova, KZgunea, MAI, eta MUrekin lankidetzan, bigarren IKT astea antolatu du. Gainera, aurten, Antzuolara ere zabalduko dute ekimena eta bertako Udalak eta KZgunek ere hartuko dute parte.

Spinninga 'on line'

Bihar, zapatua, emango diote hasiera egitarauari, 3D inprimaketari buruzko hitzaldi, erakusketa eta tailerrekin, Irala kalean. 11:30etik 13:00etara 3D inprimaketa bidezko ekoizpen prozesua bertatik bertara jarraitu ahal izango da. Elgoibarko Pixel Sistemas enpresak eramango ditu makinak; Bergarako MZ 3Dk, berriz, 3D eskane-

rra eta ekoiztu dituzten pieza batzuk (Gutiren buruhandiaren kopia, besteak beste), eta Migel Altuna institutuak eskala txikiagoan aritzen diren beste 3D inprimagailu batzuk jarriko ditu lanean.

Horrez gain, IKT asteak dirauen bitartean, Agorroso ingo spinning saioak *on line* izango dira eskuragarri.

Bestalde, Interneti ahalik eta etekin handien ateratzeko, enpresei, merkatariei, ostalariei eta herritarrei zuzendutako ikastaroak antolatu dituzte. Horietan parte hartzea doakoa den arren, izen-ematea ezinbestekoa da, lekuak mugatuak direlako: 943-77 91 24 telefonora deituta, mjunamuno@bergara.net helbidera idatzita edo Euskadinova.net zein Bergara.net atarrietan sartuta.

Hitzaldi edo ikastaroen gaineko egutegi osoa ikusteko: <http://ttiki.com/90130>.



Besteak beste, Bergarako eta Antzuolako alkateak aurkezpenean. | M.T.

Komunikazioan eta kirol heziketan trebatzeko tituluak, unibertsitatean

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Urte berriarekin batera Kirol Hezitzailea eta Komunikazioa Erakundeetan aditu tituluak abiaraziko ditu Mondragon Unibertsitateak. Bi kasuetan, astean behin izango dira eskola presentzialak, eguaztenetan, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Aretxabaletako campusean. Kirol Hezitzailea tituluari dagozkion eskolak 17:00etatik 21:00etara izango dira eta Komunikazioa Erakundeetan tituluari dagozkionak, berriz, 15:00etatik 19:00etara. Hala ere, eskola presentzialak bestelako eskaintzarekin osatuko dituzte.

Aditu tituluotarako matrikulazioa urtarrilaren 8ra arte dago zabalik.

Komunikazioa alor guztietan

Komunikazioa Erakundeetan aditu tituluari dagokionez, helburua da "erakunde bateko komunikazio ardurak dituen pertsona

trebatzea komunikazioaren esparru guztietan: kanpo komunikazioan, barne komunikazioan, baliabide teknologikoetan, aspektu psikologikoetan... eta batez ere, oso ikuspuntu praktikotik", esplikatzen du Ainhoa Larrañaga irakasleak. Hark azpimarratu du hirugarren urtez aditu titulu hori euskaraz izatearen aldeko apustua egingo dutela.

Kirolaren baloreak

Kirol Hezitzailea tituluari dagokionez, berriz, helburuak dira "eskola kirola eta gorputz hezkuntza hezitzaileak, berritzaileak eta euskaldunak izan daitezen bultzatzea. Gerturatu nahi ditugu gure ikasleak proiektu berritzaileetara, eman tresnak bi eszenatoki horietan erraztasunez mugi daitezen eta uste dut falta handia dagoela profesionalen arteko sarea sortzeko", adierazi du Izaskun Uribealago koordinatzaileak.

Hamar urte bete ditu aurten Zuberoako bi ikastolei laguntzeko ekimenak

U.M. | DEBAGOIENA

Ahoa gozatuz Zuberoako Eperra eta Souña ikastolei laguntzeko otarreen salmenta abian da hamargarren urtez gure eskualdean.

Ahuzki izeneko otarrea erostea da proposamena; 39 euroren truke, ardi-gazta, ahate-gibela, bixkotx-poltsa eta ezta dituzte otarre horrek. Interesa dutenek

abenduaren 5erako eskatu behar dituzte, eta gero Arrasateko Bedoña auzoan jasoko dituzte, abenduaren 13an. Bi modu daude erosteko: 3035 0059 870 590 09 879 62 zenbakian ordainduta edo nikere@ikaskoli.eu helbidea erabilita. Aurten, gainera, batutako diruaren zati bat Ziburuko ikastolari emango diote.

Euskara Xiberoan segurtatuta

"Otarre salmenta handituz doa. Elkartasun sarea garatzen ari dela marka. Ikastolan haur kopuru handitzearen arabera gastuak areagotzen dira, jakinez diru publikoak ez duela egiten. Ikusiz hizkuntza sailean zer nolako lana egiten ari den Ikastola, Xiberoa edo Iparraldean gure arbasoen hizkera berreskuratze prozesu honetan, laguntzaren eske bagatoz. Zuei esker, euskararen tokia Xiberoan segurtatuta izanen da", diote ikastolatik.

Irabazi-Ganemos: ezkerretik lan egiteko gonbita

Ezker Anitza-IU, Equo eta Alternativa Republicana alderdiek akordioa egin dute Irabazi-Ganemos ekimena eskualdean eratzeko. "Ez da koalizio bat, herritarren partaidetzarako gonbit bat baizik", zehaztu dute.



IMANOL GALLEGU

Xabier Bengoetxea | Galagarza Etxetresnetako presidentea

"Urtebeteen Fagorrek galdutako merkatu kuota berreskuratzea da orain gure helburu nagusia"

- ▶ Eskoriatzako eta Garagartzako lantokietan produkzioa abiatu du Fagor berriak
- ▶ Labeak, plakak, eltzeak eta gas-berogailuak egingo dituzte; garbigailurik ez, oraingoz

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Fagor Etxetresnetako ondasunak eskuratu zituen CNA Taldeko Cata enpresak abiatu du enpresa berria: Galagarza Etxetresnak. Hutsegite baten ondorioz jarri diote Galagartzako, baina Garagartzako moduan erregistratzeko trasteetan dihardute. Xabier Bengoetxea da enpresako presidentea eta abiatze prozesuaz dihardu elkarriketa honetan. Oraingoz, Eskoriatzako eta Arrasateko Garagartzako auzoko lantokietan hasi dira eta Bergarako Geyserrakoa ere eusten diote.

Eskoriatzako lantokia abian dago. Garagartzakoa noiz hasiko da?

Joan den eguna ezkereratik dihardu lanean Eskoriatzakoak, hau da, produzitzen; izan ere, lehenagotik ziharduen probatan. Bestetik, oraingo egunean hasi da Garagartzakoa. Zerbait atzeratu da, azken orduko gorabehera batzuk izan ditugulako hornitzaileekin eta. Bi lantokiak kontuan izanda, 155 bat langile ari gara lehen fase honetan. Horretaz gain, Geyserrak ere lanean jarraitzen du, ez du urte honetan etenik izan, eta han beste 124 langile ari dira.

Zer ekoiztuko duzue?

Eskoriatzan, lehen egiten zen bera: etxetresna txikiak. Berez, halere, eltzeak egiten ziren bertako plantan eta horixe egingo dugu orain ere. Garagartzan, ostera, egosketako produktuak: labeak eta plakak.

San Andresen hasiak zineten lanean.

Oraingoz, bulego zentralak ditugu han, baina aurreikuspen dugu Garagartzan kokatzea horiek. Hango bulegoak txukundu eta egokitu egin behar dira, urtebeteen geldirik egon ostean. Eta, bitartean, San Andresen izango dira, hiruzpalau hilabetez, giza baliabideetako, finantzaketako eta komertzialeko arloak.

Bergarako Geyserra aipatu duzu eta %50 izan da hura Fagorrena. Aurrerantzean?

Fagorren zatia, enpresaren erdia, Galagarza Etxetresna enpresa berriak hartu du eta bestea, orain arte bezala, Vaillantena da. Halere, gure asmoa da martxoan enpresa osoa eskuratzea, Vaillant bere zatia erosita. Gas berogailuak egiten segituko dugu bertan.

Catak lehengo Fagor Etxetresnen ondasunak erosi zituen aurreikuspen batzuk egin ziren eta epe baten barruan 750 langile izatera helduko zinetela adierazi zen uztailan. Epeak beteko dituzue?

Hasi berriak gara eta, aurreikuspenen arabera, lehen urtean 700 langiletik gora izatera heltzea da

asmoa. Hortaz, datorren urteko azaroan kopuru horretara heldu nahiko genuke. Estimazioak dira, baina, azkenean, merkatuak jartzen zaitu dagokizun tokian. Goizegi da aurreikuspenak beteko ditugun jakiteko.

Fagor Etxetresnetan bideragarri edo errentagarriak ziren negozioei helduko diezue?

Bai; Garagartzan, esaterako, egosketako produktuak eta garbigailuak egiten genituen. Oraingoz, egosketarekin hasi gara. Ikusteko dago garbigailuak egingo ditugun edo ez. Errentagarriak badira, egingo ditugu.

Gaur eta hemen garbigailuak egitea errentagarria da?

Zati bat, espero dut, baietz. Goi gamakoak egiten baditugu posible izango dela iruditzen zait, baina aztertzen dihardugu. Une honetan gure lehentasuna da egosketa produktuak eta eltzeak egitea.

Komertzializatuko dituzuen produktu guztiak Debagoienera ekoiztukoak izango dira?

Ez. Beste toki batzuetan egindakoak ere salduko ditugu, lehen egiten genuen moduan. Garbiketa edo hotzeko hainbat produktu kanpotik eginda ekarri eta komertzializatzen genituen. Orain ere hala izango da. Kopuruari dagokionez, lehen baino gehiago izango dira kanpoan egindakoak. Gure katalogoa osoa izango da.

Ze marka salduko dituzue?

Fagor eta Edesa.

Zer gertatuko da Edesaren Basauriko plantarekin?


Ikusteko dago. Han egiten ziren termoak egin egingo ditugu. Ikusteko dago zenbat egingo ditugun eta non egingo ditugun. Hori ez dugu erabaki oraindik. Ez dakigu Basaurin egingo ditugun edo beste nonbaiten.

Bergarako Geyserraren?

Aukerak hauek dira: Basaurin egiten ez baditugu, Eskoriatzan, Garagartzan edo Bergaran egingo ditugu. Ez dago beste aukerarik. Basauriko eraikina likidaziora aterako da aurki eta ez dakigu jabetza zeinena izango den.

Zein da zuen interesa?

Ahalik eta termo gehien egitea eta ahalik eta errentagarritasun handiena lortzea. Berdin digu non produzitzen diren. Gure negozioarendako ahalik eta zifra handienak lortzea da helburua. Egiten dugunak jasagarria izan behar du eta negozioarendako lagungarria. Horrek sortzen ditu lanpostuak. Han edo hemen dela? Garrantzitsua da, baina inportanteagoa da produktu ona, salgarria eta errentagarria egitea.



Xabier Bengoetxea, Arrasateko San Andresko lantokian. | JAGOBA DOMINGO

"Españian %12-15eko merkatu kuota zuen lehen Fagorrek"

"Vaillant erosiko diogu Bergarako Geyserra lantegiaren erdia, martxoan"

"Candyk Bergarako planta itxi arren, gure lehiakide izaten segituko du"

Urtebeteen Fagorrek ez du ezer produzitu. Ze eragin izan du horrek merkatuan?

Produzitu ez dugunez, geunden tokietatik atera egin gara. Ondorioz, Fagorren produktuak ez dira saldu eta zeukan merkatua beste batek hartu du. Hortaz, lehengo merkatu kuota berreskuratzea da helburua. Gure komertzialek merkatua atera behar dute. Hori da gure aurreneko lana. Espainia da gure merkatu handiena eta %12 eta %15 arteko merkatu kuota geneukan lehen Fagorrek. Hori berreskuratzen saiatzea da erronka. Baina ez daukagu epe jakin bat hori lortzeko.

Fagorren eta Edesaren lehiakide nagusiak zeintzuk dira?

Lehengoak. Handiena, Bosh-Siemens. Geneukan erreferentzialtasuna berreskuratu nahi dugu.

Non kokatuta zegoen Fagor, ze esparrutan?

Prezioaren aldetik, erdi eta goi gaman. Merkatuan nabaritasun

eta ospe handia zeukan. Edesa apur bat azpitik zegoen prezioaren aldetik. Aurrerantzean, posizionamendua berdina izango da.

Zerbitzu teknikorik izango duzue?

Bai. Kooperatiba bat sortu dute lehen Fagorrendako lanean zihardutenek. 30 bat lagunek. Sare Teknika dauka izena eta haiekin kontratua sinatu dugu haiek guri zerbitzua eskaintzeko. Bezeroarendako, alde horretatik, gauzak ez dira asko aldatuko.

Zenbat langile zituen Fagor Etxetresna Elektrikoak kooperatibak, itxi aurretik?

2.000 inguru zituen itxi zenean.

Aurrerantzean 700 bat langile izango ditu. Hortik lehiakortasuna?

Zati baten bai. Asmoa da produktu gutxiago ekoiztea hemen eta gehiago komertzializatzea. Errentagarritasun horren bila.

Fagor Etxetresnetako lan-bazkideengana jo duzue lehenbizi?

Lan barik geratu ziren lan-bazkideen eta gainerako langileen lan-poltsak baditugu eta handik bagabiltza kontratatzen. Oso ezeko gutxi jaso ditugu. Lehengo Fagor Etxetresnetan ziharduten langileen hamarretik bederatzik baietza eman dute proiektu berri-rako.

Zenbateraino zen garrantzitsua berrikuntza Fagor Etxetresnetan eta zenbateraino izango da aurrerantzean?

Beti da garrantzitsua sektore honetan. Eta jarraituko du izaten. Inbertsio handia eskatzen du, baina beharrezkoa da; izan ere, inbertitu ezean, lasterketa teknologikoa gal zenezake.

Bezeroak non daukazue?

Fagor Etxetresnen ondasunak eskuratzean, haien hainbat filial ere lortu ditugu: Marokon, Dubain, Txinan, Ameriketako Estatu Batuetan... Haien bidez salduko dugu munduan zehar. Baina zatirik handiena Euskal Herriko eta Espainiako merkatuan salduko dugu.

Eraginik izango du zuenean Bergarako Candy itxi izanak?

Ez dut uste. Azkenean, hemengo produkzioa geldituko den arren, beste toki batzuetan egingo dituztelako garbigailuak eta saltzen berdin-berdin segituko dutelako. Gure lehiakide izaten segituko dute. Kanpotik ekarri eta hemengo merkatuan komertzializatuko dituzte garbigailuak.

Bideoa ikusteko:
eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Alazne Madariaga | David Spine Concept zentroko arduraduna

"Bezeroak oso pozik daude emaitzekin, minaren jatorrian eragiten du-eta"

Egubakoitzean, hilaren 21ean, 'Bizkarra ezagutu, bizkarra zaindu' hitzaldia egingo du Alazne Madariagak Aretxabaletako Ibarra kiroldegian. Hain zuzen ere, egunerokoak eragiten dituen bizkarreko minak nola saihestu daitezkeen azalduko du.

Alazne, hitzaldia egingo duzu, beraz, egubakoitzean Aretxabaletako Ibarra kiroldegian.

Bai, hala da. *Bizkarra ezagutu, bizkarra zaindu* izeneko hitzaldia egingo dugu eta debagoiendar guztiak etortzera animatzen ditugu, benetan mereziko du-eta. Besteak beste, gure bizkarra ezagutu eta gorputzarekin egiten ditugun mugimenduek duten garrantzia aztertuko dugu; hain zuzen ere, hori izango da hitzaldiaren helburua.

Hitz gutxitan esanda, bizkarreko minak zeren ondorio dira?

Bistakoa da gaur egun daukagun bizitza estiloak ordu asko eserita igarotzera eta mugimendu gabe egotera garamatzala. Horrek, gihardura mailan, indar gabeziak ekar ditzake, eta, horren ondorioz, hezur estrukturan lesioak sortzeko probabilitatea handitu egiten da.

David Spine Concept metodoa ezarri duzue Debagoiengan. Zertan datza, zehazki?

Finlandiatik datorren metodo berritzaile bat da David Spine Concept delakoa. Makina batzuen bitartez, indartze eta mugimendu ariketa kontrolatuak egiten dira bizkarrezurrean (lunbarra, dorsala eta zerbikala), eta, horren ondorioz, bizkarreko mina txikitu egiten da. Duela urtebete zabaldu genuen zentroa eta jada 200 pertsona inguru pasatu dira bertatik. Momentu honetan 80 bat lagun ditugu zentroan.



Alazne Madariaga, David Spine Concept metodoan erabiltzen diren makinekin, Ibarra kiroldegiko zentroan.

David Spine Concept delakoa partikularrengan ez ezik enpresetan ere txertatu da dagoeneko, ezta?

Bai, hala da. Esaterako, Mercedes-Benz enpresak, Gasteizen,

bere makina propioak ditu eta bertatik, egunero, ia 70 langile pasatzen dira, lunbar eta abdominal giharrak indartzeko helburuarekin: bide batez, metodo

horri esker, euren errendimendua hobetu egiten da. Aipatzekoa da denbora laburrean abantaila nabarmena egin dutela langileek; oso pozik daude lortutako emaitzekin.

"Debagoieneko enpresetako langileak ere badatoz"

"Momentu honetan 80 lagun ditugu zentroan"

"Hitzaldira datorrenak balorazio testa doan izango du"

Bestetik, Debagoieneko hainbat enpresarekin ere egiten dugu lan, baina gehienak partikularrak dira: haiek Aretxabaletan dugun zentrorra etortzen dira. **Zeintzuk dira zerbitzu hori erabili duten bezeroen inpresioak edo iritziak?**

Orokorrean, oso onak; gure bezeroak oso pozik daude emaitzekin, minaren jatorrian eragiten du-eta. Objektiboki, esan beharra dago indarrari eta mugikortasunari dagokionez hobekuntzak izaten direla. Batzuk kuriositatez edo lagunek hala esanda gerturatzen dira gugana, eta denbora bat pasatu ostean igaritzen dute benetako hobekuntza. Izan ere, jendea askoz ere indartsuago sentitzen da.

Hitzaldira joaten direnek ere izango dute David Spine Concept delakoa testatzeko aukera.

Bai, noski. Datorren egubakoitzean, azaroaren 21ean, egingo dugun hitzaldirako gonbita egiten dizuet guztioi hemendik, erabiltzen dugun metodologia gertutik ezagutzeko aukera aparta izango da-eta. Gainera, bertaratuko diren guztiek balorazio testa doan egiteko bonua eskuratu dute.

Non zaudete?

Aretxabaletako Ibarra kiroldegian gaude eta honako ordutegi honetan etor zaitezkete gugana: asteleheneetik eguenera, 08:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 20:00etara; eta egubakoitzetan, berriz, 08:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 18:30era.

DAVID
SPINE CONCEPT

Tel.: 943 03 98 42 - david@athlon.es
www.davidspineconcept.com

**ANIMA
ZAITEZ!**

**BIZKARRA EZAGUTU,
BIZKARRA ZAINDU.**

Hitzaldia Alazne Madariagaren eskutik.

DAVID SPINE CONCEPT ERABILI DUTEN BEZEROEN TESTIGANTZAK

"Beti ibili izan naiz bizkarreko minekin, azpiko bi diskoak deshidrataturik ditudalako, eta lagun batek hala iradokita DAVID Spine Concept probatzea erabaki nuen. Orain, programaren parte izan eta gero, ez daukat minik, noizean behin molestia txikiren bat soilik. Lehen adibidez, kotxean denboratxo bat eginez gero min izaten nuen, orain aldiz, ez da horrelakorik gertatzen." GORKA SAEZ DE URABAIN (Ormaiztegi)

"Beti ibili izan naiz bizkarreko minekin eta gauza berri bat probatzeko curiositateak ekarri ninduen DAVID Spine Concept-era. Asko igarri dut programan sartu izana, orain lanean pisua mugitzen dudanean ez zait hainbeste kargatzen bizkarra eta ibiltzerako orduan ere igaritzen dut diferentzia." BIKENE ZUBIA (Aretxabaleta)

"David-en hasi naizenetik indartsuago sentitzen dut nire bizkarra, adibidez orain, nahiz eta noizbehinka lunbalgiaren bat izan, ez dira lehen bezain gogorrak eta egun batean deskantsatuz gero pasatzen zait". JOXE ARREGI (Arrasate)



Noiz: Azaroak 21ean, 17:30ean
Non: Ibarra Kiroldegian (Aretxabaletan)
Plaza mugatuak: Izen-ematea: 943 03 98 42 edo amadariaga@athlon.es

ZABALIK

ROSA MONDRAGON
goiena.eus/
komunitatea/



Sanmartinetan txarriboda gutxi

Garai batean baserri guztietan hiltzen zen txerria San Martin egunean eta odolosteak, buzkantzak, urdaia, eta abar prestatzen ziren ondoren, neguko hilabete luze eta latz askotako sostengua lortzeko asmoarekin. Tradizioak agindu bezala, ilbeheran hiltzen zen txerria, eta auzotar eta senitartekoen laguntzarekin, festa giroan egiten ziren txarribodako lanak. Kantu zaharrrak dio "etorri da San Martin eguna eta joan da txerria" edo "San Martin, negua atzetik edo aurretik" eta txerriarekin lotutako esaera zaharrrak, berriz, "txerriak dana du ona" eta "txerria ildako astia eta ezkonduetako urtia onenak dira".


Gaur egun ia galduta dagoen ohitura da. Egia da urteekin aldatzen, modernizatzen doazela usadioak, ohiturak eta tradizioak eta baita sinismenak, baloreak... Horiek guztiak gurekin batera aldatzen dira, gizartearen eboluzioaren lekuko dira, eta belaunaldi berriek beste ohitura berri batzuk sortu eta ezarriko dituzte.

Oraintsu elkarrizketa batean amona batek esaten zuena egia da: "Ohitura zaharrrak ez dira sentitzen, beste modu batean pentsatzen delako". Egia da gaineratzen zue-na ere, kaleko ohitura batzuk gorde direla, eta iraganen baino gehiago ospatzen direla: San Joan bezperako sua, Santa Agedako kantuak... baina etxe barrukoak galdu egin direla: su ondoan ipuinak kontatzea, kankak abes-tea, eta abar.

Bai, nola aldatu diren gauzak! Daramagun bizitza motorizatuan, zeinek daki gaur zer den txarriboda bat? Ilargiaren mugimendua nork jarraitzen du? Kantu zaharrrak, esaera zaharrrak... ba hori, kontu zaharrrak direla!

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | goiena.eus/komunitatea/



GUTUNAK

Eskerrik asko, bihotz-bihotzez!

Nagore Ipiña
(Lore Gazteak dantza taldea)
Arrasate

Gutun honen bidez, Lore Gazteak dantza taldeko partaide garen guztiok eskerrak eman nahi dizkizuegu 50. urteurrena antolatzen eta egunaz gozatzen lagundu diguzuen guztioi.

Nahiz eta dakizuen bezala urteurreneko ekintzak ez diren amaitu, bereziki eskertu nahi dizuegu joan den zapatuko egitaraua aurrera eramateko laguntza eman diguzuen guztioi eta, nola ez, garena izateko bidean zerikusia izan duzuen guztioi.

Laguntzaile guztiak aipatzeko GOIENA paper osoa beharko genuke; beraz, izen propiorik gabe herria aipatzeko dugu gaurko honetan.

Izan ere, herririk gabe ezinezkoa da 50 urte betetzea eta egunaz disfrutatzea!

Kultur talde batean egon den edornork oso ondo daki ez

dela erraza 50 urte betetzea, eta, are gutxiago, zapatuan erakutsitako osasunaz jarraitzea!

Beraz, berriz ere mila esker!

Espero dugu abendurako antolatutako ekintzek ere zapatuko arrakasta izatea eta zuok arrakasta horren parte izatea.

Iruña-Veleia, sei urteko bidegabekeria

Juan Martin Elexpuru
Bergara

Datorren astelehenean, azaroaren 17an, 19:00etan, Gasteizko Villasuso jauregian, Idoia Filloy zuzendari ohiak eta Koenraad Van den Driessche geokimikariak hitzaldia emango dute auziaren inguruan.

Espainiako Kultura Ministerioaren laborategian egin diren analitikez jardungo dute. Begi-bistako iruzurra izan dira analitikoak, tranpaz eta gezurrez josiak.

Helduko ahal da noizbait ustelkeria mota honetaz eta gai honen inguruan gertatu diren beste batzuek hitz egiteko eguna.

Eta Eliseo Gilen egoeraz ere berba egingo da.

Ederki eskertu dio gizarteak egin zuen aurkikuntza handia: lapidazio eta kondena mediatikoa, desohorea, langabezia, ahaztura...

Eta horrela sei urte, eta auzitegian gaia geldo; oraindik ez dago inolako akusaziorik bere kontra epaileen eta fiskalen aldetik.

Benetako tortura. Historiak Altamira eta Iruña-Veleia, Marcelino Sautuola eta Eliseo Gil parekatuko dituelakoan nago.

Ahaztura esan dut. Azken bi edo hiru urtean benetako *damnatio memoriae* ari da gertatzen auzi honen inguruan.

Ez da existitzen. Ez erreportajerik, ez zutaberik, ez tertuliarik, ez elkarrizketarik...

Noizean behin frankotiratzaile gizajoren batek lortzen du(gu) idatziren

bat han edo hemen sartzea, tiraka eta bultzaka ibilita, sarri askotan.

Egoeraz gehixeago jakin nahi izatera, bilatu Interneten *Eliseo Gil kondenatu nahi dute* artikulua eta begiratu gaiak diharduten atarrietan.

Eskerrik asko denoi!

Aitor Rementeria
(Antxintxika Debagoiena triatloi taldea)
Debagoiena

Joan den azaroaren 2an, Antxintxika Debagoiena triatloi taldeak antolatuta eta Debagoieneko hainbat kirol eta kultur talderen laguntzarekin, X. Antxintxika lasterketaren urteurrena ospatu genuen. Egun osoko kirol jaia.

Urte berezia izan da Antxintxika taldearentzat, ilusio handiz antolatzen ibili garen urteurrena.

Lanean martxoan hasiak ginen eta azaroan bukatu genituen antolakuntza lanak.

Eskerrak eman nahi dizkiegu antolakuntza honetan ibili diren pertsona guztiei, bai goizeko lasterketetan eta baita arratsaldeko jaialdian ibili direnei.

Hamar urte behar izan ditugu 558 kirolari Bergarara ekartzeko, gure herria erakusteko eta, batez ere, herrian antxintxika lasterketa berezi bat edukitzeko.

Denontzat eta denontzako, edade guztientzako, arazoak dauzkatenentzat, umeentzat, denontzat ateak zabalik, eta orokorrean kirol festa bat.

Antxintxikaren eta Dordokaren izenean eskerrak eman nahi dizkizuegu.

Zuei esker, Dordoka kirol egokituko taldeak erraztasun gehixeago edukiko dituelako beraien ume eta gaztetxoek kirola egin dezaten eta, bide batez, beraien bizitza errazagoa izan dadin.

Eskerrik asko denoi!

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Ezingo dira kapituluka bidali. Gutun edo irizti-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun, gutun bakararekin baizik.
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otlalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otlalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantxabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailietako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)


Maketazioa Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Zierza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berebizar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otlalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otlalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09
publi@goiena.com

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otlalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritza diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

HERRIAK



Ezkerrean, Antzuolako armari zaharra Belateko kanoiekin eta eskuinean, aurrerantzean erabiliko dutena, Gipuzkoa irudikatzen duten haginekin. | PATXI OLABARRIA

DATUA

3

HAGIN

Horiek dira Antzuolako armari berriaren agertuko direnak. Eskuinean, goiko eremuan ipiniko dituzte Belateko kanoien ordeza.

ESANAK

"Kanoien eremuari tiraka, gure armariaren historia osoa eta bitxikeriak ezagutzeko balio izan digu"

PATXI OLABARRIA | TXOSTEN EGILEA

Kanoien ordeza arbolak

- ▶ Antzuolako armaria aldatzeko proposamena aho batez onartu dute
- ▶ Udaletxeko fatxadan dagoen harrizkoa ez dute berriztatuko

MIREIA BIKUÑA | ANTZUOLA

2009ko urtarrilaren 8an Nabarralde elkartearen eskaera bat heldu zen Antzuolako Udalera: udal armariaren agertzen ziren Belateko hamabi kanoiak kentzeko eskaera: "Kanoi horiek gure historia belzten duen arma-gertaera kontatzen dutelako". Gipuzkoako armariaren aldatzeko egiteko prozesuan Eusko Ikaskuntzaren babesa ezinbestekoa da, eta Antzuolako aldatzearen aukeraz galdegin zuen Patxi Olabarria orduko kultura zinegotziak 2009ko uztailearen 2an. Eusko Ikaskuntza kanoiak kentzearen alde agertu zen. Eta orduan hasi zen bost urte iraun duen prozesua.

Bide hori bukatutzat eman zuten azaroko osoko bilkuran. Aho batez onartu zen Antzuolako armaria aldatzeko proposamena. Bilduk eta EAJK alde bozkatu zuten: Belateko hamabi kanoiak kendu, eta, haien lekuan, Gipuzkoa ordezkatzeko zuhaitzak ipiniko dira, hiru hagin. Hori horrela, goiko eskuineko irudian ikusten den moduan, lau gune izango ditu armari berriak.

Goian, ezkerrean, kateatutako erregea dago zoru urdinaren gainean. Errege hori gipuzkoarrek

hartu zuten preso, hark preso zuen Nafarroako erregea askatu zutenean; eta eskuinean, Gipuzkoa ordezkatzeko hiru hagin berde ipiniko dituzte kolore gorriaren gainean. Behoko bi eremuak zerikusia dute Mairuaren Alardearekin. Nafarroako erregeak antzuolaren laguntza eskertzeko emandako eremuak dira. Alardearen bandera, herriko bandera ofiziala da 1997ko abenduaren 12a ezkerreko. Behoko eskuineko eremua berde kolorearekin eta ezkerrekoa urdinarekin.

Harrizko armaria

Udaletxeko fatxadan dagoen harrizko armariak, originalak, bost gune ditu eta horretan Gipuzkoako haginek ere ikus daitezke, erdiko eremuan.

"Harrizko armariaren dagoen bosgarren eremua betidanik hori egon da, gu konturatu gabe eta orain hori azpimarratu nahi da armari ofizialera eramanez", esan du azken txostena egin duen Patxi Olabarria.

Kanoien ordeza, zer?

Aldatu bai, baina nola? Kanoiak kendu eta haien ordeza zer ipini? Zer-nolako garrantzia zuten Bela-

teko kanoiek? Gainera, eremuak bere horretan utzi behar dira?

Galdera horiek guztiak erantzuteko asmoz eta herritarrekin informazioa partekatuzko, gizarteratze prozesu zabala abiarazi zuten. Hitzaldi sorta egin zuten 2010eko martxoan, eta, besteak beste, hitzaldiak egin zituzten Floren Aoitze, Rosa Aierbek eta Angel Rekaldek.

Hitzaldi haietan esandakoak aintzat hartuta, Antzuolako armariaren kanoiak kentzeko erabakia berretsi zuten. 2011ko otsailaren

9ko osoko bilkuran, Belateko kanoiak kentzearen inguruko mozioa onartu eta haien ordeza zer ipini erabakitzeko prozesua hasia erabaki zuten.

Bi aukera zeuden: kanoien eremua hutsik utzi edo harrizko armariaren erdian agertzen den bosgarren eremua kanoien lekuan ipini. "Gune hori hutsik uzteak armariaren prozesua oraindik bukatu gabe dagoela irudikatuko luke. Horregatik, proposena bosgarren eremua gora igotzea da. Hala, Antzuolako armariak

Gipuzkoako egungo armariarekin zerikusia izango luke, sorreran bezala", dio prozesua hasieratik jarraitu duen Patxi Olabarria.

Armari berriaren beste bi aldeketa ere egongo dira: kanpoko dekorazioak eta koroa kendu egingo dituzte, eta lau eremu bakarrik izango ditu.

Bitxikeria ugari ezagutzera eman ditu armariaren prozesu luzeak. "Kanoien eremuaren hariari tiraka hasi ginen eta gure armari osoaren historia ezagutzeko balio izan digu. Armariaren eta Antzuolaren historia ezagutzeko oso baliagarria izan da", dio Olabarria.

Agiri ofizialetan

Antzuolak izango duen armari berria izango da aurrerantzean Udalak izango duen irudi korporatiboa. Azaroko osoko bilkuran adostu zen armari berria agertuko dela Udalaren agiri ofizial guztietan.

Armariaren imitazioz hasi ziren mairua erabiltzen alardean

1876an Antzuolak bere armariaren kopia eta azalpena bidali zituen Madriler. Orduan konturatu ziren armariaren errege kateatu bat zegoela eta pentsatu edo asmatu zuten errege hura mairua izango zela. Armariaren imitazioz, Antzuolako alardean mairu kateatua antzetzten hasi ziren. 1881. urtean egin zen lehen aldiz Mairuaren Alardea. Aurreko mendeetan egin ziren alardeetan ez zegoen mairuaren figurarik eta ez zen Valdejunquerako bataila aipatzen. Era berean, bataila hartako dokumentazioan ez da antzuolaren arrastorik ikusten. Hori horrela, 2007. urtean Eusko Ikaskuntzak Mairuaren Alardeari buruz egindako ikerketan frogatzen da mitotik gehiago duela errealitate baino.



2013ko Mairuaren Alardea. | IMANOL SORIANO



Hondakinen Mahaia osatzen duten alderdien eta eragileen ordezkariak martitzeneko agerraldian. | AMAIA TXINTXURRETA

Urte berriarekin organikoa bereizita bota beharko da

Urtea amaitu baino lehen auzoz auzo emango da formazioa eta informazioa

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Hondakinen Mahaia –Bildu, Aralar, EAJ, Ezker Anitza-IU, Arrasate Garbi, Zero Zabor eta Ekologistak Martxan– asteen jakinara iritsi duenez, urtariletik aurrera "derrigorrezkoa" izango da hondakin organikoak bereizita ateratzea: "Edukiontzia guztiak berrituko ditugu, orain arte egon ez den organikoaren edukiontzia ere aurrekoei gehituta", adierazi du Inazio Azkarragaurizar alkatea.

Urte berriarekin, bost frakzio batuko dira: organikoa, ontzi arinak, papera-kartoa, errefusa eta beira. Organikoarendako edukiontzia jarri ostean, errefusarendako edukiontzia grisa jarriko da; horiek jarri ostean kenduko da edukiontzia berdea –beirarena ez, bestea–. Organikoaren eta errefusaren edukiontzien "sarre- kontrola" izango dute: "Horiek ondo erabiltzen den ikusteko da, eta ondoren, formazio eta aholkuak ematea da helburua".

Bederatzi hilabete %70erako

Hondakinen Mahaia sinatutako akordioak dio %70eko birziklatze-tasara heldu behar dela bederatzi hilabetean: "Helburu horretara iritsi ezean, atez ateko sistemara jo beharko dugu", adierazi du EAJko Juan Karlos Garitanok. Garitanoren arabera, "oraintxe" da erronka horri eusteko garaia: "Denon esku dago gauzak ondo eginez helburu horiek lortzea. Gu horretarako bitarteko guztiak ari gara jartzen: bali-

bide teknikoak, informazioa, kontzientziazioa eta formazioa".

Izan ere, auzoz auzoko kampaia informatiboa abiatu dute asteen Musakolan, abenduaren 19ra arte iraungo duena: "Astero auzo batean informazio bulego ibiltaria jarriko dugu hondakinen sailkapenaren edo gaikako edukiontzien erabileraren inguruko zalantzak argitzeko. Horrez gain, bulego horretan, organikoa ondo berezitzeko zenbait baliabide banatuko dira etxebizitza bakoitzarako", azaldu du Arrasate Garbi plataformako Mertxe Trojaolak. Amaitzeko, Hondakinen Mahaia honako mezu hau zabaldu gura izan du: "Ez dugu inolako dudarik arrasatearrok ondo egingo dugula, eta gutxi barru zaila izango zaigula ulertzea zela ibili garen, utzikeriagatik edo erosotasunagatik, hondakinak neurri barik sortzen eta edozein modutan uzten, hori eskubide bat zelakoan".



Herriko iragana astintzera, hirugarrenez

J.B. | ARRASATE

Arrasate Zientzia Elkarteak hirugarren urtez antolatu du Arrasateko iragana astintzen hitzaldi zikloa: "Kide gutxi gara eta xumea

da gure lana. Eta lehen zikloa antolatu genuenean eta saio guztietan aretoa lepo beteta ikusi, beldurtu ere egin ginen. Izugarria izan da orain arteko hitzaldiek

izan duten harrera", adierazi du AZEko kide Xabier Bengoak. Hizlariak lotzea ez da erraza izaten: "Badira izena ematen dutenak, baina, gero, bidaia edo kongresuren bat dutelako ezin dutenak etorri. Iaz bik kale egin zuten, eta aurten ere beste bik", argitu du Bengoak. Gainera, hizlariak "goi mailakoak" direla ziurtatu du Jose Angel Barrutiabengoak.

Lau saio izango dira, eta guztiak Kulturateko areto nagusian (19:00). Lehena hilaren 18an izango da, euskaraz eta gaztelerez: Julian Sagasta organo-jole famatuaren gainean egingo du berba Jose Antonio Azpiazu antropologoak. Ondoren, Xabier Ugarte musikologoak Sagastaren pieza batzuk joko ditu gitarrarekin.



Barrutiabengoa, Bengoa eta Garai eguztaren aurkezpenaren. | JOKIN BEREZIARTUA

Iturbide egoitzako 30. urteurreneko ekitaldiak gaur amaituko dira, opariz osatutako bingo bereziarekin

Iturbide egoitzak 30 urte bete dituela ospatzeko asteen ia egunero izan dute ekintzaren bat. Eguaztenekoa izan zen egun handia: egoiliarrek merienda berezia eta dantzaldia izan zuten; ondoren omenaldia egin zioten egoitzan urte gehien daramatzan Maria Luisa Escuderori eta egoiliar nagusienari, 101 urte dituen Felisa Asperi. Amaia Larrañaga zinegotziak eta Olatz Etxabe egoitzako koordinatzaileak lore sorta bana eman zieten. Gaur amaituko dira urteurreneko ekintzak, bingo bereziarekin (17:00).

Energiaren erabilera eraginkorra sustatzeko saioak antolatu ditugu azaroaren 18tik abenduaren 3ra

Arizmendi Ikastolako Lanbide Heziketak antolatuta eta Lanbidearen bidez, azaroaren 18tik abenduaren 3ra, 40 orduko doako ikastaroa emango dugu Ferixalekuan. Eraikinaren eraginkortasun energetikoaren gaitasun-ziurtagiriak lortzeko baliagarria da ikastaroa. Informazio gehiagorako honako bide hauek ireki ditugu: eraikuntza@arizmendi.ikastola.net helbide elektronikora idatzi edo telefono zenbaki hauetara: **KOMUNITATEA GOIENA** ARIZMENDI IKASTOLA | ARRASATE deitu: 943-79 00 27 edo 943-77 20 25.

Askotariko ekintzak antolatu ditugu Euskararen Egunerako

KOMUNITATEA GOIENA
AED | ARRASATE

Arrasateko euskalgintzatik askotariko ekintzak antolatu ditugu Euskararen Eguneraren bueltan, *Euskarak 365 egun* lelopean. Hilaren 19an, Arrasateko euskararen erabileraren gaineko azterketa aurkeztuko du Soziolinguistika Klusterreko Belen Urangak Kulturaten (19:00). Hilaren 26an, Andoni Egañak *Euskara: zelan goaz?* izeneko hitzaldia egingo du Kulturaten (19:00). Abenduaren 3an, Euskararen Eguna, *Zu ta Gar* ekitaldi nagusia egingo da, txoko-

late-janarekin batera. Herriko Plazan izango da, 18:00etan; ondoren, txikiteo euskaltzalea egingo da. Egitaraua amaitzeko, AEDk ekoiztutako *Erdaldun berrien kluba* antzezlan eskainiko dugu abenduaren 4an Kulturaten (19:00).

Gainera, erronka txiki bat bota gura diegu arrasatearrei: 365 *selfie* edo autoargazki ateratzera desafiatu gura ditugu. Argazkiak igotzeko epea azaroaren 24tik abenduaren 8ra artekoa izango da, eta, horretarako, #365egunArrasaten traola erabiltzera gonbidatu gura ditugu arrasatearrak.

Hamabost postu egongo dira bihar hileroko baserritarren azokan

J.B. | ARRASATE

Hileko hirugarren zapatua da bihar, eta, beraz, baserritarren azoka egingo da Seber Altube plazan, 09:00etatik 14:00etara. Urteko azkena izango da, abenduan Santamasetakoa egingo da-eta. Biharko azokan hamabost postu egongo dira, Arrasatekoak, bailarakoak eta Euskal Herri osokoak.

berean, hileroko egiten den saskiaren zozketak ez du hutsik egingo. Azokan erosketaren bat egiten duenak txartel bat jasoko du eta txartel irabazleak bertako baserritar batek prestatutako otarra eramango du etxera. Pintxoak dastatzeko aukera ere egongo da.

Barietate handiko sasoi

Azaroko azokan ez da ekintza osagarri egongo, baina, Udaleko Enplegu eta Garapen Sailako teknikari Marga Garmendiaren arabera, udazkena izaten da urteko operario barietateari dagokionez.

Bestalde, Garmendiak nabarmendu du sasoiaren sasoiko produktuak jatearen garrantzia: "Ekoizpen jasagarriago bat ahalbideratzeaz aparte, gure gorputzaren beharrei zuzenean lotuta dago produktu batzuen edo besteen kontsumoa". Era

Lore

LURRINDEGIA

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

Juan Antonio Barriocanal | Goikobalu abesbatzako presidentea

"Garai bateko zuzendariak igoko dira bihar taularen gainera"

Pianista, perkusio orkestra eta bakarlari profesionalekin ekarriko du Goikobalu abesbatzak Carl Orff-en 'Carmina Burana' obra bihar Amaia

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Iritsi da eguna etxean egindako lana jendaurrean erakusteko. Goikobalu abesbatzak bihar, zapatua, *Carmina Burana* (Carl Orff) obra abestuko du Amaia antzokian, 20:00etan.

Gustura taldekideek emandako erantzunarekin?

Bai, oso gustura, egia esan. Ez genuen uste garai bateko Goikobaluko kide zirenen aldetik halako harrera izango genuenik; jende asko etorri zaigu. Goikobaluko kideez gainera, garai bateko Tolosako abesbatzatik eta Donostiako Orfeoitik ere etorri zaizkigu 25. urteurrena gurekin ospatu gura zutelako. Bihar, taularen gainean, bada, 105 lagun inguru izango gara kantuan; horien artean, harrobiko haur batzuk ere izango ditugu pasarte batzuk abesten. Horiez gainera, bi pianista, bakarlariak eta Arrasate Musikaleko perkusio orkestra ere izango dira.

Errepertorioa, baina, ez da *Carmina Burana* obrara mugatuko.

Horrela da, bai; *Carmina Burana*-ren aurretik beste bi kantu abestuko ditugu: *Haurtxoa sehaskan* (Gabriel Olaizola) eta *Cantique de Jean Racine* (Foret). Iñaki Maidaganek zuzenduko du obra nagusia, baina beste bietan, garai bateko Goikobaluko zuzendariak gidatuko gaituzte: Luis Ignacio Ruiz de Alegria *Jimi*-k lehenengoan eta Eugenio Etxebestek bigarrenean.

"Unibertsitatera datozen ikasleak Goikobalura erakarri gura genituzke"

Musikarien eguna ospatzeko kontzertuak eskainiko ditu Arrasate Musikaleko bandak azaroaren 16an

Santa Zezilia musikarien egunaren bueltan, Arrasate Musikaleko bandak Santa Zezilia kontzertua eskainiko du etzi, domeka, 12:30ean, San Franzisko elizan. Santa Zezilia eguna 22an ospatzen da, baina bandak aste bat aurreratu du bere emanaldia, egun horretan beste ekitaldi batzuk daudela herrian. Rossiniren *L' Italiana en Argel*, Sorozabalaren *La taberna del puerto* eta beste entzuteko aukera egongo da. Bestalde azaroaren 21ean, ostirala, 18:30ean, Kulturaten, Arrasate Musikaleko ikasleak emanaldia eskainiko dute, hori ere Santa Zeziliren oroimenez.

Sugeak eta sugedorriak salbatzeko asmoz, argazki erakusketa izango da Arrasateko Harresi aretoan

Sugeak eta sugedorriak: gizakiak dira haien beldur ala haiek dira gizakiaren beldur? Aranzadi Zientzia Elkarteak dioenez, ezagutzarik ezak eta fundamentu gabeko kondairek dakarte narrasti horiekiko gehiegizko beldur hori. Bada, animalia horien ospe txarra ezeztatzeke, erakusketa eta hitzaldia antolatu dute Aranzadikoek Arrasateko Harresi aretoan. Erakusketa zapatuta arte egongo da, 11:00etatik 20:00etara, eta hitzaldia gaur izango da, egubakoitza, 19:00etan.



Juan Antonio Barriocanal, martitzeneko entseguan. | IMANOL GALLEGU

25. urteurrenako ospakizunen barruan dago biharkoa. Ze balorazio egiten duzue orain artekoak?

Balorazioa ona da, betiere hobeto egin zitekeela pentsatuaz; baina ditugun bitartekoak direla eta, uste dut ekitaldi duinak egin ditugula. Sekulako gogoaz eta ilusioaz jardun dugu guztia prestatzen, lan handia izan bada ere. **Donejakue bidea kantuan egitea duzue bereziki bihotzean gordeta; zurea izan zen ideia.**

Jendea entsegetara joan dadin kontzertuak antolatu behar dira; nolabait esanda, entseguek arrazoi bat izan dezaten. Krisi ekonomikoaren eraginez kanpoan abestea zailagoa denez, Donejakue bidean etapaka egindako kontzertuek abesbatzako motibazioa pizteko balio izan dute. **Bukatu dira, beraz, ospakizunak?**

Nagusienak bai, auzoetako kon-

tzertuekin jarraituko dugu baina; San Andresen izango gara azaroaren 29an. Horrez gainera, abesbatzako kideek bazkaria egingo dugu abenduaren 5ean.

IV. AKE padel txapelketako kanporaketak

Kanporaketa bidez hiru aste bukaeratan jokatuko da padel txapelketa Musakolako kiroldegian: azaroaren 22-23ko asteburuan, azaroaren 29-30ekoan eta abenduaren 13-14koan. Aste bukaera bakoitzean partidu bat edo bi jokatuko dituzte partaideek, finalera heldu arte. Izen-ematea 10 euro da bikoteko eta ake.padel@gmail.com-era idatzita edo 649 69 98 52 telefonora deituta egin daiteke, 21010097440012461117 zenbakian dirua sartuta (Kutxa).

V. Santamas tenis txapelketarako izen-ematea zabalik

AKE tenis elkarteak V. Santamas tenis txapelketa antolatu du Arrasateko kiroldegian. Txapelketa kanporaketa formatuan jokatuko da 32ko azken koadro bat jokatu. Izen-emate gehiago egonez gero, berriz, aurrefase bat jokatu da. Izena emateko azken eguna azaroaren 16a da. Parte hartu nahi duenak izena eta abizena, helbide elektronikoa eta telefono zenbakia bidali beharko ditu ake.tenis@gmail.com helbidera.

ZALDIBAR

EMAITZAK

Aldatz - Drink Team	7-1
Sonografos - Abokajarro	7-2
Lasagabaster - Iluntz	4-3
Dribling 2.0 - Haizea's weah	2-2
Betrayer - Ostantz	3-3
Arrasate - Jibaras	5-8
Alytis FK 2.0 - Kantzerlauten	4-3

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1. Alytis FK 2.0.	6	2
2. Aldatz	6	2
3. Sonografos	6	2
4. Dribling 2.0.	4	2
5. Kantzerlauten	3	2
6. Lasagabaster	3	2
7. Abokajarro	3	2
8. Jibaras F.C.	3	2
9. Drink Team	3	2
10. Betrayer	1	2
11. Haizea's weah	1	2
12. Ostantz	1	2
13. Iluntz	0	2
14. Arrasate Taberna	0	2

PARTIDUAK

AZAROK 15, ZAPATUA	
10:00	Ostantz - Iluntz / Haizea's weah
11:00	Jibaras - Haizea's weah / Iluntz
12:00	Alytis - Drink Team / Jibaras
13:00	Lasagabaster - Abokajarro / Alytis
AZAROK 16, DOMEKA	
11:00	Kantzerlauten - Betrayer / Aldatz
12:00	Aldatz - Arrasate / Kantzerlauten
13:00	Dribling - Sonografos / Arrasate

3. jardunaldia Zaldibarko futbito txapelketan

Azaroak 22-23rako talde guztiek jokalarien zerrenda eta inskripzioa beteta eduki beharko dute.

www.citroen.es





CITROËN C1

BERRIA

HIRIAN IBILTZEKO JAIOA



CITROËNek nahiago du TOTAL

Kontsumo mistoa (l/100 km) / CO2 emisioa (g/km): Citroen C1: 4,1-4,3 / 95-99

Baikorra, arina eta konektatua, Citroen C1 berriak hiriari erronka bota dio ausardia eta nortasun handiarekin. Ultrakonpaktuak; 3 edo 5 ate; Mirror Screen eta atzeko kamera, oso teknologia erabilgarriak. Hirirako egindako auto dotore honek ezin hobeto erantzuten die hiriko bizimoduaren eskakizunei. Citroen C1 berria, hirian ibiltzeko jaioa.

3,46 metro / 5 ate / Mirror Screen / Ateko kamera / Kapota elektrikoa

CRÉATIVE TECHNOLOGIE



Etor zaitez ikustera:
Debagoieneko CITROËN Kontzesionario Ofiziala:
TALLERES CHAPIME, San Andres 5, 20500 ARRASATE • Tel.: 943 79 45 22

EAJk dio EH Bilduk "denbora galdu eta agintaldia zaborretara" bota duela

Jeltzaleek ia 80 ekimen erregistratu dituzte agintaldi honetan, eta, prentsaurrekoan aipatu zuten, Gobernuak "ia guztiak baztertu ditu"

IMANOL GALLEGU | BERGARA

Agintaldia bukatzeko sei hilabete falta dira, eta EAJ alderdiko hiru zinegotzik –beste biak ezin izan ziren bertan egon– balorazioa egin zuten astelehenean. Jeltzaleen ustez, azken urte hauetan udal ondarea galtzeaz gain, EH bildu zabor sistemarekin eta azken orduko kredituekin "zulo garrantzitsua" egiten ari da.

Hain zuzen, euren ustez, proiektu sendo bat eraikitzeko aukera galdu du Udal Gobernu taldeak. EAJk dioenez, EH Bilduk enpresekiko zerga politika gogortu du, eta sektoreak bizi duen egoera larritu.

Lidergo falta

Salatu zuten alkateak ez duela herriko ehun industrialaren egoera larria kudeatzeko inizatibarik izan: "Alkate batek ezin du itxaroten egon beste erakundeek, enpresariak edo lanbide hezkuntzako eskolek zer egin (...) Ezker abertzalea, Bildu, ez da gai izan sustapen ekonomikorako politiken lidergoa eramateko", esan zuen Aintzane Oiarbide bozeramaile jeltzaleak prentsaurrekoan.

EAJko zinegotzien ustez, EH Bilduren lidergo eta proiektu propio falta hondakinen bilketan



Prentsaurrekoa eskaini zuten zinegotzi jeltzaleak. | IMANOL GALLEGU

ere igartzen da. "Ezker abertzaleak hartuko erabaki politiko bat izan zen eta erabakia prentsaurreko baten bitartez jakin genuen", diote. Jeltzaleen ustez, hondakinen bilketa kostatzen ahala kostatzen "inposatu" behar zen erabaki politiko hutsa izan da.

Oiarbidek aipatu zuenez, Bergara inoiz baino zikinago dago, eta kale garbitzaileek lehen baino hiru aldiz lan gehiago egin behar izaten dute. Horrez gainera, EH Bilduk Udaltzaingoa "zaborren polizia" bihurtu duela salatu zuten.

Horren ostean, atez ateko hondakin bilketa sistemak urtero 600.000 euroko "zuloa" sortzen duela azaldu zuten zinegotziek.

Udalaren defizita

EAJko zinegotziek gogor kritikatu zuten Udalaren politika fiskala. IBIaren errekarua "dirua batzeko" sistematzat jo zuten. Eta atez atekoak beste proiektu batzuk hipotekatzen dituela uste dute. "Diru hori beste inbertsio batzuetan edo enplegua sortzeko inbertitzea ez litzateke egokiagoa izango?", galdetu zuten.

Azken urte hauetako Gobernuak norabide jakin gabe lan egiten duela azpimarratu zuten, azken orduko kredituak eskatuz eta ondarea arduragabekiaz kudeatuz, horrek dakarren gain-kostu ekonomikoarekin.

Ondare galera

EAJko zinegotzien ustez, agintaldi honetan, Udal Gobernu taldeak udal ondare garrantzitsuak saldu ditu. "Gobernuak Larra mendiko pabiloiak saldu zituen, eta enpresa berriak erakartzeko aukera galdu". Atez atekoa ordaintzeko Ibergaraiko garajeak saldu izana ere egotzi zieten.

Permuta ere kritikatu zuten; jeltzaleek diote erabaki horren bidez herriak Arrizuriaga jauregia galduko duela. Horrez gain, Aldundiaren hitzarmenak Udalarari 4 milioiko kostua ekarriko diola gaineratu zuten. Kultura erabilera askotariko espazioa ere ezbaian jarri zuten. "Espazioaren alde gauden arren, bere finantzazioa ez dago batere argi", esan zuten.

Bukatzeko, jeltzaleek prentsaurrekoan azpimarratu zuten agintaldi honetan zehar eurek hainbat gairen inguruan ia 80 ekimen proposatu dituzten arren, Udal Gobernuak ia guztiak baztertu dituela.

Pol-Poleko mendiko jardunaldiak erritmo onean

I.G. | BERGARA

Domekan egun osoko irteera egingo dute. Mendi ibilaldi horretan, Buradon eta Ribas de Tereso arteko parajeak ezagutuko dituzte.

Datorren asteko hitzorduak

Eguaztenean mendiko astea agurtu aurretik, hiru proiektio eskainiko dituzte, 19:30ean, Irizarren. Astelehenean, Benito Canterok eta Javier Camachok Dolomiten eta Manasluri buruz jardungo dute. Eguaztenean, Alex Txikonon txanda izango da; kirolari ezagunak *La gran torre del Trango* eta *Torre sin nombre* proiektioak erakutsi, eta haiei buruz mintzatuko da.

Jardunen gogoeta prozesuaren bigarren saioa bihar 10:00etan

Zu bezalakoak behar direlako prozesuaren bigarren saioa egingo dute bihar, 10:00etan, Irizar jauregian. Bertan, Jardunek datozen bost-hamar urteei begira izan beharko litzuzkeen helburu eta funtzioak hausnartu, eztabaidatu eta adostuko dira.

Gaur ospatuko dute Gaztaina Erre Eguna San Martin eskolan

15:45ean eskolako ikasle eta irakasleak Haur Hezkuntzako patioan elkartuko dira gaztainak jateko. Hasierako festan eskolako haur eta irakasleak egongo diren arren, senitarkeoak ere gonbidatuta daude. Haiek, baina, 16:30etik aurrera.

Gaztetxoekin batera adostutako Gabonak

Aurten ere, umeei Gabonetako apaingarriak egiteko aukera izango dute

I.G. | BERGARA

Gabonak ate joka daude, eta, urtero moduan, herriko kale eta plazak apaingarriz beteko dira. Horretarako, azaroaren 14an, 21ean eta 28an, adin guztietako gaztetxoekin Gabonetako apaingarriak egingo dituzte. Haurren irudimen eta lanarekin batera,

apaingarriak egiteko, herriko ikastetxeetan batutako material berrirabilgarria erabiliko dute.

Jardun euskara elkartearen begiraleekin batera, 17:00etatik 19:00etara, Gabonetako apaingarriak egingo dituzte Seminarioko jolastokiko karpan. Eskuz egindako apaingarri horiek, kaleak

apaingatzeko ez ezik, etxeak girotzeko ere balioko dute.

Gabonetako oporretan zer?

Gaur, egubakoitza, 17:30ean osoko bilkuren aretoan umeen batzarra egingo dute. Batzar horretan, umeei galdetuko diete Gabonetako oporretan Bergaran zer egotea nahi

duten. Udalak orain arte hainbat foro izan ditu herritarren iritzia ezagutzeko, baina umeei zuzenean ez diete galdetu eurek zer nahi duten. Aurrerantzean, umeei zerikusia duten gaietarako zuzenean umeei galdetuko diete, horrela umeen artean parte hartzeko ohitura eta kultura zabaltzeko.

Batzar hori Lehen Hezkuntzako 3, 4, 5 eta 6. mailako ikasleei zuzenduta dago. Gaurkoa lehen batzarra izango den arren, ez da azkena izango.

OHARRAK

1980KO KINTOEN BAZKARIA

Azaroaren 29an, 13:00etan, Irrintzin hasita poteoa egingo dute eta 14:30ean Xirimirin bazkaria. Joan nahi dutenek Santander bankuko 3030858520 kontuan 35 euro sartu behar dituzte hilaren 26a baino lehen. Dirua sartzean, izena jartzeaz gain, okela edo arraina aukeratu behar da.

1957AN JAIOTAKOEN ERRIOXARA IRTEERA

Antolatzaileek zehaztu dute, azaroaren 29an Errioxara egingo duten irteerarako autobusa 08:45ean irtengo da Santa Marina parrokiaren pareko geltokitik.

AITONAK
TABERNA

- Bazkariak
- Afariak
- Ospakizunak
- Kintadak

ETOR ZAITEZ!
08:00etatik 21:00etara zabalik!

Tel.: 628 443486
Boni laskurain, 9 behea
BERGARA

BEHEKO
TABERNA

Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

Folas

Udazken/Negu denboraldi berria!
Ezagut ezazu!

ese O ese
LOVE YOURSELF
A W COLLECTION 14-16

Barrenkale 27 - BERGARA
Tel.: 943 76 46 48

'Gaztainatan' bai, baita mahaiaren bueltan ere

KOMUNITATEA GOIENA | JON OLIVARES
OSINTXUKO HERRI BATZARRA | BERGARA

Azaroa hilabete handia da osintxuarrendako. Gainontzeko herrietan egunak nabarmen ilundu eta moztzen diren bitartean, hil honetan zehar, Osintxuko kaleak bete egiten dira.

Urtero moduan, Poxpolo Ta Konpainia taldearekin hasi genuen hilabetea, eta, etxeko txikiak ez ezik, nagusiek ere gogotik egin genuen barre.

Eguaztenean eta lagunartean, Mikel Garaizabalen eskutik, inguruko ardo eta txakolinaren sekretu guztiak ezagutzeko aukera izan genuen.

Festak jarrai dezala

Osintxun ez dugu umore falta-rik; hala ere, bihar, 22:15ean, Maribel Salas umoristak bere

monoloko-ekin Txuringo tabernako gaua girotu eta alaituko du. Pasadizo, istorio bitxi eta umorez beteriko gaua izango da biharkoa.

Astelehenean Arimen Eguna ospatuko dugu, eta gurekin bat egitera animatu nahi zaitugu. 19:00etan gaztaina eta sagardoa banatuko dugu plazan, eta ondoren, Osintxuko animosoenek afaria egingo dugu Txuringon. Azken ordu arte itxaroten duzuen horiek, jakin, txartela domeka arte erosteko aukera izango duzuela. Txuringon bertan eta 15 euroren truke.

Etxean egoteko egun asko daude, baina, gaztainerkin bezala, Osintxuko ekimen ireki eta parte hartzaile honekin bat egiteko denbora sasoiaren aprobetxatzea komeni da.



BERGARAKO SHOTOKAN

Zalakin eta Zubiaurre selekzioara

Josu Zalakin eta Andoni Zubiaurrek azaroaren 1ean Gasteizko karate txapelketan junior eta kadete mailetan lortutako emaitza onei esker, Euskal Selekzioan parte hartzeko deia jaso dute. Bergarako karate taldeko kide diren bi gazteak azaroaren 22an eta 23an Ciudad Realen Espainiako txapelketan lehiatuko dira. Ea Ciudad Realen Gasteizen lortutako arrakasta errepikatzea lortzen duten.

Saskibaloiko mutilek lehen postuetan jarraitu nahi dute

Bolada ona luzatzeko asmoarekin irtengo dira etxekoak Labegarrietako kiroldegira bihar, zapatua. Hain zuzen ere, Errenteriako Oiarso taldea izango dute aurkari, baina Soralue Bergara KEko kideek puntuak etxean utzi nahi dituzte. 17:00etan hasiko da norgehiagoka.

Garaipena lortzeko, eskubaloikoek zaleen indarra behar dute

Joan den aste bukaeran garaipena hatz puntekin ukitu eta gero, garaipen bat eskaini nahi diete zaleei. Zapatukoa (19:00) ez da erronka erraza izango, sailkapenean laugarren doan Txikipolit ZKE aurkari gogorra izango da-eta. Zaleen laguntza ezinbestekoa izango da.

Txapak bihar ospatuko du bere eguna

IMANOL GALLEGU | BERGARA

Txapa Irratiaren 30. urteurrena ospatzeko, jaialdia egingo dute bihar, zapatua. 12:00etan kartzela zaharretik abiatuta poteoa egongo da txaranga batez lagunduta eta 14:30ean gaztetxean herri-bazkaria egingo dute. Bazkalostean, The Potes taldeak kontzertua eskainiko du.

The Potes taldeak Flogging Molly eta RIP taldeen bertsoak egiten ditu. Talde horrek, baina, instrumentu akustikoak sartu ditu bere doinueta, eta irlandar zein AEBetako uki-tuak dituen doinuak sortu.



Eguaztenean egindako dastatzea. | IMANOL GALLEGU

Ohiturez baliatuz, etorkizuna eraikiz

San Martin Agirre
herri eskola
BERGARA

Erragio/n mutil/neska aurreko danbolin horri. Gaztainak erre artian, gaztainak erre artian..., dio Gabonetako kantu ospetsu batek. Izan ere, danbolinaren inguruan bildu eta gaztainak erretzeko ohiturak erro sakonak ditu euskal gizartean. Duela hamarkada batzuk, gaztainondoek fin ekiten zioten udazkeneko basoak gaztainaz janzteko betebeharrari. Bertan jasotakoa neguko gosea asetzeko erabiltzen zuten baseritarrek, erraz jaso eta alferrik galtzeko arriskurik ez zuen fruitua zen-eta. Artoa eta garia agertu aurretik, Euskal Herriko elikagari-rik ohikoena zen gaztaina.

Uzta oparoa zen urteetan, hildakoak omentzeko egiten ziren ondra-janetako protagonista bilakatu zen. Ospakizunak sona eskuratu zuen, eta, Domu Santu egunaren osteko bigarren astelehenari huts egin gabe, gaur egunera arte iritsi da. Hala ere, urteak ez dira alferrik pasatu. Gaur egun, Gaztaina Erre Egunean danbolinaren inguruan bildu eta gaztainak erretzeko ohiturari eusten zaion arren, kutsu erlijiosotik urrundu egin da ospakizuna.

Urtero bezala, aurten ere danbolinari eragin eta tripak asetzeko aukera bikaina izango dute San Martin Agirre Herri Eskolako ikasleek. Azaroaren 14an, ostiralean, egingo dugu Gaztaina Erre Eguna. Eskolan ospatzen hasi zenetik 25 urte igaro diren honetan, azken hilabeteetan landutako proiektua praktikan jarriko dute 4 eta 5 urteko ikasleek.



Haur zein irakasle joan den urteko Gaztaina Erre Egunean parte hartzen. ARG: S. M. Agirre Herri Eskola.

2011. urtean murgildu zen San Martin Agirre Herri Eskola diziplinarteko proiektuetan oinarritutako metodologian. Urteak daramatzagu ikasketa aktiboa sustatzen, ikasleak dira-eta euren ezagutzaren eraikitzaile. Zentzu horretan, erabakiak hartzeko gaitasuna, ekarpenak egiteko trebetasuna eta euren iritziak defendatzeko ahalmena izan ohi dituzte bidelagun eta erronka. Meto-

dologia horren bitartez landu daitezkeen gaiak oso zabalak eta ugariak izanik, hainbat irizpide erabiltzen dira horiek aukeratzeko. Herrian oso erroturik dauden ohiturak ez ezik, euskal kultura eta ondarea ere kontuan hartzen ditugu gaiak zehazteko orduan. Ikasleen interes, jakintza eta esperientziek ere berebiziko garrantzia dute, haiek gorpuzten dituzte-eta ikastetxeko proiektuak.

Azkenik, esan beharra dago haurrentzat garrantzi handikoa dela proiektuen lanketan etxekoan partaidetza izatea. Horregatik, azaroaren 14an eskolara etorri, jaiaz gozatu eta haurren ikasketa-prozesua gertutik ezagutzeko gonbidapena egingo dugu. Gaztainak erre artian, gaztainak erre artian, txipli txapla, pum!

Herritarrek hasi dira txantxiak erabiltzen eguneroko erosketetan

Udaletxean dago trukerako bulegoa eta erabiltzaileak %5eko hobaria jasoko du

O.E./T.M. | OÑATI

Gutxi, baina hasi da txantxi mugimendua ikusten herriko dendetan. "Urriari hasi ziren erabiltzen, baina Udalak emandako txantxiak zituen jendeak orain arte. Duela bi aste zabaldu zuten bulegoa herritarrek euroak txantxiengatik aldatzeko. Denbora laburra pasatu da oraindik. Uste dut hemendik aurrera mugimendua handitu egingo dela. Gabonei begira egiten diren erosketa sasoiari, adibidez, gehiago erabiltzeko direla uste dut", dio Marku jantzi dendako Arantxa Markuleta.

Kantitate handiak

Herriko merkatarien aldeko proiektua da txantxia eta herritarrek dirua herriko komertzio eta zerbitzuetan gastatzea du helburu. Moneten trukean %5eko hobaria jasotzen du, gainera, erabiltzaileak. "Hobari hori garrantzitsua da. Egia da kantitate txikia aldatuz gero hobaria ere txikia den irudipena izan dezakeela norbaitek, baina kantitate handietan beste modu batera ikusten da. Adibidez, familia batek kalkulatu badu hilabete batean 300 euro



Udaletxeko beheko solairuan dago moneten trukerako bulegoa. | O.E.

gastatzen dituela elikagaietan, kopuru hori aldi bakarrean aldatuz gero, hamabost euroko hobaria jasoko luke, eta hori bada zerbait", dio Sustrai fruta dendako Alberto Vesgak. Udaletxean dagoeneko zabalik

dago moneten trukea egiteko bulegoa. Erabiltzaileek gutxienez 20 euro eta gehienez 500 euro aldatu ahal dituzte. Herriko 91 komertzio, jatetxe eta zerbitzutan erabili ahal izango dituzte. Txantxiak, baina, iraun-

gitze data izango dute. Abenduaren hasieran hartzen direnak, adibidez, martxora arte erabili ahal izango dira. Udal tasen hobaria herritarrek moneta lokalean jasotzea da Udalak egin gura duen hurrengo pausoa. Azken urteetan egin izan den Gabonetako erakusleho lehaketako sariak ere txantxiengan emango dira aurten. Herriko enprekin ere harremanetan dago langileen soldataren zati bat txantxiengatik nola pasatu adosteko. Urriko osoko bilkuran Sozioekonomia zinegotzi Josu Lizarralde azaldu zuen moduan, Ulma Taldearekin eta Hijos de Juan de Garay enpresako zuzendaritzako kideekin berba egin dute dagoeneko. Ulma Taldeak langileei eskatu die iritzia jakiteko zer egin dezaketen proiektuarekin bat egiteko, eta gaur, egubakoitza, dute langileek azken eguna ekarpenak egiteko.

Urtebeteko proba egingo dute herriko moneta sozialarekin. Moneten trukean erabiltzaileek irabazten duten hobaria merkatariek eta Udalak jarriko dute eta diru poltsa hori herriko merkataritzaren aldeko ekimen baterako izango da.

AINHOA OLANO
TXANTXIEN BULEGOA

"Bospasei lagun datoz egunero euroak txantxiengatik trukatzera"

Astean lau egunetan zabalitzen dute, udaletxean, euroak txantxiengatik trukatzeko bulegoa: astelehen, eguazten eta eguenean 11:30etik 13:00etara eta martitzenetan, 15:00etatik 17:30era.



IMANOL BELOKI

Zer-nolako harrera izan du txantxiak lehen egunetan?

Erabiltzaileei begira, hilaren lehen astelehenean ireki zen bulegoa, eta bospasei lagun etortzen dira egunero. Bulegoa ez dago ordu zabalik eta batzuk ordu kanpo ere etorri dira aldatzera, baina tira... Pixkanaka ari da mugimendua sortzen.

Zer-nolako euro aldatzen ditu erabiltzaileak, batez beste?

Batzuk etorri dira sistema probatu gura dutelako, eta kantitate txikia aldatu dute. Beste batzuk, aldiz, erosketa konkretu bat egitea pentsatuta dutenak izan dira, eta horiek kantitate handiagoa aldatu dute.

Zer egin behar da euroak txantxiengatik trukatzeko?

Bulegora etortzea nahikoa da. Erabiltzaile bakoitzari, hori bai, fitxa bat zabaltzen diogu, muga batzuk badaudelako aldatu gura diren euroei begira. Merkataria eta zerbitzu gehienak, bestalde, aldatu dituzte dagoeneko, badituzte euren txantxiak.



ARANTXA MARKULETA
MARKU JANTZI DENDA

"Mugimendua txikia izan dugu orain arte, baina hemendik aurrera gehituko dela uste dut. Helburuarekin ados nago, eta ikusiko dugu urtebete honetan zelan funtzionatzen duen".



ALAITZ URIBETXEBERRÍA
TXANTXIKU ELEKTRIZITATEA

"Ideia bera ona da, jendeak hemen eros dezan eta kanpora joan ez dadin. Gurera txantxiengatik orain arte etorri direnak beste dendari batzuk izan dira, herritarrik ez".



ALBERTO VESGA
SUSTRAI FRUTA DENDA

"Herriko jaietan Udalak emandako sariekin etorri da txantxiengatik jendea, bai. Uste dut trukean lortzen den hobaria lagungarria izango zaiela herritarrei. Ideia ona da".



KONTXI INURRITEGI
HERRITARRA

"GOIENA paperean irakurri dut txantxiengatik gainera albistea, baina uste dut edadetuok ez dugula umorerik horretan hasteko. Nik neuk oraindik ez ditut aldatu".



XANTI ALTZELAI
HERRITARRA

"Egia esan, argazkietan bakarrik ikusi ditut. Ondo iruditzen zait aldatzen den diru hori Oñati erabiltzeko izatea, baina ez dakit zenbaterainoko eraginkorra izango den".

Hilaren 20a aurretik eman behar da izena aisialdiko ortuetan

Aisialdiko ortuen zozketan izena emateko epea zabalik dago; hilaren 20a da apuntatzeko azken eguna. Inprimaki bat bete behar da zozketan parte hartzeko eta horrekin batera nortasun agiria- ren fotokopia aurkeztu behar da udal bulegoetan. Ortuak San Martin auzoko lursail batean ari dira egokitzen eta 30 metro koadro inguru izango ditu bakoitzak.

Bazkaria-eta antolatu ditu biharko Markel Irizarren lagunartek

Bihar, zapatua, egingo du aurtengo denboraldi bukaerako bazkaria Markel Irizarren lagunartek. Bazkariaren gain, baina, 12:00etan erakustaldia egingo du plazan Markel Uriartek, eta hainbat bizikleta mota egongo dira, probatzeko. Movember mugimenduari bat egingo dute eta musikarik ez da falta izango.

Senideekin duten bazkariarekin hasiko da Nagusien Astea

Hilaren 21era arte iraungo du bihar, zapatua, hasiko den Nagusien Astea. Herriko hainbat talderen parte hartzearekin osatu dute aurten ere egitaraua. Bihar, esaterako, meza izango dute, 13:00etan, eta parrokiako abesbatzak abestuko du. Ondoren, egon- liarrendako eta haien senideendako bazkaria egongo da.

Igerilekua itxiko dute bihar arratsaldean, txapelketagatik

Zapatu arratsaldean igerilekuak itxita egongo dira igeriketako txapelketa dela-eta. Arratsaldeko ikastaroak, baina, betiko moduan egongo dira. Oñatiko, Bergarako, Legazpiko, Azkoitiko eta Eibar-ko taldeetako igerilariak hartuko dute parte, nesken eta mutilen kategorietan. 15:00etan hasiko da txapelketa.

OHARRAK

SARRERAK AGORTUTA

Bihar izango den *Hiru txerri- txoak eta otsoa* antzezlanerako sarrerak agortuta daude.

GAZTAINA-JANA

Gaztaina-jana eta puzker lehaketa egingo dute bihar, zapatua, San Martin auzoan. Sagar- do kupela eta ardoa ere egongo da, eta baita dantzarako musika ere. 17:00etan banatuko dituzte gaztainak.

Hamaika metro inguruko txirrista duen jolasgunea

Gernika plazak izango dituen jolasak herritarrekin hautatu ditu Udalak; bigarren aukera izan da irabazlea

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETAKO

Gernika plazako jolasgunea hautatuta dago: Lappset enpresak aurkeztutako proposamena (bigarrena). Hiru proiektuen artean aukeratu dute Udalak eta herritarrek elkarrekin, eta horrek jaso ditu puntu gehien.

Irabazleak, 607tik 392 boto

Ainara Iraetak, Parte-hartze teknikariak, jakinarazi du 607 herritarrek bozkatu dutela: "106 lagunek eman dute botoa Arkupen; Arizmendi Ikastolan, 219 ikaslek; eta Kurtzebarri Eskolan, 282 ikaslek. Eta bigarren proposamena izan da bozkatuena, 392 botorekin; bigarren geratu da hirugarren aukera (HPC), 204 botorekin; eta azkenengo, lehenengo aukera (HAGS), 11 botorekin. Hortaz, argi geratu da batez ere umeek bigarrenaren alde egin dutela".

Herritarrek 15 puntu zituzten banatzeko, eta gainerakoak beste ezaugarri batzuk kontuan hartuta eman dizkio Udalak. 100 puntutik 89,93 jaso ditu irabazleak.



Jose Mari Segovia, Ainara Iraeta eta Ana Bolinaga. | M.A.

Etsetxoa, txirrista eta zabuak

Jolasgunea zortzi aktibitate ezberdin izango ditu; horien artean daude sei metroko garaiera duen etsetxoa, hamaika metroko txirrista eta zabuak. Gainera, esfera itxurako jolasak daude lurrian, baita geziak ere. "Osagai batzuk ume txikiagoendako dira eta beste batzuk nagusiagoendako; hortaz, adin askotarikoak elkartuko

dira", jakinarazi du Ana Bolinaga alkateak. Kurtzebarri Eskolako guraso batzuek, gainera, beste proposamen bat egin dute, eta onartu duten jolasgune horretan oraindik izango da aldatetaren bat edo beste egiteko aukera.

Lanok gaur esleituko dizkio Lappset enpresari, eta bi hilabete beharko dituzte bukatzeko. Kostua 57.900 euro da.

Angel Elortza eta Jabier Egaña, 50 urtez abade

M.A. | ARETXABALETAKO

Leintz Pastoral Barrutiko abade diren Angel Elortza Biain eta Jabier Egaña Egaña oñatiarrek 50 urte bete dituzte abade. Barrutiko kideek zorianak eman gura dizkiete, eta

elkarrekin ospatu gura dute. Barrutia osatzen dute Aretxabaletak, Eskoriatzak eta Leintz Gatzagak eta hamalau elizatek. Hona: Aozaratz, Areantza, Arkarazo, Galaratza, Goroeta, Izurieta, Larrino,

Apotzaga, Bolibar, Gellao, Marin, Mazmela, Mendiola eta Zarimutz. Domekan da ospakizuna; meza esango dute, 12:30ean, Eskoriatzako parrokiari; eta bazkaria, 14:30ean, Aretxabaletako Hirusta jatetxean.

Angel Elortza 1965eko uztailaren 19an abadetu zen Arantzazun eta orduz geroztik hara eta hona ibili da: Oñatiko seminarioan; Valentzian; Ekuadorren; Oñatin irakasle... 2010a ezker Leintz Pastoral Barrutiko parroko da.

Jabier Egaña 1964ko abuztuaren 16an izendatu zuten abade Siguenzan (Guadalajara), eta Argentinara joan zen. 33 urte egin zituen han, 2007an itzuli zen arte. 2009a ezker Aretxabaletako eta Eskoriatzako abade laguntzaile da.



Angel Elortza eta Javier Egaña, Leintz Pastoral Barrutiko abadeak. | GOIENA

Elkartasun irriak gura dituzte domekan kiroldegian, Ademgi elkarteari laguntzeko

M.A. | ARETXABALETAKO

Irrien Lagunak Gizartegintza elkarteak, Ademgik eta Udalak elkarrekin antolatuta, Elkartasun Jaialdia izango da domekan, 17:30ean, kiroldegian. Sarrerak Arkupeko harreraren daude salgai 5 eurotan. 600 lagunendako tokia izango da.

Gipuzkoako Esklerosi Anizkoitzak Elkarteari, Ademgiri, laguntzea du helburu jaialdiak.

Batetik, gizartea sentsibilizatu gura dute, bazterketa saiheste; eta bestetik, errehabilitazio zerbitzua emateko dirua jaso (laguntzeko kontua: ES56 2095 5002 57 10 61134275).

Ane pirata eta haren lagun piratak elkartuko dira kiroldegian etzi, eta umeak, helduak eta nagusiak, guztiak jarriko dituzte dantzan, baita herriko elkarteetako kideak ere.

Mutilen binakako frontenis txapelketa jokatu dute datozen bi aste bukaeretan, UDAk deituta

Aretxabaletako kirol elkarteak frontenis txapelketa antolatu du mutilendako. Bi aste bukaeretan jokatu dute: azaroaren 22an eta 23an eta 29an eta 30ean. Izena emateko epea gaur, egubakoitzan, bukatzen da (10 euro). Hona bidea: udafrentenis@gmail.com. Txapelendunendako sariak izango dira: afaria eta garaikurra, lehenengo bikotearendako; garaikurra, bigarren bikotearendako; eta bi txartelen zozketa jokalaria guztien artean.

Mus, tute eta briska txapelketak jokatu dituzte gaur Basotxo erretiratuen elkarteak bazkideek

Basotxo erretiratuen elkarteak antolatuta, mus eta tute txapelketak jokatu dituzte gaur, egubakoitzan, egoitzan. Tutea 11:00etan izango da eta musa, 16:00etan. Bazkideendako txapelketa da, eta sariak honako hauek izango dira: urdaiazpiko bana txapelendunendako; eta ardoa eta gazta txapelendunendako. Bukatutakoan, afaria izango dute txapelketetan jardundakoek, egoitzan bertan.

Martitzenean, hilaren 18an, ospatuko dute Santa Zezilia eguna Leizarra musika eskolako kideek

Azaroaren 22a da musikarien zaindariaren eguna, zapatua, baina Leizarra musika eskolako ikasleek eta irakasleek martitzenean ospatuko dute. Banda, trikitilariak, pandero-joleak eta beste hainbat musikari elkartuko dira Mitarte kalean, 18:00etan, eta handik Herriko Plazara joango dira kalejiran. Hiru kantu abestuko dituzte han, eta gero, txokolatea hartuko dute guztiek.



Colindresko 29. karate txapelketa jokatu zuten zapatuan UDAko kideek, txapelketa gogorra gero, eta bosgarren postua lortu zuen Andoni Martinek. Eneko Calvok eta Oxel Vazquezek ere hartu zuten parte.

PIENSOS
SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea
ARETXABALETAKO
Tel.: 943 77 00 33 / 943 79 42 56

Jou Díaz

Karakiua

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETAKO

Mobiliario ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETAKO

Hondakinen gaikako bilketa tasa %40tik %80ra

Zazpi hilabeteen %4tik %33ra igo da hondakin organikoaren tasa

MIRARI ALTUBE | ESKORIATZA

Zazpi hilabete pasatu dira Eskoriatzan atez ateko hondakin bilketa sistema jarri zutenetik eta udal ordezkariak oso pozik daude emaitzarekin; izan ere, bilketa selektiboaren tasa %40tik %80ra pasatu da.

Zazpi hilabeteotako balorazioa egiteko elkartu dira Udal Gobernuak, Ezker Anitza-IUko eta Zero Zaborreko ordezkariak. Eta azken datuak 2013koekin alderatu dituzte: errefusaren bilketa tasa jaitsi egin da %66tik %19ra; eta organikoarena igo %4tik %33ra. Gainerako gehienak ere igo egin dira: papera %10etik %19ra; eta ontzi arinak, %4tik %10era. Eta beira jaitsi, %7tik %5era.

Neurriak hartzen hasi

Atez atekoa abian jarri aurretik, 2013ko azaroan, edukiontzi komunitario bidez hasi ziren hondakinak jasotzen hainbat auzotan, Intxaurtxuetan esaterako, eta orduan bilketa selektiboaren tasa %32tik %40ra igo zen. Hala ere, ez zela nahikoa iritzi zioten.

Atez ateko bilketa sistema etorri zen orduan, eta eskoriatzar



Ezker-Anitzaren, Udal Gobernuaren eta Zero Zaborren ordezkariak. | M.A.

gehienak oso ondo moldatu direla jakinarazi du Ezpeletak. Hala, zoriondu egin gura izan ditu. Dena den, oraindik badaudela gutxi batzuk gainerakoekin egindako ahalegina zapuzten dutenak dio: "Hondakinak nahastuta uzten dituzte: batzuek beste zintzilario batzuetan eta beste batzuek, lurrean botata".

Horren aurrean hainbat neurri hartuko ditu Udalak: "Batetik, gaizki utzitako poltsak jasotzeko maiztasuna jaitsi egingo da; eta bestetik, Mankomunitatea orde-

nantza aplikatzen hasiko da eta, ondorioz, espedienteak zabaltzen". Hala ere, herritarrek informatzen jarraitu gura dute, eta Ibarraundi museoan dagoen informazio bulegoa zabalik egongo da, orain arte legez, martitzenetan goiz eta arratsalde eta eguenetan goizez.

Bestalde, herritarren ekarpenak jasotzeko helburuarekin bilera egingo dute martitzenean, hilak 18, Ibarraundi museoan, 18:30ean. Datuok aurkeztuko dizkiete herritarrei eta haiek esateko dutena entzungo dute udal ordezkariak.

Nerabeek herriaren gainean duten iritzia emateko EskoHitza Gaztea egingo dute domekan

M.A. | ESKORIATZA

EskoHitza Gaztearen lehen ekitaldia egingo dute domekan, azaroaren 16an, nerabeek herriaren gainean duten iritzia jasotzeko. 17:00etatik 19:00etara bitartean elkartuko dira, gaztelekuan, eta bukatutakoan merienda izango dute, musikak eta beste hainbat ekintzak giro-tuta (*slackline*-a...), Joseba Iñurategi pilotalekuan.

Hainbat gai landu

Aurreko astean helduekin egindako legez, oraingoan, nerabeekin elkartuko dira Eskoriatzar

ren gainean duten iritzia jasotzeko eta haiek esateko dutena entzuteko: zer dagoen ondo, zer hobetu daitekeen, zer falta den, zer duten gustuko... Eta hainbat arlotan banatuta landuko dituzte gaiak. Hona arloak: hiritzintza, kirola, aisialdia, jaiak eta gaztelekua.

Iritziak Twitter bidez ere bidali ahal izango dituzte gazteek traol hauek erabilita: #eskohitza eta #eskohitzagaztea.

Antolatzaileek herriko nerabeek animatu gura dituzte parte hartzera, haiek esandakoek ere garrantzia dutelako.



Eraso matxistari ezetza

Emakumeen aurkako indarkeria ez leloarekin 100 lagunetik gora elkartu ziren martitzenean plazan, Amuskak eta Udalak deituta. Joan den domekan gizon bat atxilotu zuten Eskoriatzan, ertzaintzaren esanetan bikotekide ohia erasotzearen eta urrutze agindua apurtzearen. Plazan elkartutakoek eta Ezker Anitza-IU alderdiak babesa eskaini gura izan zioten ustezko eraso jasandakoari.

Bigarren eskuko edozer saldu edo trukatu ahal izango da bihar plazan egingo duten azokan

Bihar, azaroak 15, egingo dute bigarren eskuko azoka. Plazan izango da, 11:00etatik 14:00etara. Beste behin, edozer saldu edo trukatu ahal izango dute eskoriatzarrek azokan, betiere bigarren eskukoak badira edo norberak egindakoak: arropak, liburuak, diskoak, jostailuak, altzariak, bildumak...

OHARRAK

NAGUSIEN ALDI BATERAKO EGONALDIK

Zabaldute abendurako eta Gabonetarako nagusien aldi baterako egonaldietarako izen-emate epea. Abenduko lehen hamabostaldirako edo hilabete osorako eskaerendako azken eguna azaroaren 16a da; eta bigarren hamabostaldirakoa, azaroaren 26a. Gizarte Zerbitzuetara jo: 943-71 31 36.

ENERGIA AURREZTEKO AHOLKULARITZA

Etxeko energia kontsumoa aurrezteko aholkuak emango

ditu Eider Roa adituak azaroko hiru egunetan. Aholkularitza zerbitzua debalde da, eta Ibarraundin egongo da honako egunetan: 17an eta 24an (17:00-19:00) eta 19an (10:00-12:00).

'BULLYING'-AREN GAINEKO BERBALDIA

Bullying-aren eta arte martzialen gaineko berbaldia egingo du Rafa Carriet eskoriatzarrek egunetan, azaroaren 20an, kultur etxean (18:30), Amuskak antolatuta. Arte martzialak umeen eta gazteen autoestimuan duten garrantzia azalduko du.

Egitarau zabal eta osatua Eskoitzara Eguna ospatzeko

Mendi ibilaldiarekin hasi eta kontzertuekin bukatuko dute; tartean izango dira herri bazkaria, dokumental eta poesia emanaldiak eta elkarretaratzea

M.A. | ESKORIATZA

Ibilaldiarekin hasiko dute bihar euskal preso eta iheslarien eskubideen defentsan antolatutako Eskoitzara Eguna. Atxorrotzera igo, kuadrilla argazkia atera eta etxafuegoak jaurtiko dituzte gainerako guztiak esnatzeko. Jaitsi ostean, batzuk salda hartzera joango dira eta besteak patata-tortilla egitera lehiaketan parte hartzeko; 12:00etarako eroan

beharko dituzte kontzejupera tortillak. Taberna eta tonbola ere orduantxe zabalduko dituzte. Gero, bazkaltzeko elkartuko dira Dorleta elkartean.

Arratsaldean *Barruko arrastuak* dokumentala emango dute lehenengo eta gero Pobresiak taldeak poesia emanaldia egingo du. Iluntzean mosaiko erraldoia egingo dute plazan, kandelak lagun dituztela, eta gauean kon-

tzertuak izango dira kontzejupuan.

Herriko hainbat eragile, taldeko ordezkari eta herritar elkartu dira Eskoitzara Eguna antolatzeko lehenengoz: "Helburua da euskal preso politikoen egoeraren berri ematea herritarrei; eta diruz laguntzea", jakinarazi du Miriam Isasmendik. Eta eskoriatzar guztiak animatu ditu ekitaldiotan parte hartzera.



EGITARAUA

9:00: Atxorrotzera igoera.

11:00: Salda kontzejupuan.

12:00: Patata-tortilla lehiaketa.

Tonbolaren eta tabernaren irekiera.

13:00: Trikiti-poteoa herrian.

14:30: Herri bazkaria: babarrun-jana.

Bazkalostean, bertsolariak...

17:30: Dokumental emanaldia plazan:

Barruko arrastuak.

18:30: Poesia musikatu emanaldia.

20:00: Elkarretaratzea plazan:

kandelek in osatutako mosaikoa.

22:00: Kontzertuak kontzejupuan:

Criminal Remains eta Akerbeltz.

ETXEBIZITZA & DEKORAZIOA

Azken joerak eta berritasunak

Sukaldeak
Logelak eta egongelak
Igogailuak
Etxe berria



 bastidasukaldeak


12 hilabeteko finantziazioa, interes gabe!

INFORMA ZAITEZ!

zarautz
elizaurre 3, 20800
tel.: 943 89 49 99 faxa: 943 89 49 98

azpeitia
perez arregi 9, 20730
tel./faxes: 943 15 05 10

bergara
ibargarai 36-38, 20570
tel./faxes: 943 76 70 58





Tiraderak nagusi Servimasaren sukalde laminatuan.



Zuria jaun eta jabe Servimasaren sukaldean.



Dica etxeko sukalde "gozoa" Iker Sukaldeetan.

Sukalde argitsuak eta dotoreak nagusi

Prezioa eta kalitatea bateratzea ezinbestekoak dira eta aukera zabala dago merkatuan

Kolore gama handia, altzari artikulatuak eta tiradera (kajoi) mota asko dira sukaldeetan nobedade. Zuria da nagusi, beste behin, argitasuna eta dotorezia dakarren kolorea. Eta mahai-gainetarako bi material: portzelanikoa eta dektona. Biek ala biek hartu dute indarra, gogorak direlako eta

erresistentzia handikoak beroari, mantxei... Ateak estratifikatuak dira, material gogorarekin egindakoak, garbitzeko errazak eta kolore askotakoak.

Prezioa eta kalitatea bateratzea ezinbestekoa da bezeroa gustura uzteko, are gehiago krisi garaian. Hala, merkatuaren eskerei erantzunez, prezio guztietakoak dituzte denda eta aroztegietan.

SERVIMASA

Enpresa handiei erosten diete materiala Bergarako Servimasan, eta gero altzariak fabrikatu. "Bezeroek plana ekarri eta diseinua egiten diegu guk, euren gustuko sukaldea izan dezaten". Erosotasuna gura dute: "Apalak beharrean tiraderak eskatzen dituzte orain, tresnak eskura izateko. Eta leku itsurik ere ez

dute gura; horretarako, burdineria bereziak erabiltzen dira altzarien txoko guztiak aprobetxatzeko". Izan ere, azken urteotako etxeetan sukaldeak txikiak dira eta berebiziko garrantzia du lekua ondo aprobetxatzeak. Hala ere, aurrean, sukalde berriak hornitzen baino gehiago, zaharrak berritzen dabilta: "Edozein sukalderen itxurara egokitzen

ditugu altzariak, eta edozein bezeroen gustura. Batzuek gura go dituzte altzari garaiak; beste batzuek, baxuak; batzuek, etzanak; eta beste batzuek, altzariak bakarrik beheko partean".

Sukalde laminatuak, estratifikatuak eta lakadunak dira nagusi; eta zuriak guztiak, noski: "Hamarretik bederatzi izango dira zuriak. Eta zuriak diodanean, guztia zuria: etxetresna elektrikoak, altzariak, mahai-gainak...". Eta forma zuzenak dira gustuko: "Ordena jarraitzea gura izaten da; tiraderek, etxetresnek... ordena bat jarrai dezatela eta sukalde perfektua izan". Metakrilatozko ate zuria da nobedade aurrean Servimasan, "ispiluaren imitazio" egiten duena eta "oso material onekoa".

Servimasak, gainera, altzariak muntatzeko hiru modu ditu aukeran: bezeroak berak mun-



Arrasate

AZKEN ETXEBIZITZAK EZ GALDU AUKERA!

2 log. **175.000 €-tik + BEZa**

3 log. **220.200 €-tik + BEZa**



Urrian, 8 etxebizitza
saldu dira

%100eko finantzaketa

Salmenta prezioaren %100 eskaintzeko aukera dugu merkatuko baldintza onenetan.

KALITATE HOBERENA ZURE ESKUETAN

Motordun pertsianak, domotika, haritzeko parketa, haritzeko ateak, hari musikala, aireztalutako fatxada, txorrota termostatikoak, tabike BIKOITZA fatxadetan, tabike HIRUKOITZA etxebizitzaren arteko banaketa hormetan



Tel 943 25 38 21 E-mail info@inmobibai.com
Deba Kalea 3 - 20500 Arrasate (Gipuzkoa)

www.inmobibai.com





Mahaia eta aulkiak erdian Iker Sukaldeetan.



Lur kolorea, berotasunaren ezaugarri, Carrascalen sukaldean.



Sukalde funtzionala eta eroso Carrascal aroztegiaren.

tatzea guztia; altzariak eginda ekarri –ateak, tiraderak...– eta gero bezeroak bere tokian jartzea; eta Servimasako langileek muntatzea guztia.

IKER SUKALDEAK

Dica etxearekin hasi da lanean oraintsu Arrasateko Iker Sukaldeak, "punta-puntako" etxearekin. "Funtzionaltasuna eta ergonomia da sukalde horien ezaugarria, bistarako oso atseginak eta erabiltzailearendako guztiz erosoak".

Kolore "gozoak" dira azken tendentzia, "argiak eta atseginak". Formari dagokionez, ostera, zuzenak. Gainera, heldulekurik ez duten sukaldeak dira nagusi, eta garbitzeko oso errazak. Proiektu pertsonalizatuak egiten dituzte Ikerren, "denok gara-eta ezberdinak", diote. Hala, bezeroaren nahia errealitate bihurtzea dute helburu, eta funtzionaltasuna eta

dotorezia bateratzen ahalegintzen dira beti. Eta bezeroa pozik uztea helburu izanda, altzarien muntaia dela "garrantzitsuena" diote; horretan saiatzen dira. Altzariak bertatik bertara ikustera animatzen dituzte, "prezio merkeetan hasi eta garestiagoetara bitartean aukera zabala dagoelako".

CARRASCAL AROZTEGIA

Altzari fabrikatzailea da Arrasateko Carrascal aroztegia, egiturak egiten dituzte bertan eta atek kanpotik ekarri. Hainbat hornitzaileekin egiten dute lan; horregatik, aukera zabala daukate: "Gure produktuen kalitateari gertuko jarraipena egiten diogu: egituretan erabiltzen ditugun melaminari, tiraderei, bisagrei...". Sukaldeari neurriak hartu eta diseinua gertatzen dute; baita aurrekontua aurkeztu ere: "Bezeroak gura du sukalde modernoa,



Mahai-gainak portzelanazkoak Carrascalen bainugelan.

Portzelanazko mahai-gainak

Konketa eta portzelanazko mahai-gaina bat eginda dituen bainugelak direla nagusi diote Carrascal aroztegiak; eta kolore argiak dituztenak. Altzariak, ostera, distiradunak: zuriak, berdeak, moreak... Hanka gabekoek jarraitzen dute izaten jaun eta jabe. Bainugela bakarra izanez gero, etxean gordeleku handiko altzariak gura izaten ditu bezeroak, eta modulu osagarriak ere jartzen dira: ontziak, zutabeak eta zintzilarioak.

funtzionala eta eroso; txoko guztiak ondo aprobetxatzea eta altzari praktikoak izatea", diote. Hala, armairuak, zutabeak eta angeluak edozein txokotara egokitzen dituzte: "Guretzako ez dago neurri berezirik, ezta gain-kosturik ere horregatik". Gero eta tiradera gehiago jartzen dabilta, atera eta sartu erraztasunez egiteko; izan ere, tresna guztiak eskura. baina ezkutuan izan gura ditu bezeroak. Eta garbigailuak ezkutuan dauden legez, suburu edo kanpai aire-zurgatzaileak ere bai, orain.

Sukaldeak epe luzerako inbertsioak dira, eta ez nekatzeko zuriaren aldeko apustua egiten jarraitzen da. Orain, baina, sukalde zuri horiek konbinatzen dituzte egur kolorearekin Carrascalen, egur argiekin, batez ere. Eta harri itxuradun atekak, lur kolorekoak, gero eta gehiago dira.







OMEGA URBAN SERVICE, IGOGAILU ZERBITZUETARAKO ZURE KONFIANTZAZKO ALTERNATIBA

IGOGAILUEN KALITATEZKO MANTENTZE-LANAK PREBENTZIOZKO MANTENTZE-LANEN PLANA

Marka guztietako igogailuen mantentze-lanak eta konponketak egiten ditugu, baita plataforma industrialenak ere. Lan horiek egiteko, goi mailako langile kualifikatuak ditugu, eta, horri esker, zure igogailua ezin hobeto ibiliko dela garantizatzen dizugu.

Gure talde teknikoak hilero egiten dituen mantentze-lanen zure igogailuaren funtzionamendua eta kontserbazioa hobetuko dute, eta haren bizitza luza dezakete, igogailu bakoitzaren funtzionamenduari eta modeloari egokitutako plan teknikoak beteta.

945 290 308

debagoiena@omegaurban.com

www.igogailuak.com



Birgaitzeak Modernizazioak Ordezkapenak Zero Kotarako Jaitsierak

Iggogailu Mantenua



Umeendako logelan zuria eta egur kolorea nahastuta, eta paretan papera.

Logela erosoak eta linea zuzenekoak

Logeletan intxaurreko koloreak hartu du indarra azkenaldian eta egongeletan zuria da bezeroek gehien eskatzen dutena



Egongelan ere kolore zuria eta linea zuzenak.

Erosotasuna. Bai logeletan eta baita egongeletan ere. Bezeroak ideia zehatz batekin joaten diren arren, beti eskatzen diote aholkua adituari. "Gehienak ideia konkretu batekin datoz, eta, euren asmoa azaldu ostean, aholkua eskatzen digute. Orduan azaltzen diegu zeintzuk diren tendentzia nagusiak", esan du Bergarako Ugarte Aroztegikoak.

Eta zeintzuk dira tendentzia horiek? "Logeletan eta egongeletan linea zuzenak dira nagusi. Bezeroek ez dituzte gura lehena-goko altzariak", diote. Eta, akaso, linea zuzenen alde egitearren, koloreen konbinaketa gutxiago eskatzen dute. "Iaz, zuria, beltza, grisa eta errauts koloreak konbinatzen ziren. Aurten, egur kolorerako joera dago berriro ere. Intxaurreko amerikarra

bogan dago. Oso zain markatua dauka eta dotorezia puntua ematen dio altzariari. Orain arte, gerezi kolorea eskatzen zen gehien. Horretan ere nabaritzen da tendentziak aldatzen doazela", azpimarratu dute.

Egurraren alde egiten duten bezeroek edredoiarekin, gortinekin eta alfobrekin ipintzen diote kolorea logelari. Eta baita paretan ipintzen diren pape-rekin.

Umeendako egongeletan koloreen konbinazioak indarra galdu du, konbinazio horrek asko baldintzatzen duelako logelaren gainerako dekorazioa. "Koloretako aterean bat edo kajoirean bat ipiniz gero, gainerako elementuak kolore horren bueltan ipini behar dira. Umeen gelei kolorea emateko paperak eta paretetako pegatinak erabiltzen dituzte, gehienbat", esan digute.

C

aroztegia
arrascal

SUKALDEAK
BAINUAK
ARMAIRUAK

ESKAINZA
BEREZIAK
FINANTZAKETA
ZURE NEURRIRA



ZEURE NEURRIRA ZEURE GUSTURA

Ekutio 4, Pab. 14-15 • Uribarri Auzoa • 20500 Arrasate • Tel.: 943 79 01 82 • scarrasc_1@infonegocio.com

Gidaridun ateekin eta neurria

Logelako espazioa ahalik eta ondoen aprobetxatzeko, askok neurria egindako armairuak ipintzen dituzte. "Armairuak neurria egiten ditugu, kanpotik eta barrutik. Bezeroak gura duen banaketa egiten dugu: apalak, tiraderak... Espazioa aprobetxatzeko, bestalde, ate irristagarriekin ipintzen ditugu armairuak. Eta, gehienbat, kolore zuria, bakarrik edo kristalarekin konbinatuta. Kolore zuria beste edozeinekin konbina daiteke", esan dute Arrasateko Carrascal aroztegiak.

Armairuen materialari dagokionez, gehienbat, melaminak ipintzen dira. "Material merkea da eta kolore eta testura ezberdinak ditu. Beste altzari baten edo etxeko lurraren edo ateen berdina izateko, armairuari ate lakatuak ipintzen zaizkio".



OHE AZPIKO ARMAIRUAK

Bezeroek erosotasunaren aldeko apustua egiten dutenez, ohe azpi-ko armairuak eskatzen dituzte. Koltxoiaren neurrikoak dira eta ohe azpian daude. Logelan leku falta dutenek armairua ohe azpian ipintzen dute.

OHE ALTUAK

Oheak erraz egiteko eta ohetik erraz jaikitze ohe altuagoak eskatzen dituzte bezeroek. Mesanotxeak koltxoiaren altueran ipintzen dituzte. Baina horiek ere linea zuzenekoak. Tiraderetan ipintzen dituzten tiratzaileak altzariaren barrualdera sartuta daude. Ez dira kanpoaldera ateratzen. "Eskua gaineratik pasa eta ez dirudi tiratzailearik dagoenik mesanotxean", azaldu dute.

Bergarako Ugarte aroztegiara doazenean gidaridun ateak dituzten armairuak eskatzen dituzte, gehienbat. Gainera, goitik beherainoko armairuak dira. "Sabaitik lurreraino ipintzen ditugu. Bezeroek ez dute zirrikiturik uzten hautsak eta bestelakoak sartzeko", esan dute.

TELEBISTARAKO ALTZARIA

Egongeletan ere erosotasuna da

protagonista, eta baita linea zuzenak ere. "Modak joan eta modak etorri egiten dira, baina, egongelen kasuan, azken urteetako joera mantendu egiten da: erosotasuna eta linea zuzenak", diote.

Gehienbat, altzari zuriak ipintzen dituzte. "Beheko aldean paretatik paretara doan altzari baxua. Tiraderak, ateren bat eta telebista ipintzeko lekua dituen. Eta horren gainean apalak, asko jota bi, eta edalontziak sartzeko beira-arasa. Eta altzariak ipintzen diren pareta berean papera ipintzen da. Paretak kolore argiz margotzen dituzte".

SOFAK ETA BESAUAK

Egongelari kolorea emateko bideak sofa eta besauak dira. "Gehienbat, grisak eta marroiak saltzen ditugu. *Chaise longue*-ak ere asko saltzen dira. Sofa erosoak dira eta kolorea ematen diote egongelari".

Kolorea emateko beste bide bat beira-asetako profilak dira. "Orain arte aluminiozko profilak eta kristalezko ateak ipini izan ditugu. Egun, profilek aluminiozkoak izaten jarraitzen dute, baina aluminio zuria, beltza edo zilar kolorekoa izan daiteke".

KRISTAL ZURIA ETA BELTZA

Duela gutxira arte, egongelako altzarietan koloretako kristalak ipintzen ziren. Orain, kristal zuria eta beltza bakarrik ipintzen dira. "Behin eta berriz aipatu dugun arrazoi berarengatik baztertu dira koloretako kristalak: gainerako dekorazioan asko eragiten dutelako. Zuria eta beltza neutroak

dira eta oso konbinagarriak beste kolore batzuekin. Errazagoa da gortinak eta alfibrak konbinatzea kolore horiekin, eta bezeroak badaki hori".

DEKORAZIO ALDIZKARIAK

Azken urteetan, egongelen eta logelen dekorazioan aldaketa asko egon dira, eta horiek aintzat har-

tzen dituzte altzariak egiten dituzten enpresek. "Lehenagoko altzariak egiten dituzten enpresa oso gutxi dago. Gehienek altzari modernoak eta minimalistak egiten dituzte. Dekorazio aldizkarietan ikusten diren erretratuekin datoz bezero asko, eta, hain zuzen ere, haren antzekoa erosten ahalgintzen dira".



Mesanotxeak koltxoiaren altueran ipintzen dituzte.

UGARTE

OÑATI

ERAIKUNTZAK

- > HORMIGOIZKO EGITURAK
- > IGELTSEROTZA
- > ZAHARBERRITZEAK
- > PROMOZIOAK

943 78 05 54

943 78 32 40

ugarte@cnes-ugarte.com



UGARTE
AROTEGIA - ALTZARIAK

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugarte-aroztegia.com



Proiektuak · Koltxoiak
Horma-Armairuak
Altzariak neurria
Ateak · Eskailerak · Leihoak ·
Tarimak · Egur lanak



Igogailuak, edozein lekutan

Igogailu eta jasotzaileen komertzializazioa, instalazioa eta mantentze-lanak egiten ditu Omega Urban enpresak

Omega Urban enpresa igogailuen sektorean 25 urte daramatzen elkarte profesionala da eta penintsula osoko hainbat probintzian egiten du lan. Hala, igogailu eta jasotzaileen jarduera komertziala, instalazioa eta muntaia egiten dute, bezeroek eskatzen duten beharretara egokituta.

KALITATEZKO ZERBITZUA

Omega Urban enpresaren helburu nagusia kalitatezko produktua eskaintzea da, zerbitzu profesionalen; edozein bezero, bizilagunen komunitate, partikular, konpainia, industria, hotel, osasun-zerbitzu eta bestelako sektoreen beharrak asetzeko. Hain zuzen, merkatuan dauden produktu onak prezio onenean eskaintzen dituzte. Hori horrela, bezeroen beharrei erantzuten diete, hori da haien ikur nagusia. Gaur egun,

zero kotako jaitsierak eta igogailuen aldaketak egiten dira, batez ere. Hala, Omegak merkatuan estandarrak ez diren irtenbideak ematen ditu goi mailako langile kualifikatuekin. Igogailu bat ezarri behar den tarte txikia bada, esaterako, posible den heinean tamaina handiko kabinak lortzen saiatzen dira sarrera hobe edukitzeko eta enpresan konfiantza

duten bezeroen bizi kalitatea hobetzeko.

ALTERNATIBA SEGURUA

Omega Urban Service zerbitzua konfiantzazko alternatiba da. Aholkularitza teknikoa eta atentzio pertsonalizatua da Omega Urbanen lagun onena. Izan ere, enpresak duen talde teknikoak hileroko egiten dituen mantentze-lanek igogailuaren funtzionamendua eta kontserbazioa hobetzen laguntzen dute, eta haren bizitza luzatu. Igogailu bakoitzaren funtzionamendu eta modeloari egokitutako plan teknikoaren bidez.

Gaur egun, esate baterako, euren alorrean duten esperientziari eta ezagutzari esker, efizientzia eta energia aurreztean murgilduta daude eta aholkua eta orientazioa eskaintzen diete igogailuetan energia aurreztu gura duten bezeroei.

"Gure helburu nagusia kalitatezko produktua zerbitzu profesionalen eskaintzea da"

CARI JORGE FLORES
KOMERTZIAL-BURUA



Omega Urban Servicen zero kotako igogailua.



ADITUAK IGOGAILUAK INSTALATZEN ETA ZERO KOTARA JAISTEN

ERAIKUNTZAK ETA BIRGAITZE-LANAK
PROIEKTUAK, BARNE DISEINUA,
ITE, CEE...

LOKAL ETA ETXEBIZITZEN ZAHARBERRITZEA
FATXADAK ETA ESTALKIAK
ENERGIA ERAGINKORTASUNERAKO SOLUZIOAK
GILTZA ESKURA ERAKO PROIEKTUAK
AURRETIAZKO AZTERKETAK KOSTURIK GABE



IGO ERAIKIN
PROJECTS

ELKANO kalea, 3 20500
ARRASATE

943798864
696159959

www.igosl.com



Prozesu osoa, proiektu bakarra

Igo Eraikin Projectsek zerbitzu osoa eskaintzen du igogailua instalatzeko lanetan, aurrekontu itxi eta zehaztuekin

Duela sei urte ekin zion Igo Eraikin Projectseko taldeak berriztatze sektorearen baitan, igogailuen instalazioan espezializatu-tako lanari. Josu Uribarren gerentea buru dutela, urteotan, eraikuntzaren mundutik datorren lantaldearen apustua "kalitatearen eta erosotasunaren aldekoa" izan da. Alor horretan, Igo Eraikin Projectsen jardunak kode teknikoak, irisgarritasun arauak eta lanen epea betetzea du ardatz.

Horrelako lanetan murgiltzen diren bizilagun komunitateek eraberritze lanen luzerarekin izan ohi dituzte arazoak, Uribarrenek azaldu duenez, urtebetetik gorakoak izatera ere iristen direlako. Hala ere, Igo Eraikin Projectsek, espezializazioaren bidez, "beste enpresa batzuekin alderatuta, epeak %50ean murriztea" lortu du, enpresaz kanpoko fak-

toreen menpe egon gabe, giza baliabideak zein teknikoak eskura dituztelako. Uribarrenen esanetan, "horixe da prozesuaren azkartasuna eta eraginkortasuna bermatzen duen formula".

Lan sinpleetatik hasi eta proiektu zabaletaraino, prozesu osoan eman beharreko pausoetan eskaintzen dute laguntza. Dena

den, "giltza eskuan" izeneko zerbitzua da gehien eskaintzen dutena. Horrela, etxejabeek hala nahi izanez gero, igogailua jartzeko lanen ardura osoa Igo Eraikin Projects-engan utz daiteke, eta, besteak beste, ez dute proiektu teknikoaz, obren zuzendaritzaz, egituren diseinuaz eta lizentzien eskaeraz arduratu behariko.



Aretxabaletako Loramendi kaleko 4. ataria, berritze lanen ostean.



Igogailua instalatzeko egindako lanak, Oñatiko Lizaur kalean.

LANKIDETZA ETA LOGISTIKA

Hainbat igogailu enpresarekin aritzen dira lankidetzan, eta bide horretatik eta ekimen pribatuetatik "eskaera handia" dutela esan du Uribarrenek: "Aurten bikoiztu egin da aurrekontuen eskaera, eta 2015erako eskaera beharra bete dugu dagoeneko". Debalde egiten dituzte lanen aurrekontuak, xehetasun osoz. Horrela, "azken fakturan sorpresarik ez egotea" bermatzen dute.

Dena den, azaldu duenez, prozesu osoan, bezeroarekiko harremanak du pisu handien. Kalitatezko emaitza lortzen saiatzen dira, diseinua eta originaltasuna bereziki zainduz, batetik, etxejabeak pozik gera daitezzen, eta,

bestetik, badakitelako egindako lanen emaitzek eraikitzen dutela enpresaren irudia.

MERKATU BERRIETARANTZ

Lantzen duten eraikuntza alorre-tik irten gabe, baina beste alor batean, eraikinen berriztatzean ere eman dituzte lehen pausoak, iraunkortasunean arreta jarrita. Eraginkortasun energetikoa helburu, etxejabeek aukera eman nahi diete euren etxebizitzak isolatu eta energia fakturretan %35 eta %40 arteko aurrezkiak izan ditzaten. Esan beharrik ez dago proiektuaz, diru laguntzen tramiteez, baldintzez eta kudeaketaz Igo Eraikin Projects bera arduratuko dela.



iker, s.l.

sukaldeak | etxea | armairuak

ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

dica®

Gelma: kalitatea eta erosotasuna

Arrasateko erdigunetik hiru minutura, baina zarata eta zirkulazio arazoetatik urrun, Bibaik hainbat etxebizitza dauzka salgai Gelman. Dena den, kokapena ez da etxe horien abantaila bakarra.

EZAUGARRIAK

- ▶ Logela bateko, bi logelako (eraikitako 79 m²) eta hiru logelako (eraikitako 112 m²) etxebizitzak eta atikoak eskuragai.
- ▶ "Goi kalitatekoak": haritzeko parketa eta ateak, aireztatutako fatxada, isolamendu bikoitza, tabike hirukoitza, etab.
- ▶ "Erosoak": Domotika, motordun pertsianak, hari musikala, etab.
- ▶ Salneurria: bi logelako etxebizitzak 175.000 euro + BEZa; eta hiru logelakoak 220.000 euro + BEZa.



Gelmako etxebizitzak.

Etxea erosteko une egokia

Krisi garaian prezioak egokitu izanak etxebizitzaren salerosketan gorakada ekarri du Bibai etxe agentziara, Gelmako etxeetan

Duela urte batzuk krisiak gogor kolpatu bazuen ere, azkenaldian hobera egin du etxebizitzaren merkatuak; Gelmako etxeei dagokienez bai, gutxienez. Bibai etxe agen-

tziako Zigor Aginagaldek hala ziurtatu du. "Azken urte erdian gure bisita kopurua asko handitu da eta nahiko jende dabil etxe bila", dio.

Baina bilatu bakarrik ez, jendeak erosi ere egiten du, Agina-

galderen esanetan. Gainera, euren kabuz ziurtatu ahal izan dute hori, une honetan, Gelmako etxebizitzaren eksklusibotasuna dutelako agentzian eta buru-belarri dabiltralako haien promozio lanetan. Horrela, urrian bertan

zortzi etxebizitza saldu dituzte, eta bigarren eskuko etxebizitzetan ere "mugimendu handitzea" sumatu dute berriz.

Halako salmentak eskuratze-ko, ordea, "miraririk" ez dutela egin azaldu du Bibaiko ardura-dunak: "Argi dago etxebizitzaren salneurriak egokitu egin behar izan ditugula, eta horrek bultzatu du jendea erostera". Hain zuzen, egokitzapen hori izan dute Bibain krisi garaian aurrera egiteko gakoak, bai etxebizitza berrien merkaturak, baita bigarren eskukoenean ere.

EROSTEKO UNEA

Hipotekei dagokienez, bankuek azken urteetan izandako jarrerara aldatu egin dela dio Aginagaldek. Esaterako, eurek %100eko finantzazioa eskaintzen dute Gelmako etxeetan, eta, ziurrenik,


horregatik, eta, noski, etxebizitzaren ezaugarriengatik, "gero eta gutxiago gelditzen dira". Hori dela eta, Aginagaldek uste du Gelmako etxe bat nahi duenak ezin duela atzeratu erosketaren erabakia.

Dena den, erabaki garrantzitsu hori hartzerakoan, ideiak argi izan behar direla esan du Aginagaldek, hori da-eta erabaki ona hartzeko gakoak. "Etxebizitza bat erostera norberak dauzkan lehenetsunak garbi izatea" aipatzen du, batetik, eta "daukaten aurrekontuarekin ezaugarri horiek bete daitezkeen jakitea", bestetik. Bada, nahi denaren eta posible denaren arteko oreka bilatze horretan, Bibai etxe agentzian urteetako esperientzian oinarritutako aholkularitza eskaintzeko prest daude gaineratu du.

SIMS
SERVIMASA
Sukaldeko altzariak eta osagarriak

BERGARA
Aitziturri 4, 193 posta-kutxa
Tel.: 943 76 19 95 Faxe: 943 76 07 49
E-posta: bergara@servimasa.com
LEZO
103 industria poligonoa
Tel: 943 52 05 00 Faxe: 943 515757
www.servimasa.com

blum
FRANKE



Birziklatzeko erraztasunak ematen dizkizugu.



Zatoz eta informa zaitez!





Antzuolako bigarren urteurreneko ospakizunetako bat. | ANTZUOLAKO GAZTETXEA

Ikasturte berrirako, funtzionamendu berria

Antzuolako gaztetxeko batzarra egubakoitzero elkartzeko da 18:00etan eta batzarrak irekiak dira

MIREIA BIKUÑA | ANTZUOLA

Ikasturte berriari ekiteko prest dago Antzuolako gaztetxea, eta, euren lana ahalik eta eraginkorrena izateko eta gaztetxearen beraren funtzionamendua zehazteko, batzarra egin zuten urrian hango ordezkariak.

Hamabost bat lagun elkartzu ziren eta gaztetxean hobetu beharreko hainbat alor zeudela adostu zuten; besteak beste, gaztetxe dinamiko izatea, jarraipena bermatzea, prestakuntza, helburu ekonomikoak, herrira zabaltzea, taldearen motibazioa eta barne antolakuntza bermatzea.

Azken horri lotuta hartu zen erabakirik garrantzitsua: ikasturte berrirako, funtzionamendu

berria izango du gaztetxeak. Aurrerantzean bi lantalde bakanrik izango ditu: komunikazio taldea eta arlo ekonomikoaz arduratuko den taldea. "Orain arte sei lantalde izan ditugu, mantentimendua, komunikazioa, elkartrukea, parte-hartzea, diruzaintza eta ikus-entzunezkoa, baina ikusi genuen ez zela oso eraginkorra horrenbeste talde izatea eta bitan uztea erabaki genuen. Aurrerantzean, komunikazioan eta arlo ekonomikoan lan egingo dugu buru-belarri", esan dute gaztetxeko ordezkariak.

Bi lantalde horietako proposamenak edo beste herritarren batek, talderen batek edo eragileren batek egindakoak batzarrean

aztertu eta onartuko dira. "Astero, egubakoitzetan, 18:00etan egingo ditugu batzarrak. Irekiak dira eta han zehazten ditugu egin beharreko ekintzak eta jarraitu beharreko pausoak. Gaztetxeko erabaki guztiak batzarretan hartzen dira", zehaztu dute gaztetxeko kideak.

Motibazioa

Gaztetxearen funtzionamendua adosteko batzarrean, talde motibazioaz ere berba egin zuten. Gaztetxearen inguruan mugitzen diren gazteendako ekintzak egin eta bultzatzearen garrantzia azpimarratu zuten.

Horren harira, motibazioa eta taldekako jarduerak egiteko pro-

DATUA

2

LAN TALDE

Horiek dira Antzuolako gaztetxeak aurrerantzean izango dituen lan taldeak: ekonomikoa eta komunikaziokoa.

posamenak egin zituzten. Hilero gaztetxean afari bat egiteko beharra azaldu zuten –lehen hilaren 12an egin zuten–, eta, taldekako jarduerak indartze aldera, aste bukaerako irteerak ere beharrezkoak direla esan zuten.

Bestalde, gaztetxeak antolatzen dituen ekintzetan ateratako argazkiak erakutsi egin behar direla adostu zuten. "Gure webgunean, *Antzuolakogaztetxia.info*-n, ikusgai daude argazkiak, baina, akaso, beste formatu baten erakutsi beharko genituzke. Herri-tarregana heltzeko beste modu bat da. Gure ekintzak herrira zabaltzeko. Nahiz eta antzuolarrak badakiten gaztetxe bat dagoela herrian eta irekia dela. Edonork ekar dezake proposamenen bat edo egin dezake iradokizunen bat", diote ordezkariak.

Kontzertuak

Urrian egindako batzarrean, bestalde, urtea bukatu aurretik egingo dituzten ekintzak adostu zituzten. Hilaren 22an bat egingo dute Antzuolaren eta Aiherraren arteko senidetzearen 30. urteurreneko ekitaldiekin. Hori horrela, egun horretan egingo duten gaubeilaren ostean kontzertua egongo da gaztetxean: D-Pintxos eta Neke Politikoa taldeek zuzeneko egingo dute.

Horrez gain, abendurako kontzertuak lotuta dituzte dagoeneko: abenduaren 26an Hiba Kusha eta Taupada taldeek joko dute eta abenduaren 27an, berriz, Europan bira egiten diharduen talde baten bisita espero dute gaztetxean. Hala ere, oraindik ez dute ordua zehaztu.

Berdintasuna landuko duen antzerkia gaur, egubakoitza

A. L. | ANTZUOLA

Gaur, egubakoitza, hilak 14, berdintasuna oinarri duen *Etzak lo hartu* antzerki-foruma izango da, 18:00etan, Olaranen.

Hain zuzen ere, Ander Azurmendi aktoreak, Patxi Perez aktorearen zuzendaritzapean, 30 minutuz gazteekin berdintasunaren inguruko lanketa egingo du. Bada, nahiz eta helduekin gazteei buruz lanketa egiteko ere balio duen, 17 urtetik gorako neska-mutikoekin genero berdintasunaren inguruko gaiak jorratuko dira antzezlanean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreal baten alde egiteko asmoz.

Ondoren foruma izango da

Edozelan ere, antzerkia ez da horretan geratuko, bigarren zati bat ere izango du eta saio horrek: antzerkiaren ondoren forum bat egingo dute, antzezlanean jorratzen diren gaiak eztabaidatzeko, hala nola maskulinitasunaren eraikuntza soziala, indarkeria matxista, bikote harremanak eta homofobia.

Karta txapelketan izena emateko epea zabalik dago

Erretiratuen elkarteak karta txapelketa antolatu du eta azaroaren 28ra arte dago izena emateko aukera. Jokatzeko egunak hauek izango dira: abenduaren 1ean puntxoan egingo dute; 2an, briskan; 3an, tutean; eta 4an, musean. Abenduaren 9rako partida guztiak amaituta egon behar dute.

Gaubeila egingo dute aurten Antzuolan, lehenengo aldiz, aihertarrekin batera

Aihertarrak Antzuolara etorriko dira euren arteko senidetzea dela-eta



Kike Amonarriz eta Pantxo Hirigarai. | ANTZUOLAKO UDALA

ANDER LARRAÑAGA | ANTZUOLA

Bi herrien arteko senidetzea bermatzeko, aihertarrak Antzuolara etorriko dira. Senidetzeak 30 urte bete ditu aurten.

16:00etan ongiatorria egingo diete aihertarrei eta ordu erdi geroago hitzarmena sinatuko dute udaletxean; ondoren, Beltzuntze elkarteari bandera emanango diote eta aihertarrek eskainitako gaztainondo bat landatuko dute. 18:00etan, gaztaina erreak jango dituzte elkarrekin eta, amaitzeko, 19:00etan, aihertarrek ospatu ohi duten gaubeila egingo da.

Amaitzeko, 30. urteurreneko eguna borobiltzeko, 23:00etan, Neke Politikoa eta D-Pintxos taldeen kontzertua egongo da gaztetxean.

Gaubeila, barre giroan

Aiherran 1992a ezkerreko egiten den ekintza garrantzitsua da gaubeila. Bete egiten da azaroaren 10ean, 11n jai izaten dutelako, bi urtean izan ezik: 2004an eta aurten. Hori horrela, Antzuolan egiten den lehen aldia da aurtengoa.

Torresoroan egingo da: alde batetik, Kike Amonarriz eta Pantxo Hirigarai Ipar eta Hego Euskal Herriaz arituko dira, algara arteko saioan; bestetik, Eneritz Zabaleta baionarrak eta Aitzol Iturbe antzuolarrak egingo dute bertsoetan, eta, amaitzeko Niko Etxart altzurükütarraren kantaldia egingo da.

Aiastui Txirrindulari Elkartearen ezohiko batzarra gaur

Antzuolako Aiastui Txirrindulari Elkartearen kideek ezohiko batzarra egingo dute gaur, egubakoitza, Antzuolako Olaran etxearekin nagusian. Lehen deialdia 19:45ean da eta bigarrena 20:00etan.

Batzarrean gai hauek jorratuko dituzte, besteak beste: elkartearen egoera ekonomikoa zein den, urteko gastu eta diru sarreraren azalpena, bazkide kuotak jasango duen igoera eta bazkide berrien bilaketa.

Hori horrela, landuko diren gaien inguruko galderei erantzuteko eta ekarpenak egiteko tartea utziko du elkarteak zuzendaritza batzordeak.



Martitzen iluntzean egin zen lehen bilera eta deituta zeuden ia bizilagun guztiak bertaratu ziren. | ARAMAIOKO UDALA

Lehen atxikimenduak etorkizuneko erregairako

Biomasa proiektua azaltzeko herritarrekin lehen bi bilerak egin dira asteon

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO
Biomasa Aramaioko etorkizuneko erregaia izateko bidean aurrerapauso garrantzitsua eman da asteon, sentsibilizazio kanpainaren hasierarekin. Hasi dira Ibarren bizi diren herritarrekin bilerak, Udala hasi da aramaioarren lehen inpresioak jasotzen: "Oso ondo joan zen lehen bilera, parte-hartzeari dagokionez ia %100era heldu ginen. Hau da, deituta zeuden ia bizilagun guztiak gerturatu ziren", azaldu du ingurumen teknikari Jon Toñak. Proiektuaren aurkezpen orokor baten egin zuten bi taldetan banatuta, euskaraz batzuentzako eta gazteleraz besteentzako.

Galderendako tartean "kezka logikoak" gailendu ziren, Toñaren arabera: "Egungo gas propanoaren fakturarekin alderatuz murriz-

keta zenbatekoa izango zen galdetu ziguten, besteak beste. Egin diren ikerketen arabera, estimazioa da %30 merkeago irtengo litzatekeela. Baina estimazio bat da, atxikimenduen menpe ere badagoena".

Sinadurak, kalkuluak egiteko
Proiektuak, bideragarria izan dadin, aramaioarren inplikazioa eta atxikimendua behar ditu orain: "Bileraren amaieran orri bat sinatzeko eskatu genien; garbi esan genuen ez dela kontratu bat, baizik eta gertu egongo ziren herritarrekin kalkuluak egiteko asmoen deklarazio antzeko bat. Sarean egongo direnen estimazio bat. Gure harridurarako, gehienek unean bertan sinatu zuten. Oso pozik gaude horregatik", azaldu du Toñak. Lehen bi saioak

egin dituzte asteon eta azaroaren 26ra bitartean beste bost bilera egingo dituzte, kaleen araberrako egutegi bat adostu ostean. Hau da, zazpi taldetan banatu dituzte Ibarrenko bizilagunak.

Proiektu estrategikoa
Udalarendako legealdi honetako "proiektu estrategikoa" da biomasa; aspalditik ari dira lanean erakundeekin diru laguntzak lortzeko, eta Euskal Energiaren Erakundearekin, adibidez, harremana ona da. Horrez gain, handia izan da Euskal Herrian zein Estatuan proiektuak piztu duen interesa.

Izan ere, proiektua gauzatzen bada, Aramaio lehen herria izango litzateke herri-gune oso baterako -hasieran Ibarren jarriko da- energia iturria biomasa izaten.



PILOTA ELKARTEA

Ikuskizun polita izan genuen pilota finaletan

Domekan jokatu ziren San Martin pilota txapelketako finalak. Oro har, esan daiteke ikuskizun polita izan genuela eta bi txapel, behinik behin, etxean gelditu zirela. Dena den, herriko zenbait pilotarirengan, zaletasuna ez ezik, dohainak badituztela garbi ikusi zen, eta horrek aurrera segitzeko indarrak eta animoak ematen dizkigu. Ea datorren urtean txapelketa hobea eta arrakastatsuagoa antolatzeko gai garen.

KOMUNITATEA GOIENA
PILOTA ELKARTEA | ARAMAIO

NIRE USTEZ

SONIA ETXENAUSIA



Burujabetasuna

Azkenaldi hontan *burujabetza* kontzeptue darabilgu bueltaka: *elikadura burujabetza*, *burujabetza energetikue*, *burujabetza politikue*... Baiñe motz geratu jat, bizitzan ziherr, burujabetza pertsonala proposatzen dien aldixek. Hau da, norberaren osasunaren, harremanaren eta energixaren kudeaketaren erreginek edo *soberanoak* izetien proposamenak.

Elikadura burujabetzara nekazari eta kontsumitzaile burujabiekin helduko da, baiñe egoeriek politikari burujabien borondate eskaketan dau. Bertako produktu jasangarrixen kontsumitzailliek izen gure dauienak ekoizliok baiño gehi-

xau gare. Eta egoera hori ez bada bardinketan, gatxa ikusten dot datorren datue aldaketie: "Euskaldunok jaten douen %4 bakarrik ekoizten da Euskal Herrixen". Beraz, elikadurari dagokixonez menpekotasun egoera latzien bizi gare.

Ortuzaliek eta nekazari txikiñek biher dittugu, argi dau. Baiñe ze baldintzetan? Ze lurretan? Horregaittik, proposatzen dou lur emankorrek erabilgarri egon daixiela. Eta baserrixek, heziketandako, ingurugiruen zaintzandako, osasunandako eta gure sustarren ongarrireko zentruiek izen daixiela. *Toma ya!*

Eta zergatik ez ibilli negue barrure begiketako eta norberaren burujabetasune lantzeko? Etorriko da-eta udabarrixe kanpora begittute loraketako.

"Ortuzaliek eta nekazari txikiñek biher dittugu"



MARISOL RAMIREZ

Kapanaga, "euskararen giltza"

Bittor Kapanaga (Otxandio, 1925-2011) urte luzez bizi izan zen Oletan. Bada, azaroaren 7an aurkeztu zuten Juan Martin Elexpuru idazle bergararrak landu eta Gerediaga elkarteak argitaratu duen *Euskera erro eta gara* liburua: "Euskararen sekretu askoren giltza da liburua. Euskal hitz zaharrenen osaketan parte hartzen duten oinarrizko erroak, haien esanahiak, gure hizkuntzaren historiaren eta garabidearen lortzak eta beste hainbat gai jorratzen ditu Kapanagak ikuspegi zorrotz eta originalez", dio Elexpuru bere blogean.

Iturralde baserriko proiektua ezagutzeko aukera egongo da bihar, bertako produktuen dastatzearekin

Oraingo, hamar bat lagunek eman dute izena; Azkoagako plazan elkartuko dira, 11:00etan: "Plana da Rakel eta Divinaren Eguzki okindegia bisitatzea, Iturralde baserriko animaliak, lurrak, barazkiak eta beste produktu batzuk ezagutzeko eta bertako produktuak dastatzea", diote. Izena emateko azken eguna da gaur, 21:00ak baino lehen; honako telefono zenbaki honetara deitu: 653 71 52 58.

OHARRAK

'THE VISITOR' FILMA

Kulturarteko bideo forumaren barruan, Thomas McCarthyk zuzendutako *The Visitor* filma ekarriko du Udaleko Kultura Sailak. Domekan izango da emaldia, kultura etxean, 18:30etik 21:30era.

1959AN JAIOTAKOAK

Azaroaren 29an Eki tabernan elkartuko dira, 11:00etan, eta gero Unzueta sagardotegian bazkalduko dute. Izena eman behar da hilaren 23a baino lehen: Anus ile-apaindegira jo edo 670 43 16 62 telefonora deitu (Ana).

ELGETA

Bi domeka, orain, lehiaketako sei pintxo goxoenak dastatzeko

Bezeroen botoak hartuko dituzte kontuan publikoaren saria erabakitzeko

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Haizea taberna irabazi du Elgetako VII. pintxo lehiaketa. Domekan jokatu zen, eta epaimahaiak erabaki zuen olagarro-pintxo gazi-gozoa zela lehiaketara aurkeztutako hamabi pintxoarten goxoenak. "Etxeko andreana da meritua", aitortu du Haizeako Xabier Ezpeletak. "Irabaztea baino gehiago, helburua zen ondo salduko zen pintxoak gertatzea. Eta oso ondo saldu genuen".

Pozik da Ezpeleta pintxo lehiaketarekin. "Ekimen ona da. Giroa sortzen du herrian, jendea era-



Xabier Ezpeleta, Irargi biloba eta Bittor Gallastegi saria jasotzen. | L.Z.

kartzen du, eta ondo saltzen dugu", azaldu du.

Hurrengo bi domeketan —hilak 16 eta 23— pintxo bakarra eskainiko dute ostatu bakoitzean; lehiaketan puntuazio onena lortu duena. Publikoaren saria dago, orain, jokoan eta bezeroek erabakiko dute boto bidez. Pintxoak dira olagarro gazi-gozoa (Haizea), landa pasioa (Bolatoki), mendrezka eta aza gozo tosta (Maialde), hostopila buztan-okelaz beteta (Iñaki), txanogorritxu (Patxi), eta independentzia (Espaloia).

Bergarako trikitilariak giro-tuko dute, domekan, eguerdiko txikiteoa. Bi domekaren ostean, tabernariak bi lagunendako otordua zozketatuko dute boto-emaitzen artean. Pintxoaren osagaiak asmatzeko lehiaketa ere martxan da; asmatzaileen artean bina botila ardo zozketatuko dituzte taberna bakoitzean.

Martitzenetik aurrera txipen eta kuboaren banaketa

L.Z. | ELGETA

Udalak aditzera eman du abenduaren 1ean ipiniko dutela martxan hondakinak batzeko sistema berria. Asteon hasi dira enpresetan eta komertzioetan kuboak banatzen, eta datorren astean egingo dute etxebizitzetako banaketa. Bakoitzean, hondakinen hiztegi bat, bi kubo —marroia eta grisa— eta txipa banatuko dituzte. "Ekarpen-guneak prest daude. Txiparekin zabalduko diren edukiontzi grisak eta marroiak falta dira, eta abenduaren 1erako ekarriko ditu Mankomunitateak", esan du Oxel Erostarbe alkateak.

PILOTA TXAPELKETA

AZKEN EMAITZAK

Jabier Bolinaga-Jose Mari Zubiaurre / Koldo Goenaga-Fernando Zenitagoia	22-14
Iñaki Ugarteburu-Gorka Bolinaga / Iker Irazabal-Jabier Larrañaga	22-11
Iban Retolaza-Diego Cantabrana / Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarieta	22-19
Mikel Ormaetxea-Koldo Erostarbe / Iñaki Olaortua-Oskar Sarasua	22-20
Ibon Untzetabarrenetxea-Mikel Beretxinaga / Oskar Askasibar-Haritz Gallastegi	22-12

GAUR, BARIKUA, 19:00ETAN

Koldo Erostarbe-Mikel Ormaetxea / Oskar Askasibar-Haritz Gallastegi
Anjel Ibarluzea-Alberto Telleria / Iñaki Ugarteburu-Gorka Bolinaga
Jabier Larrañaga-Iker Irazabal / Jabier Bolinaga-Jose Mari Zubiaurre
Oskar Sarasua-Iñaki Olaortua / Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarieta
Mikel Beretxinaga-Ibon Untzetabarrenetxea / Iban Retolaza-Diego Cantabrana

Oihulari Klown taldeak laga egin du kafe antzokiaren kultura kudeaketa

L.Z. | ELGETA

Proiektuak energiaz beteriko lantaldea eskatzen duela azaldu dute Jose Carmelo Muñozek eta Virginia Imazek, eta erabakiaren atzean "familia gertaera oso larriak" daudela jakinarazi dute ohar bidez. "Aretotik zein Udaletik aurrera egiteko animoak eta babesak jaso ditugu

uneoro", esan dute. "Onena opa diegu lekukoa hartuko dutenei".

Sebastian Rodriguez da Elgetako Udalak egindako kafe antzokiaren esleipenaren onuraduna, eta proiektuarekin aurrera egiteko asmoa agertu du. Oxel Erostarbe alkateak hauxe adierazi du: "Espero dugu esleipen-baldintzak betetzea".

OHARRAK

PODOLOGOA

Hilaren 20an, eguna, izango da azaroko kontsulta. Txanda hartzeko, deitu 943-76 80 77 telefono zenbakira.

AUTODEFENTSA TAILERRA

Hilaren 21ean amaitzen da izen-emate epea. Emakumezkoendako saioa da eta hilaren 29an egingo dute, 09:30etik 13:30ra, psikomotrizitate gelan.

LEINTZ GATZAGA

Ehunka bisitariren esperoan domekan

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Etzi, domeka, da eguna. Eskualdeko eta urrutiragoko askok Gatzaga bisitatzeko aprobetxatzen duten eguna: San Milixan azoka. "200-300 bat bisitari izan ohi ditugu", eta, eguraldiak zeresan handia izango duen arren, hortik gertu ibiliko den kopurua espero dute gatzagarrek azaroaren 16 honetarako.

Eskuzabalik eta hilabeteetako lanaren emaitza konpartitzeko gogo biziz hartuko dituzte. Hori bai, eskaera pare bat egin gura diete: bata da autobusez joan daitezela, Gatzagan ez dago-eta

aparkatzeko lekurik. Bide hori errazteko, doako zerbitzua jarriko du Udalak, Eskoriatzatik abiatuta azokak iraun bitartean.

Eta bigarren eskaera da azokan ibiltzeaz gain, bertan kontsumitu dezatela, jakina.

Txirindulariak

Bestalde, udalerriko hainbat elkarrek San Milixan azoka aprobetxatzen dute, erakusleho modura. Horietako bat da Dorleta Txirindulari Elkarteak. Besteak beste, elkartearen altxorrek erakusteko postua jartzeaz gainera (maillot eta bizikleta histori-

koak...), urtean antolatzen dituzten bi lasterketen finantzazioan laguntzeko txartelak saltzeko aprobetxatzen dute domekako eguna. Bi euroren truke txartela erosten dutenek bi sariren zozketan parte hartuko dute: 300 euroko balioa duen otarrea (lehen) eta Gure Ametsa jatetxean bi lagunendako otordua, hain zuzen ere.

Gurasoak

Zozketa egingo dute, baita ere, Gurel guraso elkarteko ordezkariak. Kasu horretan, kalabaza baten pisua asmatzea da proposatzen dutena, Gatzagan sortu gura duten eskola txikiaren proiektuaren aldeko sinadurak batzeaz batera. Hain justu, ekimen horren gaineko informazioa herriarrek eta bisitariarrek partekatuko jarriko dute postua.

Atal fisikoa zein emozionala

"Espazio bitala eta mugak jartzen jakiteko ariketak egingo dira jarrera landuz; atal fisikoaren elementuak, emozioak eta maitasun erromantikoa landuko dira, eta amaitzeko, gorputza, autoestimua eta elkartasuna lantzeko dinamikak egingo dira", iragarri dute tailerra dinamizatuko duen Emagin Elkartetik.

Ander Arana | Margolaria

"Leintz Gatzaga nire herria da; beraz, berezia da niretzat"

U.M. | LEINTZ GATZAGA

Tinta txinatarraren antzerako teknikarekin landutako marrazkiak ikusgai jarriko ditu Ander Aranak (Basauri-Leintz Gatzaga, 1998) etzi, domeka, kultura etxean, San Milixan azoka baliatuta.

Zer ikusiko dugu?

18-19 marrazki, batzuk markoztatuta, eta beste batzuk arbel batean jarrita. Paisaiak dira: hondartzak, mendiak, lautadak... Tintadun boligrafo batekin egingo dira.

Nongo paisaiak dira?

Famatuak, asmatutakoak... Adibidez, margotu nuen Everest, Udalatx egiten ahalegindu nintzen baina ez zitzaidan ondo irten, K2... marrazkietan jartzen du ze toki diren. Batzuk nik egingo argazkietatik kopiatutakoak dira, eta beste batzuk Internetetik hartutakoak. Bat 2013koa da eta besteak, 2014koak.

Gatzagan erakutsiko dituzu; aurrerago beste nonbait ere bai?

Akaso, datorren udan saiatuko naiz beste nonbait zerbait jartzen, baina hori espekulazioa da.

Beraz, zure marrazkiak ikusteko aukera bakarra Gatzaga da. Berezia da zuretzat?

Nire herria da, beraz... Apur bat urduri banoa, bai. Nire lagu-



Ander Arana. | EDORTA ARANA

nak-eta joango dira, baina badaukat kuriositatea jakiteko zer pentsatzen duten nire lanaz.

Zer dela-eta aukeratu duzu teknika hori zure lanetarako?

Londresen paseatzen, ama eta biok denda japoniar batera sartu ginen; aspaldi nahi nuen boligrafo fin-fin bat margotzeko, eta han erosi genuen. Lorik hartu ezin nuen gau batean hura hartu, margotzen hasi eta ondo irten zitzaidanez, segitu egin nuen. Gurasoek ikusi zutenean nahiko ondo zeudela, esan zuten toki ezagunak edo gure ingurukoak... izan behar zutela, lana pertsonalagoa izateko. Eta hortxe emaitza.

Autodefentsa tailerrerako izen-ematea zabaldu dute

U.M. | LEINTZ GATZAGA

Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren bueltan (azaroaren 25a), Autodefentsa Feminista Tailerraren bigarren zatia antolatu du Bideberri Mankomunitateak. Hain justu, iazko tailerraren jarraipena izango da.

Tailerra azaroaren 29an izango da, eta Gatzagako emakume

guztiak gonbidatu dituzte bertan parte hartzera, iaz tailerlean egon ez zirenak ere bai.

Lau ordu iraungo du ikastaroak: 09:30etik 13:30era bitartera; kultura etxean izango da, eta doan da ekimena. Hori horrela, komeni da izena ahalik eta lasterren ematea, 943-71 47 46 telefonora deituta edo udaletxera bertara joanda.

Andoni Larrabe arrasatearrak 1.308.339 euro irabazi ditu Main Event torneoan

Seigarren postuan geratu da munduko poker txapelketa entzutetsuan

IMANOL BELOKI | ARRASATE

Andoni Larrabe *Pollopopye* seigarren postuan geratu da Las Vegasen jokatu den Main Event munduko poker txapelketa entzutetsuan. Bada, seigarren izanda, 1.308.339 euro irabazi ditu (hamar milioi dolar zeuden irabazlearendako).

Bere lagun Xabier Martinezek esandakoaren arabera: "Finalean egindako lanarekin oso pozik dago Andoni. Zortea faktore oso garrantzitsua da pokerrean, eta, Larrabek esku batzuk zalantzan izan zituen arren, oso pozik dago". Gainera, txapelketako gazteena izan da Larrabe, 22 urterekin, eta, hain maila handira helduta, "lehen postua lortu ez izanaren pena du, behin maila horretako txapelketara helduta ia ezinezkoa baita. Baina irabazi duen dirutzarekin, ospatzeko gogoz dago, oso animatuta".

Las Vegasen Pen&Teller Theatre hasi zuen txapelketa arrasatearrak gurasoen eta lagunaren babesarekin. Eta, nola ez, zortea ematen dion Athleticeko kamisetarekin. Hala eta guztiz ere, Larrabek agur esan zion txapelketari. Lehenago Pappas gainditu zuen Arrasatekoak, baina, egoera larrian geratuta, Jorryt



Andoni Larrabe, poker-mahaian kontzentratuta. | POKERSTRATEGY.COM

Van Hoof-ek txapelketatik kanpo utzi zuen. Hala eta guztiz ere, izugarritzko txapelketa egin du arrasatearrak, baina horraino iritsi da. Pena da aurrerago salto egin ezin izana. Izan ere, txapelketa hori irabaztea ez da 10 milioi dolar bakarrik irabaztea, istorian sartzea ere bada.

Elkartasun bideoa

Txapelketa hasi aurretik, munduko hainbat lekutatik elkartasuna adierazi zioten Larraberri bideo baten bitartez, *Andoni Larrabe #HazHistoria* izenpean.

Bertan, poker jokalariek, lagunak, haren gurasoek eta baita Athleticeko Iraola eta Gurpegi jokalariek ere babesa eskaini zioten.

Sari potoloa, Suediara

Hasi ziren bederatzietatik, 10.000.000 dolarreko sari potoloa irabazi duena Martin Jacobson suediarra izan da, urrezko beso-koarekin batera. Bigarren postuan, berriz, Felix Stephens norvegiarra geratu da, 5.147.911 dolarrekin, eta hirugarren postuan Jorryt Van Hoof holandarra geratu da, 3.807.753 dolar irabazita.

Derbia erregional preferenteko Aretxabaletaren eta Mondraren artean, domekan, Ibarren.

Aurreko jardunalditik hona, ez da aldaketa handirik izan sailkapenean. Aste bukaera honetan, berriz, hamargarren jardunaldia jokatu da: Antzuola-Martutene, Ordizia-Aretxabaleta, Hernani-Aloña Mendi eta Hondarribia-Bergara. Erregional Preferentean, berriz, derbia izango da Ibarren domekan, Aretxabaleta B eta Mondra taldeen artean. Bi taldeak garaipenarekin datoz aurreko jardunalditik, seigarren postuan dago Aretxabaleta eta zazpigarrenean Mondra. Ez da derbi bakarra izango, izan ere, bihar, zapatua, emakumezkoetan ere derbia izango da Mondraren eta Arizmendiren artean, Mojategin.

EBA mailako MU Donostiara joango da bihar, Easoren kontra ligako hirugarren garaipena eskuratzeraz

EBA mailako MU taldeak 77-68 irabazi zuen etxean aurreko jardunaldian. Oraingoan, aldiz, etxetik kanpo jokatu beharko du, Easoren aurka, Donostian. Sailkapenean hirugarren postuan daude donostiarrak, eta ez da partidu erraza izango Larreategiren mutilentzat. Bigarren mailako Natra-Oñatik, berriz, etxean jokatu du, Cafes Aitona Askatuak taldearen aurka. Aurreko jardunaldian galdu bazuten ere, hirugarren postuan daude sailkapenean eta garaipena lortzeko gogor borrokatuko dira. Partidu hori Zubikoan jokatu da, 18:00etan.

Aurreko postuengatik borrokatzeko puntuen bila joango dira Ford Mugarrikoak Kantabria aldera

Ford Mugarri eskubaloi taldea bigarren postuan dago sailkapenean, eta, jardunaldi honetan, hirugarren postuan dagoen Santofñaren aurka lehiatuko da. Arrasatearrak, etxetik kanpora jokatu arren, motibazioz joango dira Kantabriara; izan ere, aurreko jardunaldian 29-34 irabazi zion Beti-Onak taldeari eta Santoñak, berriz, Ucin Aluminio Usurbilen aurka 32-30 galdu zuen. Senior mailako Bergara taldeak, aldiz, Txikipolit ZKE taldearen aurka jokatu du etxetik kanpora. Garaipena lortu beharko dute bergarrek azken postuetatik irteteko. Izan ere, aurrekoan, puntu bategatik galdu zuten Corazonistasen aurka.



100 €* irabazi nahi?

PARTE HARTU LEHIAKETAN!

Azaroaren 19tik aurrera



badagogauzazailagorik



Badago hizkuntza-ohiturak aldatzea
baino gauza zailagorik.
Arrasaten, euskaraz.



Arrasateko
euskalgintza

* Saria Ibai-Arteko dendetan erabiltzeko
100 euroko bonua izango da.

MUSHING-A

Atletak eta txakurrak batera ibiliko dira lehian Gorlan

Euskadiko II. mushing txapelketa egingo dute bihar eta etzi; hainbat modalitatetako lasterketak egingo dituzte, denak txakurrekin

XABIER URZELAI | ARRASATE

Asteburuan jokatuko dute Gorlako mushing txapelketa, eta, gainera, Euskadiko Txapelketa absolutua izango da. Hala, zapatuan -16:00etan hasita- federatuendako lasterketak egingo dituzte eta domekan -10:00etan hasita- federatuz gain herri mailako kirolariek ere parte hartu ahal izango dute.

Iaz egindako lehenengo edizioa arrakastatsua izan zen, eta orduan eguraldiak ez zuen bate-re lagundu. Asteburuan, berriz, ona dator: "Eta gainera, aurten gure lasterketak ez du mundialaz bat egiten, eta aurreikusten dugu parte-hartzaile kopuru polita

etorriko dela. Burgosen, esaterako, 150 lagun inguru batu ziren", adierazi du antolatzaileran lanetan dabilen Maribi Berraondok.

Lau modalitate

Bai zapatuan eta bai domekan lau modalitatetan banatuko dituzte lasterketak: txakur-krosa, bi txakurrekin tiratutako patinak, txakur batekin tiratutako bizikleta eta lau txakurrekin gidatutako gurdia (5 kilometroko zirkuituan). Eta, domekan txakur krosa 7.5 kilometroko zirkuituan egingo dute: "Txakurrekin tenperatura baxuak behar dituzte ondo moldatzeko, eta baliteke zapatuko beranduago hasia".



lazko txakur krosa. | J. DOMINGO

PILOTA

Eskoriatzan beharrean, kanporaketa Oñatin

IRATI GOITIA | OÑATI

Xalak atzerapena eskatu eta gero, joan den asteburuan Eskoriatzan jokatzekoa zen Lau t'erdiko Txapelketako partidua Oñatin jokatu dute gaur, egubakoitza (22:00).

Hala, eguaztenean egin zuten pilota aukeraketa, Zubikoan.

Xala, zalantzekin

Lekunekoak aitortu moduan, oraindik zalantzak ditu bere sor-

baldekin, baina partidurako prest egotea espero du: "Astelehenetan joan nintzen probatzera eta sentsazio nahiko txarrekin bukatu nuen entrenamendua. Gaur ematen du hobeto nagoela, baina, oraindik mina sumatzen dut".

Retegiren kontrakoa irabaziz gero finalerdietan izango da Xala; Julen Retegik, ordea, ez du ia aukerarik. Hala ere, norgehiagoka irabaztera irtengo da pilotalekura, eta lortuz gero garaipen horrek Saralegiri egingo lioke mesede.

Mendizabal eta Rezusta

Jaialdiko partidua nagusiaren aurretik, Mendizabal antzuolarrak eta Rezusta bergararrak Lasaren eta Cecilioaren aurka neurtuko dituzte indarrak.



Retegi eta Xala, eguaztenean, Oñatin. | IRATI GOITIA

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONALA

Antzuola-Martutene

Zapatua. 15:45. Antzuola.

Ordizia-Aretxabaleta

Zapatua. 16:00. Altamira.

Hernani-Aloña Mendi

Zapatua. 16:30. Hernani.

Hondarribia-Bergara

Domeka. 15:30. hondarribia.

ERREGIONAL PREFERENTEA

Aretxabaleta B-Mondra

Domeka. 16:30. Ibarra.

LEHEN ERREGIONALA

Arizmendik atsedena

Bergara-Soraluze

Zapatua. 17:30. Ipintza.

EMAKUMEZKOEN ERREG.

Eibar-Bergara

Domeka. 15:30. Eibar.

Mondragon-Arizmendi

Zapatua. 15:30. Mojategi.

ARETO FUTBOLA

EUSKAL LIGA

Eskoriatza-Uxo

Zapatua. 18:15. Manuel Muñoz.

GAZTEEN OHOREZKO MAILA

Rivera de Navarra-Eskoriatza

Zapatua, zehaztu barik, Tuter. GIPUZKOAKO BIG. MAILA

Gure Txokoa-Mondrate

Gaur. 20:30. Bera.

ESKUBALOA

LEHEN NAZIONAL MAILA

Santoña-Ford Mugarri

Zapatua. 17:30. Kantabria.

SENIOR GIZONEZKOAK

Bergara-Txikiopolit

Zapatua. 19:30. Labegaraiaeta.

SENIOR EMAKUMEZKOAK

Aloña Mendi-Leizaran

Zapatua. 16:30. Zubikoa.

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Izarraitz Aloña Mendi-Elgoibar

Domeka. 12:00. Zubikoa.

SASKIBALOA

EBA MAILA

Easo-MU

Zapatua. 20:00. Donostia.

SENIOR GIZONEZKO 2. MAILA

Natra Oñati-Cafes Aitona

Zapatua. 18:00. Zubikoa.

SENIOR GIZONEZKOAK

MU-Viento Sur

Egubakoitza. 20:00. Musakola.

Soraluze Bergara-Oiarso

Zapatua. 17:00. Bergara.

EMAKUMEZKO SENIORRAK

Eskoriatza-Alde Zaharra

Gaur. 20:15. Manuel Muñoz.

ERRUGBIA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Kanpanzar Arrasate-Arratiko

Zapatua. 16:00. Mojategi.

MUSHING

EUSKADIKO TXAPELKETA

Zapatuan, federatuak

16:00. etan hasita.

Domekan, denak

10:00etan hasita.

ESKU PILOTA

FEDERATUAK, GAUR

Bi partidua Bergaran (19:30)

Partidu bat Arrasaten (20:30).

PROFESIONALAK, GAUR

Lau t'erdiko txapelketako

jaialdia.

22:00, Oñatiko Zubikoan.



ATLETISMOA

ANTXINTXIKIA

3.549 euro Dordokarendako

Hilaren 2an ospatu zuten Antxintxika Eguna, eta krosarekin batera Dordoka taldeari diruz laguntzeko jaialdia egin zuten arratsaldean, frontoian. Bada, jaialdi arrakastatsua izan zen, eta 3.549 euro batu zituzten. Argazkian, Aitor Rementeria Aritz Bikuñari batutako dirua ematen.

SAIO BERRIA

Gipuzkoa Pedalka

Gipuzkoan, bizikletaz eta bizikletagatik

Julen Iriondok aurkeztuta

► Eguaztena, 22:00

BABESLEA:

GOIENA TELEBISTA

Bertakoa eta sasoiak

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behe, ez / 943 77 13 34

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealdea 2 behe ezk. / 943 76 80 06

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6 behe

620 12 48 43 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO - BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11

943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ez / 659 58 66 89

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKOLOGOAK

ARKAITZ IRAZABAL PSIKOLOGO KLINIKOA

Bergara / 646 06 28 18

arkaitz.irazabal@gmail.com

GARMENDIA LANDER

PSIKOLOGO KLINIKOA - PSIKOTERAPEUTA

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86 / 669 10 13 93

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA

(AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe

943 76 11 38 / 639 23 57 53.

KULTURA



Izaskun Murgia Elkarte Liriko kideak *La rosa del azafrán* zarzuelaren domekako entseguan. | OIHANA ELORZA



Ruth Osinaga (Sagrario) eta Mertxe Salaberri (La Custodia). | O. E.

Gizarte klase ezberdinetako maitasunaz, zarzuela alaia

- ▶ 'La rosa del azafrán' obraren lau emanaldi izango dira Amaia antzokian
- ▶ Izaskun Murgia elkarteak David Artzamendiri eskainiko dio aurtengoa

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE
Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak martxoan hasi zen *La rosa del azafrán* zarzuela prestatzen. Aurrekoetan moduan, arloka hasi ziren lanean: arlo musikala landuz, alde batetik, eta eszena edo antzerki arloa prestatuz, bestetik. Ekainean bildu ziren partaide guztiak lehenengoz, elkarrekin lehenengo ekinaldia egiteko. Iraila ezker, taldekako asteroko bi entseguez gainera, domeketan talde guztia bildu izan da, zarzuela osoa elkarrekin lantzeko helburuarekin.

Hilabeteetako prestaketa lanak eginda, ilusioz eta irrikaz daude elkarte lirikokoak hamabosgarren zarzuela jendaurrean erakusteko. Lau emanaldi egingo dituzte bi asteburutan banatuta. Sarrerak 18 eurotan salgai daude Amaia antzokiko leihatilan, eta, bestela, *on line* honako helbide hauetan: Arrasate-mondragon.org eta Ticket.kutxabank.es.

Jacinto Guerreroren beste bat Arrasatekoek ondo ezagutzen dute *La rosa del azafrán* zarzuelaren egilea, aurrez egin izan dituzte-eta harenak diren *Gavilanes* eta *El huésped del Sevillano* obrak. Oraingoaren, libretoaren egilea Guillermo Fernandez-Shaw da.

Lope de Vega idazlearen *El perro del hortelano* obraren moldaketa libre bat da. Gaztela-Mantxan dago kokatuta, izenburuak adierazten duen moduan, azafraí lorea jasotzeko garaian. Gizarte klase ezberdinetako bi amorantzeren istorioa du aurtengoak ardatz: Juan Pedro ortuzaina (Igor Ganboa) eta Sagrario etxaldeko jabea (Ruth Osinaga) dira protagonista nagusiak. "Klase ezberdinetakoak izanik, ezinezko maitasun istorio bat da; elkarrekin egon ahal izateko, gezur bat asmatuko dute: Juan Pedro gerrako zaurien ondorioz burua galduta duen Don Generoso (Luis Okina) herriko pertsonaia bitxiaren semea dela. Istorioaren alde serioa da hori, baina alde komikotik ere asko du zarzuela horrek", azaldu du Tere Gonzalez zuzendariak.

100 lagunetik gora kantuan
Arrasateko elkarteak aurrez egingo dako zarzueletako bakarlariak aukeratu ditu zuzendariak, haren esanetan, ezin du-eta pertsonaia bakoitzean nahi duen abeslaria jarri; hau da, Juan Pedro baritonoa bada, paper horretan ahots baritonoa jartzera behartuta dago. Era berean, zaila da kantu-eskola beretik pertsonaia bakoitzeko

aukera bat baino gehiago izatea. Aukera zabalagoa du pertsonaia komikoetarako. Honako hauek dira, bada, aurrez aipatutakoekin batera, aurtengo protagonistak: Catalina (Cristina Cubillo), Moniquito (Mikel Izurrategi), La Custodia (Mertxe Salaberri) eta Carrauca (Arkaitz Garrido).

100 lagun inguruko abesbatzak eta Arrasate Musikaleko orkestrak osatuko dute taularen gaineko taldea. "Oso kantu politak ditu abesbatzak eta asko gozatzen ari dira. Aurrekoetako partaideak dira gehienak, neska abeslari berriak badaude ere", esan du Tere Gonzalezek.

TERE GONZALEZ | IZASKUN MURGIA ELKARTE LIRIKOKO ZUZENDARIA

"Egiteko konplikatu da, baina entzuteko, berriz, oso polita; kantu ezagun asko ditu"

Estreinaldirako astebete falta da, eta gustura da Izaskun Murgia Elkarte Liriko zuzendaria azkeneko entseguetan ikusi duen emaitzarekin.

La rosa del azafrán lana aukeratu duzu aurten; zergatik?

Gure taldeari ondo datorkion obra aukeratzeko saiatzen naiz beti; ezinbestekoa ikusten dut obran abesbatza izatea, guztiok parte hartzeko zarzuela egin gura dugulako.

Zuretzako obra berezia dela diozu. Horrela da, bai; txikitatik sarritan entzun izan dudana zarzuela da; baina, begira, hamabosgarrena egin arte, ez dut aukeratu. Ez dakit zergatik, baina oraintxe heldu zaio momentua. Gehien interpretatu izan den zarzuela da.



GOIENA

Musikalki nolakoa da?

Bi ekinalditan banatuta dago. Melodia edo kantu ezagunak ditu; apustu egingo nuke ikustera datozen askok eza-gutuko dituztela, nahiz eta jakin ez

DATUA

15

ZARZUELA

La tabernera del puerto obra izan zen 2000. urtean Elkarte Lirikoak egin zuen lehenengoa. Aurtengoa hamabosgarren lana da.

BI ASTEBURUTAN, LAU EMANALDI

Azaroak 22, zapatua: 19:30.

Azaroak 23, domeka: 19:30.

Azaroak 28, egubakoitza: 20:00.

Azaroak 29, zapatua: 19:30.

zarzuela horretakoak direla. Errepikatzen diren zatiak ere badaude. Orokurren, obra konplikatu da; kantarako pasarte zailenak Sagrario eta Juan Pedorenak dira. Orkestrarentzako, berriz, obra osoa da konplikatu.

David Artzamendiri eskaini dizkiozue aurtengo lau emanaldiak.

Aurtengo urtarilean hil zen 99 urte zituela; parrokiako organista moduan ezagutu izan dut beti. Musikarako bizi zen. Juanito anaiarekin batera 50eko hamarkadako Arrasaten zarzuelen bultzatzaile nagusia izan zen. Urte batzuk geroago, Izaskun Murgia Elkarte Lirikoek hartu genien lekukoa. Ze gutxiago, bada, Juanitori bere garaian egin genion moduan, Davidi ere omenalditxoa egitea. Aurtengo emanaldi guztiak David Artzamendiren omenez egingo ditugu. Omenaldi xumea izango da; emanaldi bakoitzaren sarreran egiten dudana aurkezpenaren haren aldeko aipamena egingo dut.

Kulturgintzaz hausnartzeko gunea eta Ahotsenea bi karpatan, Durangoko Azokan

Aurten ere zortzi gune izango ditu 49. edizioa beteko duen Azokak

A. A./T.M. | ARRASATE

Abenduaren 5etik 8ra izango da Durangoko Azoka; 49. edizioa da aurtengoa. Landakoguneaz gainera, aurrekoetan moduan, Durangoko hainbat txokotan banatuko dituzte azokaren zortzi guneak: Areto Nagusia, Ahotsenea, Szenatokia, Kabi@, Saguanbara, Plateruena, Irudieneta eta Azoka Telebista. "Hori guztia, 700 metroren barruan eta bost minutuko distantzian", azaldu zuen Nerea Muxikak, Gerediagako presidentea, eguaztenez egindako aurkezpenean. Aurtengo edizioan nobedadeak izango dira guneetan: Areto Nagusian eta Ahotsenean, bereziki.

Areto Nagusia: Gogoeta Plaza
Landakoguneko Areto Nagusia ohiko liburu eta bestelako proiektuen aurkezpenak egiteko lekua izateaz gainera, Azokaren bultzatzaileek Gogoetaren Plaza bihurtu gura dute, euskal kulturaz jardun, eztabaidatu eta hausnartzeko espazioa, hain zuzen ere. "Azken baten, non gauden eta norantz goazen azterteza da helburua hiru gai hizpide hartuta: hizkuntzaren hautua, sostengu ekonomikoa eta transmisioa", gaineratu zuen Muxikak.



Zortzi guneetako arduradunak eguaztenezko aurkezpenean. | TXOMIN MADINA

Eguneko hiru saio egingo dituzte, eta hiru formatutan: elkarriketa pertsonala, bi lagun arteko solasaldia eta mahai-ingurua. Izen ezagun ugari hartuko dute parte bertan, besteak beste: Fermin Muguruzak, Maialen Lujanbiok, Bernardo Atxagak eta Laura Mintegik.

Ahotsenea, bi karpatan
Sortzaileen aldetik izan duten eskaria kontuan hartuta, bat beharrez bi karpa izango dira. "Kontzertuetarako izango da karpa bat, aurrez aurre bi agertoki

izango dituen. Bestean, berriz, liburuen eta diskoen aurkezpenak egingo dituzte", azaldu zuen Lutxo Egjak, Ahotseneako arduradunak. Denera, 55 kontzertu eta 35 solasaldi egingo dituzte.

Azoka Telebistan, platoa
Goienak kudeatuta Azoka Telebista egongo da aurten ere. Berrikuntzak dira plato bat jarriko dela eta publikoarekin elkarrenergina sustatuko dela. Egunean bi magazine eta Amaia DJrekin musika saioak eskainiko ditu, besteak beste.

'Txo, mikmak txikia' ikuskizun berria izango da Eskoriatzan

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek ikuskizun berria estreinatuko dute Eskoriatzako Manuel Muñoz kiroldegian. Azaroaren 22an izango da, zapatua, 17:30ean, eta, oraingoan, *Txo, mikmak txikia* ikuskizunarekin etorriko dira.

Itsasoaren bestaldetik iritsi den indiarra aurkeztuko dute: Txo mikmak indiarra. Baita egurrezko ametsak esna egiten dituen Aitona Roke arotza ere. Biak Pirritx, Porrotx eta Marimototsekin batuko dira mundua aldatzeko plana egiteko. Izan ere, itsasoa plastikozko zabor-tegi bihurtzen ari da, eta balea bat gaixorik iritsi da hondartzara. Hala, Albaola ontziolan

San Juan baleontzi berria erai-kiko dute, bertako kapitaina sagua izanik. Ekaitz eta haize bortitzetatik pasata, bira eman-gio diote munduari, eta egurrezko ametsak maite ez dituen *Plastiker* garaitu.

Sarrerak salgai

Sarrerak gaur jarriko dira salgai Manuel Muñoz kiroldegiko leihatilan (7:30-21:30), sei eurotan. Antolatzaileek adierazi dutenez, adin guztietakoek beharko dute sarrera sartzeko.

Sarrerak eskuratzeko honakoa da kiroldegiko ordutegia: astelehenean: 14:00-21:00; martitzenetik egubakoitzera: 07:30-21:00; zapatuan: 09:00-13:00; eta domekan, berriz, 16:00-20:00.



Pirritx eta Porrotxek Eskoriatzan aurrez egindako saio bat. | GOIENA

Zorionak, urriko irabazle guztiei!

Hauek dira Irrien Lagunen oparien irabazleak.



GOIENA KLUBEKO BAZKIDE EGITEKO:
943 25 05 05



goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!



Joan den domekako Ensemble Sinkro taldearen kontzertuaren aurretik, Pello Zabala aurkezten. | JOSETXO ARANTZABAL

Bilboko Udal Musika Bandak etzi omenduko du Antonino Ibarondo

Ibarondoren jaiotzaren mendeurrena ospatzeko, musikari oñatiarra omenduko du Bilboko bandak, haren piezaz osatutako kontzertua eskainita

ANDER LARRAÑAGA | OÑATI

Aurten 100 urte beteko zituen Antonino Ibarondo musikagile eta konpositore oñatiarrak, eta, horren harira, *Musikegunak*-en baitan, omenaldia egiten ari zaio Oñatin.

Aurreko domekan, Esemble Sinkro taldeak haren omenezko kontzertua eskaini zuen. Bigarren emanaldi honetan, Bilboko Udal Musika Bandaren txanda da: Ibarondoren zazpi pieza original joko ditu bandak, eta, besteak beste, hark egindako transkripzio bat dago. Hori horrela, kontzertua domekan izango da, hilaren 16an, San Migel parrokian, 19:00etan hasita.

Bilboko bandako zuzendari

Arrazoi nagusi bat dago Bilboko banda etortzeko; izan ere, 1979tik

1984ra musikagile oñatiarraren batutaren zuzendaritzapean aritu zen banda hori.

Ez zen izan, ordea, zuzendutako banda bakarra: Oñatiko Udal Bandako zuzendaria izan zen 32 urtez; behin hori lagata, 7 urtean Sestaoko Udal Banda zuzendu zuen, eta, horren ondoren, aipatu bezala, Bilbokoaren agintea hartu zuen 1979an.

Orotariko abestiak entzungai

Pello Zabalak aurkeztuko du domekako emanaldia ere, eta estilo askotariko kantuak egongo direla entzungai esan du: "Kontzertuak emateko kantuak egiten zituen Antonino Ibarondok, baina baita kalean dantzatzeko moduko abestiak ere".

Lazos de lealtad pasodoblea, *Ibar Aldian* eta Rossiniren *Tanc-*

redi oberturak, *SEEI* martxa, *Oñate Zortzikoa*, *Baskaldurikan-Bapo* eta Aloña-Mendiren himnoa izango dira Bilboko Udal Musika Bandak joko dituen Ibarondoren piezak.

Hilaren 23an, azken emanaldia

Konpositorearen jaiotzaren mendeurrenaren omenaldiak amaitzeko, azaroaren 23an, datorren asteko domekan, azken kontzertua emango dute Oñatiko hainbat taldek bat eginda: Ganbara Abesbatzak, Oñatiko Abesbatzak, Parrokiako Abesbatzak, Udal Txistulariek eta Udal Musika Bandak, hain zuzen ere.

Beraz, esan bezala, Ibarondoren pasodoble, martxa eta zortzikoak, besteak beste, entzuteko aukera egongo da domeka hone-tan bilbotarren eskutik.

Euskal Herriko hilarrien gaineko erakusketa dago hilaren 29ra arte Arkupen

Hainbat panel egongo dira, baita hilarrien lau erreprodukzio tamaina errealean ere

A. L. | ARETXABALETA

Euskal Herriko hilarriak izeneko erakusketa egongo da ikusgai Aretxabaletako Arkupen kultura etxean azaroaren 29ra arte. Erakusketa hori, bere izenak iragar dezakeen moduan, hemengo hilarrien jatorria, ezaugarriak eta sinbologia eta haien interpretazioa uztartuko dituen erakusleioa izango da.

Erakusketa

Aurkezpen-panel handi bat eta beste hamabi panel egongo dira, gaika sailkatuta: sinbolo astralak, giza irudia, monogramak, gurutzea eta animalien irudia eta hilarriak egiteko erabiltzen diren harri motak, besteak beste.

Bestetik, hilarrien lau erreprodukzio egongo dira, tamaina errealean, jendeak benetan nolakoak diren irudika ditzan. Gainera, gaian aditua den Pedro Zarrabeitiaren *Estelas discoladas de Euskal Herria* liburuaren hainbat ale egongo dira, hilarrien nondik norakoak kontsultatzeko.

Ordutegia

Bada, erakusketa ikusteko, honako ordutegi honetan joan beharko da Arkupera: astelehenetik egubakoitzera 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara arratsaldean; zapatuan, aldiz, goizez bakarrik dago irekita, 11:00etatik 13:00etara.

Eidabe konpainiaren 'Egun berri bat' antzezlan domekan Zabalotegin

A. L. | BERGARA

Haurrek heriotza hobeto ulertzeko antzezlan da *Egun berri bat*. Eidabe konpainiaren eskutik dator eta Bergarako Zabalotegi aretoan izango da hilaren 16an, domekan, 18:00etan, lau euroren truke. Euskarazko lana da eta 5 urtetik aurrerako haurrei zuzenduta dago.

Galder Perezek zuzendu du obra hori eta Olatz Ganboa eta Iñaki Maruri dira aktoreak.

Heriotza da gaia

Antzezlanaren protagonista Eli izeneko neskatua da, eta Manex neba du. Hasiera batean,

Elik ez du nebaren heriotza onartzen, errudun sentitzen da eta emozio horien kaosean galtzen da. Heriotzaren onarpenaren prozesuan, ikusiz eta ikasiz aurrera egingo du eta neskatok gai potolo hori nola barneratzen duen ikusten da apurka-apurka.

Sentsibilizazio kanpaina da

Eidabe konpainiakok diotenez, ikusleak hunkitzea eta sentsibilizatzeko du helburu lanak; azken finean, gai delikatua da, eta, hain zuzen, heriotza indartsuago eta alaitsuago ikusteko balio dezake.

SANMILIXANAK

XXII. ESKULANGINTZA FERIA

LEINTZ GATZAGA 2014

AZAROAK

16

IGANDEA



10:00
14:30



Autobus zerbitzua egongo da:
10:00 - 14:30

ESKORIATZA - LEINTZ GATZAGA
LEINTZ GATZAGA - ESKORIATZA





Jonathan Vaz, Bergarako kiroldegian.

Jonathan Vaz | Eskubaloia arbitroa

"Epailea izateko, ezinbestekoa da bi entrenamendu edukitzea: fisikoa eta mentala"

ANDONI MUXIKA | BERGARA

Jonathan Vaz bergararrak eskubaloia du gogoko. Txikitatik jokalaria ibili eta gero, pauso bat eman du aurrera eta orain, arbitro moduan disfrutatzen du eskubaloiaz. Esaten duenez, aste buruetako lana da hori, eta, horregatik, astean zehar erdi mailako ziklo bat ikasten ari da: Sukaldaritza eta Gastronomia, hain zuzen ere. Oraingoz, oso gustura dago, eta, hemen arbitratzeaz gain, beste leku batzuetara ere joaten da; aurten, adibidez, Malagako torneo batean aritu da.

Zergatik egin zinen eskubaloiko epaile?

Batez ere, asko maitatzen dudako eskubaloia. Txikitatik hasi nintzen jokatzeko eta oso gustura

nengoen. Baina urte batean ezin izan zuten talde bat aurrera eramane: jende gutxi zegoen, medioak falta ziren... eta, horregatik, eskubaloiko epaile hasia erabaki nuen. Dei batzuk egin, eskatzen zituzten probak gainditu eta, horrela, eskubaloiko epaile bihurtu nintzen. Bada, geroztik, oso gustura sentitzen naiz rol berri horretan.

Nola jasaten duzu presioa?

Hasi nintzenez, oso gaizki. Pentsatzen nuen ezingo nuela epaile jarraitu. Hasieran, normala denez, txikien, hau da, hasiberrien partiduak arbitratu behar izaten dira eta partidu horietara guraso asko joaten dira; eta haien jarrera ez zen batere eroso nik hartzen nituen erabakien aurrean. Horrenbestez, hasieran,

bereziki, oso zaila da aurrera egitea. Baina gero, nortasuna sendotzen den neurrian, horretaz disfrutatzea lortzen da.

Orain arte, nolako izan da zure esperientzia?

Askok disfrutatu dut. Lehen aipatu dudako moduan, hasierak oso zailak dira. Batez ere, hasieran ez daukagulako nortasunik arbitro moduan. Baina zenbat eta partidu gehiago arbitratu, orduan eta seguruago sentitzen da bat eta, azkenean, horretaz disfrutatzen da. Azken finean, jantziago egonda, horrekin zera lortzen da, mailaz igotzea; hau da, norberari finkatzen dizkioten helburuak betetzen badira, gora egiten da. Aurten, Euskadiko Ligan dihardut epaile, futboleko hirugarren maila izango litzatekeena.

Malagan esperientzia aberasgarria izan zenuen, ezta?

Bai, dudarik gabe. Espainiako epaile asko elkartu ginen, adin eta maila askotarikoak. Haiekin ideia eta esperientzia berri asko partekatu nituen, eta horrek, zalantzarik gabe, arbitro hobe egin nau.

Nola entrenatzen da arbitro bat?

Epaile izateko, ezinbestekoa da bi entrenamendu edukitzea: fisikoa eta mentala, hain zuzen ere. Lehenengoa preparatzeko, korrika egitera joaten naiz, astean pare bat ordu, eta, horretaz gain, Oñatiko eskubaloia talde baten entrenatzen naiz astean behin. Bigarrena, berriz, zailagoa da; hori entrenatzeko modu bakarra arbitratzea dela uste dut; izan ere, azkenean, esperientzia irabazita ikasten da.

Baduzu bestelako zaletasunik?

Bigantxak asko gustatzen zaizkit. Txikitatik gustatzen zait herrie-

tako jaietara joatea horretan ibiltzeko; egia esanda, eskubaloia baino lehenago hasi nintzen horrekin. Horrela, ahal dudanean, beti joaten naiz edozein herritara bigantxek disfrutatzen.

Nola bateratzen dituzu ikasketak eta lana?

Ondo. Azken finean, asteburuetako lana da. Asteazkenean zehar erdi mailako ziklo batean dihardut eta bukatzen dudanean entrenatzen joaten naiz. Oraingoz, oso ondo nabil, eta horrela jarraitzea espero dut.

Nahiko zenuke horretaz bizi izatea?

Horretaz bizi izatea ezinezkoa da. Maila nagusietan ari direnak, adibidez Espainiako maila nagusia, Asobalen, beste lan bat dute horretaz gain. Honekin esan nahi dut ezinbestekoa dela epaile izateaz gain beste lan bat edukitzea. Baina, noski, asko litzaidake etorkizunean aukera hori izatea.

PERTSONALA

Talde gustukoena: Desagertu zen bat, San Antonio.

Toki gustukoena: Kiroldegia.

Bizi izateko leku bat: Corella (Nafarroa).

Musika talde gustukoena: Iron Maiden.

Amets bat: Arbitro profesional bilakatzea.

Pelikula bat: *The Hunger Games* (Gary Ross, 2012).

ASTEAGOIENAN



JAGOBA DOMINGO

Hesian taldeko Fran Urias gaur telebistan

Kulturriketak saioaren bigarren atalean, Hesian taldeko Fran Urias abeslari eta gitarra jolea elkarrizketatuko du Larraitx Zeberio aurkezleak. *Hegalak astinduz* izeneko diskoa kalera-tu berrian, diskoaren nondik norakoak azalduko ditu.

'Kulturriketak'
Egubakoitza, 22:00



JAGOBA DOMINGO

Erosketa-bonuak banatzen telebistan

Lehiaketa bat estreinatuko dute eguazteneko *Debagoiena zuzenean*-en eta Imanol Gallego kazetaria Arrasateko kaleetan ibiliko da herritarrei erosketa-bonuak banatzen. Herriko dendetan erosketak egiteko 40 eurorainoko bonuak banatuko ditu.

'Debagoiena zuzenean'
Eguaztena, 20:00

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, 14

12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Amaia DJ
13:00 Ikusi irratia
13:55 Zorion Agurrak
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Amaia DJ
15:30 Onein
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Gipuzkoa Pedalka
17:30 Ikusi irratia
18:15 Ikusmira
18:25 Zorion Agurrak
18:30 Berriak
19:00 Ur eta lur
19:30 Amaia DJ
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Kulturriketak
22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
23:30 Amaia DJ
00:00 Debagoiena zuzenean
00:30 Berriak

ZAPATUA, 15

10:00 Amaia DJ
10:30 Erreportajea
11:00 Debagoiena zuzenean
11:55 Astea iruditan
12:00 Gipuzkoa Pedalka
12:30 Kulturriketak
13:00 Harriblock
14:05 Amaia DJ
14:30 Harira
15:00 Debagoiena zuzenean
16:00 Astea iruditan
16:05 Mahaingurua:
Euskalgintza-feminismoa
17:30 Amaia DJ
18:00 Kulturriketak
18:30 Bertso saioa
19:00 Debagoiena zuzenean
19:55 Astea iruditan
20:00 Harira
20:30 Amaia DJ
21:00 Gipuzkoa Pedalka
21:30 Kulturriketak
22:00 Debagoiena zuzenean
22:55 Astea iruditan
23:00 Harira
23:30 Gipuzkoa Pedalka
00:00 Amaia DJ

DOMEKA, 16

10:00 Debagoiena zuzenean
10:55 Astea iruditan
11:00 Gipuzkoa Pedalka
11:30 Amaia DJ
12:00 Harira
12:30 Idemtitateak
13:00 Debagoiena zuzenean
13:55 Astea iruditan
14:00 Kulturriketak
14:25 Zorion Agurrak
14:30 Erreportajea
15:30 Gipuzkoa Pedalka
16:00 Amaia DJ
16:30 Debagoiena zuzenean
17:25 Astea iruditan
17:30 Harriblock
19:05 Amaia DJ
19:30 Kulturriketak
20:00 Gipuzkoa Pedalka
20:30 Debagoiena zuzenean
21:25 Astea iruditan
Euskalgintza-feminismoa
23:00 Debagoiena zuzenean
23:55 Astea iruditan
00:00 Kulturriketak

ASTELEHENA, 17

12:00 Debagoiena zuzenean
13:00 Ertzak
13:25 Zorion Agurrak
13:30 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Kulturriketak
15:30 Onein
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Harira
17:30 Ertzak
18:00 Ur eta lur
18:25 Zorion Agurrak
18:30 Berriak
19:00 Amaia DJ
19:30 Kulturriketak
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Harmailatik
22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
23:30 Kulturriketak
00:00 Debagoiena zuzenean
00:30 Berriak

MARTITZENA, 18

12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Harmailatik
13:00 Erreportajea
13:25 Zorion Agurrak
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Harmailatik
15:30 Onein
15:55 Zorion Agurrak
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Amaia DJ
17:30 Erreportajea
18:25 Zorion Agurrak
18:30 Berriak
19:00 Idemtitateak
19:30 Harmailatik
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Harira
22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
23:30 Harmailatik
00:00 Debagoiena zuzenean
00:30 Berriak

EGUAZTENA, 19

12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Harriblock
13:55 Zorion Agurrak
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Erreportajea
15:30 Onein
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Harmailatik
17:30 Kontzertua
18:25 Zorion Agurrak
18:30 Berriak
19:00 Harmailatik
19:30 Harira
19:55 Zorion Agurrak
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Gipuzkoa Pedalka
22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
23:30 Harira
00:00 Debagoiena zuzenean
00:30 Berriak

EGUENA, 20

12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Gipuzkoa Pedalka
13:00 Idemtitateak
13:30 Ur eta lur
13:55 Zorion Agurrak
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Erreportajea
15:30 Onein
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Harmailatik
17:30 Kontzertua
18:30 Berriak
19:00 Harmailatik
19:30 Harira
19:55 Zorion Agurrak
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Gipuzkoa Pedalka
22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
23:30 Gipuzkoa Pedalka
00:00 Debagoiena zuzenean
00:30 Berriak

ARRASATE IRRATIA

'La rosa del azafrán' zarzuelarako sarrerak zozketan

Arrasateko Izaskun Murgia elkarte lirikoak azaroaren 22an Amaia antzokian 19:30ean estreinatuko duen zarzuelarako sarrerak dauka zozketan. Sarrerak lortzeko, hartu parte zozketan 943-25 05 05 telefonora deituta, edo, bestela, *irratia@goiena.com* helbidera idatzita. Animatu!

Asteko gainbegiratu zapatu eta domekan 10:00etatik aurrera

Arrasateko Goikobalu abesbatzak *Carmina Burana* obra eskainiko du bihar, zapatua, 20:00etan, Amaia antzokian, eta obrari buruz Goikobaluko zuzendari Iñaki Maidagani egindako elkarrizketa entzun ahal izango da, besteak beste, bihar eta etzi 10:00etatik aurrera Arrasate Irratian.

ESKER ONA



Jose Miguel Biain Guridi



Oñatin hil zen azaroaren 1ean, 48 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana familiaren izenean.

Ondra meza zapatuan izango da, azaroaren 15ean, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan. Bertaratuko zaretenoi alde zurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2014ko azaroaren 14an.

ESKER ONA



Jose Miguel Biain Guridi



Hamabost egun pasa dirala zauriak itxi ezinka aurrera egin beharra degu pittin-pittinka gutxika eskerak emateko ordua

iada dago iritsita etxeko eta ehiza lagunek bertso hauxe idatzita gugana hurbildu zaretenoi den-denoi eskeinita.

Ehizako lagunak eta Beñat, Unai eta Gurutze.
Oñatin, 2014ko azaroaren 14an.

OROIGARRIA

Susana Larrañaga Guillen



2008ko azaroaren 13an hil zen.

Ez zaittugu inoiz ahaztuko, ez zaittugu inoiz galduko, gure bihotzian eruangoz zaittugu betirako.

Zure kuadrillakoak.
Bergaran, 2014ko azaroaren 14an.

ESKER ONA



Margarita Beitia Urkia



Oñatin hil zen 2014ko urriaren 20an, 89 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno eskerrik asko, sendikoen izenean.

Ondra meza zapatuan izango da, azaroaren 15ean, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan. Bertaratuko zaretenoi alde zurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2014ko azaroaren 14an.

ESKER ONA



Roberto Aiastui Arregi



Oñatin hil zen urriaren 31n, 67 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan, modu batean edo bestean, babesa eta gertutasuna adierazi diguzuen guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana familiaren izenean.

Ondra meza zapatuan izango da, azaroaren 15ean, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan. Bertaratuko zaretenoi alde zurretik eskerrik asko.

Bertaratuko zaretenoi alde zurretik eskerrik asko.
Oñatin, 2014ko azaroaren 14an.

ESKER ONA



Joseba Juarez Mendizabal



2014ko azaroaren 7an hil zen, 34 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno eskerrik asko, sendikoen izenean.

Bergaran-Beasainen, 2014ko azaroaren 14an.



Joxe Mari eta Mari Jose

Joxe Mari Larrañaga eta Mari Jose Abarrategi azaroaren 14an ezkondu ziren, orain dela 50 urte. "Urrezko ezteiak betetzen dituzten honetan, zorionak, seme alaben, suhi-errainen eta, batez ere, zuen ilobatxo Goiuriren, Iratiren, Aitzolen, Erlaitzen, Goiatzen, Aratzen eta Garaziren partetik. Zapatu honetan denok elkarrekin ospatuko dugu. Zorionak, eta ondo pasatu eguna!".



Manolo eta Lupe

Manolo Diaz eta Lupe de Marcos azaroaren 14an ezkondu ziren orain dela 50 urte. Urrezko ezteiak zapatuan, hilaren 15ean, ospatuko dituzte. Zorionak, Josuren, Mariñeren eta Samuelen partetik.



Luis eta Karmen

Luis Villar eta Karmen Elortza 1964ko urriaren 10ean ezkondu ziren. Azaroaren 9an, aurreko domekan, seme-alaba, biloba eta anai-arrebekin batera ospatu zituzten urrezko ezteiak. Guztira, 28 elkartu ziren. Familia guztiaren partetik, "zorionak, bikote!".



Karmelo eta Maite

Karmelo Zubizarreta eta Maite Beloki 1989ko urriaren 28an ezkondu ziren. Aurreko zapatuan ospatu zituzten zilarrezko ezteiak familiarekin batera. Guztion partetik, "zorionak eta urte askotarako, bikote!".

URTEURRENA

Susana Larrañaga Guillen



2008ko azaroaren 13an hil zen.

Seigarren urteurreneko meza domekan izango da, azaroaren 16an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.


Nahiz eta erlojuaren tiki-takak aurrera egin, beti gure artean izango zaitugu.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, etxekoien izenean. Bergaran, 2014ko azaroaren 14an.

URTEURRENA



Carlos Gomez Gonzalez de San Pedro



2009ko azaroaren 14an hil zen.

Bosgarren urteurreneko meza domekan izango da, azaroaren 16an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Beti izango zaitugu gogoan. Beti izango zaitugu gure artean. Etxekoak

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, etxekoien izenean. Bergaran, 2014ko azaroaren 14an.

URTEURRENA



Jose Antonio Arregui Akizu

'Bizkai'



2013ko azaroaren 3an hil zen, 81 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, azaroaren 16an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2014ko azaroaren 14an.

URTEURRENA



Cesar Cebrian Albistegui



Bergaran hil zen 2013ko azaroaren 26an, 64 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, azaroaren 16an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2014ko azaroaren 14an.

URTEURRENA



Pedro M. Aiastui Egana

'Konke'



1959-02-21 / 2013-11-15

Urtebeteko meza zapatuan, azaroaren 15ean, 19:00etan, Oñatiko Mikel Deunaren eliza nagusian izango da.

Izarr itzali zaigu saminaren sari zurekin bizitza zori onari *geroarte xume bat gure liliari uso maitagarria zinan Pedro Mari.*

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2014ko azaroaren 14an.

OROIOLORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea

Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.



maribi 617 44 21 55
BERGARA



goiena

2014-11-14

BUKATZEKO

Beñat Arnaiz, autobusaren pare

- ▶ Artemanek iragarkia egin du Aizpurua konpainiarentzat, eta triatleta aretxabaletarra da protagonista
- ▶ Autobusak ere hainbat eginbeharretara egokitzen direla irudikatu nahi izan dute konparaketarekin

JULEN IRIONDO | ARETXABALETA

"Polita izan da, esperientzia berria, eta polita", dio Beñat Arnaizek, Aizpurua autobus konpainiaren iragarkia dagoeneko ikusgai dela -euren webgunean-. "Sekula horrelakorik egin gabe, eta esan nuen: 'Zergatik ez?'; eta berriz ere tokatzen bada halakoren baten parte hartzeko aukera, hura gertu: 'Gauza berriei ez zaizkie sekula atea itxi behar'. Triatletaren eta autobusaren arteko konparaketa ere egokia iruditu zitzaion Arnaizi.

Arteman enpresako Arantzazu Lagunillak honela azaltzen du atleta eta ibilgailua parekatzearena, bezero izan duten autobus konpainiak kirolarekin harreman berezia duela aurrez azalduta: "Ideia da eurak [Aizpurukoak] daudela prest hainbat esparrutan lan egiteko; goi mailakoak direla eta egokitzen direla askotariko egoeretara eta askotariko esparruetara. Eta hori izan zen; egokitzeko gaitasun hori eta kirolarekin duten harreman hori kontuan hartuta, pentsatu genuen kirol batekin lotzea. Eta ze kirol izan daiteke hainbat diziplina ukitzen dituen? Triatloia izan zitekeela pentsatu genuen"; triatletak egokitu egin behar izaten duelako hainbat diziplinatar.



Eta proposatu zioten Arnaizi: "Galdetu genion geure buruari: 'Zein dugu inguruan? Triatleta bat nahiko profesionala dena; lagun asko dituen...'; hori ere garrantzitsua zen-eta guretzat. Aizpurua ere badu inguruan halako komunitate handi bat, eta ez genuen nahi edozein triatleta izatea. Eta pentsatu genuen: 'Beñatek baditu Gipuzkoa mailan eta Euskadi mailan oihartzun bat eta irudi bat'. Beñati proposatu genion eta baiezkota eman zigun".

Landan eta Usurbilen -konpainiaren egoitzan- egin zituzten grabazioak Arnaizekin. Iragarkiak tartekatzen ditu triatletaren eta autobusaren irudiak: "Itxura ona hartzen nion hasieratik; eta, bideoa ikusita, argi dago izugarritzko lana dagoela hor. Askok gustatu zait". zioen protagonistak.



Iragarkia dela-eta egindako argazkiak. | JOSU TXINTXURRETA

AZKEN BERBA

AGURNE BARRUSO



Herri galdeketa Zestoan

Opusiozko inor gutxi espero zuen, guztiek eskatzen zuten arren, Foru Gobernuak Zestoako hondakinen biltegiaren inguruko galdeketa egingo zuenik. Seguru asko, eskatu ere horregatik eskatzen zuten, ezezkoa jasoko zutela uste zutelako. Baina Martin Gariotano diputatu nagusiak Zestoan galdeketa egingo duela eta EH Bilduren gobernuarentzat emaitza loteslea izango dela esan zuen prentsurrekoan pasa den astean.

Lehen aldia da Gipuzkoan GFaren eskumeneko azpiegitura baten inguruan galdeketa egiten duena Gobernuak. Esango nuke udalaz gaindiko lehen administrazioa dela Euskal Herrian horrelakoa egiten duena. Hego Euskal Herrian, seguru.

Legegintzaldi honetan demokrazia zuzena modu maltzurtean erabili da arerioa jotzeko. Inoiz ezer galdetu ez duenak eskatu du galdeketa inork baino ozenago eta galdeketa aldarrikatzen urteak daramatanari kosta egin zaio urratsa egitea. Hala ere, eman du. Bigarren galdeketa iragarri du Foru Gobernuak legegintzaldi honetan. Igeldokoa egin zuen eta Zestoakoa iragarri du.

Politika egiteko moduak aldatzen ari dira eta GFA ohar-tu da horretaz. Segi dezagun.

ARRASATEKO BASERRIKO
PRODUKTUEN AZOKA

09:00-14:00 Seber Altube Plaza

HILEKO 3. ZAPATUAN

2014
azaroak 15

Antolatzailea:



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
Egitegi eta Garapen
Ekonomikoen Salla

Laguntzailea:



Arrasateko baserriek eta
merkatariak konfiantza,
herbilasuna eta kalitatea
eskaizten dizkizute.

